

Ebazpenak

**Eraikuntza
nazionalerantz.
LABen eginkizunak.**

**Osotasunean
aritzeko, erakunde
efikaza behar**



Biltzarra



Zbkia

TXT 20136

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

ERAZKUNAK

Ebazpena

4 . B i l t z a r r e a

2000

URTERAKO BIDEAN:
KOIUNTURA
POLITIKO-
EKONOMIKOAREN
GAKOAK

**Eraikuntza nazionaleruntz
LABen eqinkizunak**

2

N

Ebazpena

2.000 urterako bidean
koiuntura gakoak

N AZIOARTEKOAK

4

Ebazpena

1. NAZIOARTEKO EGOERA: GAKOAK

- 1.1. Mundializazio proiektuaren joerak
 - 1.1.1. Neoliberalismoa: euskarri ideologikoa
 - 1.1.2. Enpresa multinazionalak
 - 1.1.3. Ipar-Hegoa: gatazka iraunkorra
 - 1.1.4. Bloke inperialistak
 - 1.1.5. EEBBak eta hegemonia mundiala
 - 1.1.6. Nazioarteko instituzioak
 - 1.1.7. Estatuaren betekizuna
 - 1.1.8. Planetako baliabideak agortzeaz
 - 1.1.9. Espekulaziozko inbertsioa
 - 1.1.10. Ongizatearen Estatuaren kontrako erasoa
- 1.2. Euskal Eraikuntza Nazionala eta Nazioarteko Harremanak
- 1.3. Europa eraikitzea: noranzko urratsa?
 - 1.3.1. Maastricht-eko Ituna
 - 1.3.2. Europa Ekialdeko Herrialdeak
 - 1.3.3. Europako sozialdemokrazia
 - 1.3.4. Europako Herriak berpiztuko ote?
 - 1.3.5. Europaren eraikuntza eta ekinbide sindikala
- 1.4. Europa eraikitzeko eredu berri bat
- 1.5. Herriek osasutako Europa

2. ESTATU ESPAINOLA

- 2.1. Estatu eredua krisiak jota
- 2.2. Egoera sozioekonomiko honetako gakoak
- 2.3. Sindikalismoa Estatu espainolean

3. EUSKAL HERRIA

Sarrera

- 3.1. Hego Euskal Herriko egoera politikoa
 - 3.1.1. Egiturarako giltzarriak
 - 3.1.2. Nazionalismo erregionalista
 - 3.1.3. Ezker Abertzalea
 - 3.1.4. ELA-LAB dokumentua
 - 3.1.5. LABen ekinbide soziopolitikoari begirako ondorioak
- 3.2. Hego Euskal Herriko egoera sozio-ekonomikoa
 - 3.3. Testuinguru sindikala
 - 3.3.1. Hego Euskal Herria
 - 3.3.2. Ipar Euskal Herria
 - 3.4. Euskal langileria: orainaldia eta geroaldia
 - 3.4.1. Alderdi orokorrak
 - 3.4.2. Hego Euskal Herria

N

N AZIOARTEKO EGOERA

“PROIEKTU
NAZIONALAK
MUNDIALIZAZIOAREN
TESTUINGURUAN”

8

N

Ebazpena

1.1. MUNDIALIZAZIO PROIEKTUAREN JOERAK

Bederatzigarren hamarkada honen ezaugarri nagusietako bat, mundializazio prozesu izenekoari dagozkion kontraesanen bilakaera da. Mundializazio kontzeptu honen atzetik, mundu mailan kapitala bildu eta metatzeko joerak eta honelako prozesuaren sortzaile diren nazioarteko politikak ezkututzen dira.

Sistema kapitalistaren logika nagusitu da mundu zabalean eta nazioarteko merkataritza muga lokalak hausten ari da, banan-banan, kapital transnazionalen etekina maximizatzeko legeak arautzen duen kapital eta merkagaien jario bakarria ezartzeko. Sistema bera bezain zaharra den metatze prozesu honi, EEBBek izen handi-mandia ipini diote: Nazioarteko Ordenu Berria (NOB), Golkoko Gerrak izan zuen eragin informatiboaz baliatuta.

Hurrengo ataletan laburbilduko ditugu fenomeno honen oinarritzko elementuak:

1.1.1. Neoliberalismoa: euskarri ideologikoa

NEOLIBERALISMOA agertzen da mundializazio proiektuaren eta NOB ezari nahi duten sektore hegemonikoen euskarritzat. Herrialde eta enpresetako politika ekonomikoen helburu bilakatu da neoliberalen produkzio kontzeptua. Neoliberalen produktibitatearen beste aldean pobrezia eta desberdinkeriak daude.

Merkatua da oraindik politika ekonomikoaren zuzendari. Honen kontrolpean, gizakiak eta natur baliabideak merkagai bilakatu dira. Nazioarteko merkataritzak faktoreen prezioak azkenean berdinduko dituela dioen teoriaren indarrez, herrialde industrializatuetako koalifikazio apaleko langileek beste herrialde guztietako antzeko langileekin lehia sartu dira, halabeharrez. Beraz, horien soldatak beherako joera agertuko dute hemendik aurrera eta, ondorioz, produkzio-ehuna hondatu egingo da.

1.1.2. Enpresa multinazionalak

Enpresa multinazionalak mundializazioaren eragile eta onuradunak dira. Kapital finantziaria produkzio-kapitalaren gainetik jartzea, irabazkin azkar eta errazak ateratzea, enpresak irenstea eta politika monetaristak, nagusi dugun politika ekonomikoaren bizkarrezur bihurtu dira (1. Eranskina).

Merkataritza, merkagaien, kapitalen eta teknologiaren kontrolean eta, gainera, etekin kapitalista ugaltzeko bete behar diren baldintzetan datza, bereziki, enpresa transnazionalen (ETN) boterea.

Erdialdeko herrialdeek merkaturak aukeratu izana (GATT eta WTOeko itunetan eta bloke komertzialen sorreran gorpuztuak) nazioartekotze proiektuaren sortzaile izan da. Honek, ekonomia nazionaletan eta lan-merkatuetan eragin erabakiorra izango duenez, mundu zabaleko produkzioan ETNen ezarpena finkatuko du.

Kapital eta lanaren indar erlazioa aldarazten dute ETNek, lehenaren alde eta, gainera, honelako enpresen inbertsioak harrapatzearen, herrialdeen arteko lehiaren sortzaile izan dira. Lehiaren ondorioz, gastu publikoa murriztu behar den bitartean, lan eta inbertsio-baldintzak erabakitzeke, enpresarien ahalmena areagotu egiten da.

Beraz, mundializazioa, nazioarte mailan bere metaketa-eredua ezarri duten gorporazio transnazional handiek zuzendutako fenomeno dela esatea ez da gehiegikeria. Plangintza merkatuaren esku uztea, nazioarteko harremanen etorkizuna eta garapen-eredua gorporazio transnazionalen eskutan uztea da

1.1.3. Ipar-Hegoa: gatazka iraunkorra

Pobre eta aberatsen arteko aldea, azken hamarkadan, areagotu egin da. Hamarkada honetan argi eta garbi egiaztatu da hazkuntza ekonomikoa ez dela lantresna egokia desenplegu-tasa handiei amaiera emateko eta, bestetik, herrialdeak "industrializatuak eta garatzeko bidean" zetozenak sailkatzen zituen tradiziozko ideia kapitalista (are gehiago, batzuen garapena besteenaren mesedetakoa dela zioen teoria) baztertu du (2. Eranskina).

G-7k mundu zabaleko gobernu ekonomikotzat baietsi du bere burua eta dinamika ekonomikoak agintzen ditu, hauek hirugarrengo herrialdeetan epe ertain eta luzera izan ditzaketen ondorioak zeharo gutxietsita. Eztabaidan jartzen den osagarritasun bakarra, bertako kideen interesetan eragina izan dezakeena da (3. Eranskina).

Mundializazioaren estrategiek Hegoaldean daukan eragina migrazio masiboen eragilea da eta, aldi berean, kapital eta merkagaiak bezalako faktoreen zirkulazio askearen aldeko lagun sutsuenek, jendeari eusteko politikaren bitartez, migrazio horiek eragotzi egiten dituzte. Egokitzapen-politikek, Hegoaldeko herrialdeetan frustrazio eta suminaren sortzaile izateaz gain, hemengo egoera politiko-ekonomiko indargea ahuldu ezezik, mundu osoaren segurtasuna ere mehatxupean ipintzen dute.

Sistema kapitalistari dagozkion aldakuntza estrukturalengatik, HEGOA ETA IPARRA BEREIZTEN DITUEN PITZADURA HANDITU EGIN DA (4. Eranskina).

1.1.4. Bloke inperialistak

ETNen babespean garatu den mundializazio prozesuak estatuen arteko mugak hautsita, garai berri bat (behin-behinekoa, agian) ekarri du, egitura hirukoitzeko blokeen sorrera, alegia. EEBB, Europar Batasuna eta Japonia beraien eskuhartze-gunea osatzen ari dira, horietan herrialdeetan eta kontinente osoak sartuta. Blokeen artean izaniko istilu eta gerra komertzialen eta herrialde "azpigaratuentzako" dirulaguntza eta inbertsioen beherakada izugarriaren sorburua izan da, hain zuzen ere, eragin-gune horien finkapena. Gerra inperialistak, indar faxista eta xenofoboaren bersortzea, giza garaipenei erasoak, langabezia eta bazterketaren zabalkuntza, diru eta berekoitasuna gurtzean oinarritutako alienazio orokorra, askatasun eta eskubideen murrizketak, korrupzio orokortua, kapitalismoaren itxurazko garapenaren ondorio dira, sistema anker eta basatia dela erakusten dutenak

EEBBak, Europar Batasuna eta Japonia, kapital eta inbertsioen trafiko eta trukeen bitartez daude elkarri loturik eta elkarren menpeko harreman konplexuen sarea antolatu dute. Mundializazio joeraren barnean ez da harrizkeoa, beraz, ETNek behar dituzten erreferentzia politiko-instituzionalak bloke hegemoniko horiexek izatea.

Kapitalista nazionalak, faktoreen mugikortasun itzela dakarren mundializazioa dute aurrean baina honek, beraien ahalmenetan oinarritutako garapena oztopatu egiten du. Egokitzapen eta birmoldaketak etengabe-ko, iraunkor bihurtu dira eta *fordismoaren* ordez, *toyotismoa* nagusitu da, produkzio eta industri aparailua aldarazita.

Honen ondorioz, ekonomia mundialean segurantziaz eza eta botere handien arteko enfrontamenduak (50. etatik gertatu izan zirenak baino latzagoak) izango ditugu protagonista. Gatazka hauen ugaltzen handiaren ondorioz, interes monopolisten mesedetako mundializazio proiektuaren garapena traumatikoa izango da, seguraski. Gehiegizko ekoizpena dela eta kapitalismoaren krisi fase bat bizi dugu, zeinak Hirugarren Munduan eta Europako Ekialdean merkatu berriak bilatzera bultzatzen dute, hauek berriro ere Mendebaldeko koloniak bihurtzen ari direlarik. Potentzia kapitalista ezberdiñak, beraien artean lehian dabilta, influentzia eta neokolonialismo esparruak lortzear.

1.1.5. EEBBak eta hegemonia mundiala

Nazioarteko Ordenu Berriaren ideologo eta zaindari dira EEBBak. Hegemonia mundiala —alderdi militar-ideologikotik edo ekonomikotik—, EEBBetako kapitalak hartutako norabide nagusia eta bertako elite politikoa- ren lehenasuna da.

Mende honen amaierako gertakari garrantzitsuenetako bat, Golkoko Gerra izan da, dudarik gabe: gatazka honen bidez, EEBBak munduko aitzindari bihurtzen saiatu dira berriro, gendarme unibertsalaren egin-kizunean, etxeko ekonomiaren susperkuntzaren alde jokatu duelarik. Bestetik, bere politika komertziala babestean, daukan hegemonia duda-ezinezko bihurtuko zukeen kolpe militarra emateak (lehenago, Panaman eta Grenadan aritua zen) erakusten duen indarra ere, argi eta garbi geratu da.

EEBBen hegemonia, ikuspegi ekonomikotik, auzitan dagoen arren, amerikar merkatua osatzearen alde agertu izanak kontinente osoan eragina zabaldu eta Europar Batasuna eta Japoniarekiko zeukan jarrera finkatzeko balio izan du. Inortxok ere ukatu ezin duena, ustezko NOB osatzean EEBBek duten balio hegemonikoa da, ekonomia mundializatzen ari den honetan.

Kapital yankee monopolistak mundializazioaren alde egin duen apustuak Estatu Batuetako gizartean eragin hondagarriak izan ditu, potentzial militarra garatzearen kostu sozialagatik eta gorporazio transnazionalen interesei baldintzatutako politika ekonomikoaren ondorio sozialengatik. EEBBetako gobernuek eraman duten politika ekonomikoari esker, Depresio Handiak lortu ez zuena lortu da: produktibitatea goraka doan bitartean, herriarren diru-sarrerak behera etortzea. Paradoxa hauxe da: diru-sarrerak murriztearen arrazoia produktibitatearen hazkuntza izatea (5. Eranskina).

2.000 urterako bidean
hoiuntura gakoak

N A Z I O A R T E K O A K

1.1.6. Nazioarteko instituzioak

NOB horrek, azalez tekniko eta neutrala den perspektibatik, ordenu berri hori garatzeko gai izango diren NAZIOARTE MAILAKO INSTITUZIOEN BEHARRA DAUKA.

Banku Mundiala, Nazioarteko Moneta Fondoa eta Komertziorako Erakunde Mundiala izan dira politika ekonomiko kapitalistaren lanabes zuzendariak. Horien diktamen eta aholkuen arabera garatu dira Heren Munduko herrialdeetan egonkortasunaren plan gordinak eta zorraren sortzaile den finantzen jarioaren joan-etorriak. Horien laguntza eskatzen duten herrialdeei ezarritako baldintzak hauek izan dira: inportazioen mesedetarako moneta-politika egokitzea; inflazioa murriztu eta produktibitatea handitzeko neurritzat, soldatei eustea; gastu publikoaren murrizketa eta sektore pribatuak eskuera dituen baliabideak gehitzea; prezio, zerga eta subsidiei dagokienez, ekonomia desarautzea.

NATO, Nazioarteko Ordenu Berriaren makila. NATO, mendebaldeko herrialdeen makila den heinean, globalizazio-garaietan NOB finkatu eta hegemonia praktikan jartzeko garantia da. Nazioarteko eskuhartze-lanabes ekonomikoek erakutsi dute, argi eta garbi, *merkataritza eta segurtasuna* baliokideak direla eta segurtasuneko kanpo-politika dela merkataritza mundiala garantizatzen duen kanpo-politika.

Testuinguru honetan, nazioarteko organismo den aldetik, NB erakundea botere-taldeek nahi erara manipulatu eta erabili dute, beren interes politiko-ekonomikoetan eragin negatiboa duten erabakietan, beto-eskubidea baitute hauek. NB hainbat Estatu bakarrik osatua izateak, gaurregun Estatu horien parte diren Herrien (Balkanak) arazoei soluziorik ematea galazten dio. Eskuhartze-mekanismoak ez daude garatuta, NBren finantziabideak ez dira aski, EEBBek baldintzapean daude eta Mendebaldeko herrialdeek gehiegizko ordezkaritza daukate, gainontzekoen kaltetan.

1.1.7. Estaturen betekizuna

Globalizazioaren eraginez estaturen betekizuna funtsez aldatzen da. Estaturaz gorako egiturek sistema maila handiagoan garatzea ahalbideratzen duten neurrian, estatuak globalizaziorako eragile eksklusibotzat zituzten prerrogatibak galtzen dituzte eta, hortik aurrera izango dituzten jarduerak, zergak bildu eta gizartea kontrolatzea izango dira, funtsez, ekonomia mundialeko jauntxoei planetako baliabideak nahi erara erabil ditzaten onartuta.

Estaturen barnean garatutako interes monopolistak izan dira, mende honetan, estaturen sorrera eta iraupenaren agintean egon direnak; berak izan dira kapitalaren metaketa erraztu dutenak, bere buruaren mesedetan. Honek, egungo joeren aldakuntza eragiteari dagokionean, estatuak bazterrean utzi eta gorporazio transnazional handien morroin bihurtzen ditu. Estatuaren lana gaurregun, dagokion esparruan, merkagaiak eta kapitalak erraztasun osoz ibil daitezkeen baldintzak jartzea, egokitzapen eta desarauketan politikak praktikan ipintzea eta, era berean, NOB proiektua finkatuko duten estaturaz gorako lanabesak sortzea da.

Estatuei emaniko eginkizun hauek, haien interes ez-monopolisten aurka doaz eta, hortaz, deslokalizazioa mehatxutzat jotzen dute. Desoreka

egongaitz honetan sortzen dira iraganeko fantasmak, itxura faxistaz, arrazismoaz eta xenofobiaz. Estatuaren krisiak, mundializazio ekonomikoaren testuinguruan, mundializazio proiektua inposizio militarreko gertakari gisa finkatuko duen faxismoaren erainaren eramaile bihur dezake estatua, geroz eta aberatsagoa izango diren elite estatal eta mundialan onuraz.

Batzuetan, kanpoko enpresen konpetentziaz ezabatuak izango lira-teken kapital zatiak indartzeko, Estatuak mundu mailako kapitalen interesen galeran, beren "barneko" kapitalisten interesen alde jokatzeko da gaurko Estatuaren ustelkeriaren iturri haundienetako bat. Beren merkatu zatiari eusteko, alderdi politiko eta Administrazioako gizon haundiak erostea, zenbait haundien joera, eguneroko gauza da.

1.1.8. Planetako baliabideak agortzea

Industri-produkzioaren izenean kapitalismoak sortarazten duen kutsaduraren bitartez baliabide-kopuru eskergak suntsitzea, lehengaien prezioen monopolioaren arabera landare-hazkuntzak birmoldatzea, plangintzarik gabeko erabilera intentsiboetan energi baliabideak agortzea, hitz batez, ustiakuntza intentsiboa eta natur baliabide estrategikoen kontrola dira NOBaren diseinuaren zati bat: honek, baliabide horiek merkantilizatzera eta agortzera eramaten gaitu.

1.1.9. Espekulaziozko inbertsioa

Espekulaziozko inbertsioa nagusitu da kapital-merkatuetan. Egutero egiten diren kapital-mugimenduen %80a espekulatzekoa da. Mugiera hauek ekonomi errealtatetik geroz eta autonomia handiagoz dabilta eta, eskuartean dauzkaten moneta-kopuru itzelengatik, herrialdeetako moneta-politikak aldatu ahal izan ditzakete.

Banku Mundialak eta NFMak babesturiko politiketan, banku zentralen autonomian, Heren Munduko herrialdeen zorraren birnegoziazioan, finantza-merkatuen desaruketan eta kapitalen espekulaziozko mugimenduri ematen zaizkion erraztasunetan ere dauka agerpen eta eragina espekulaziozko inbertsioak. Kapitalen espekulaziozko mugimendu hauek (bilioi bat pezeta egutero) politika monetaristen ondorio dira.

1.1.10 Ongizatearen Estatuaren kontrako eraso

Gizaldi bateko langile eta herri industrializatuetan profuktibitatearen gehitze ikusgarri eta metropolioei kolonietako explotazioaren alderdien ondorioa da Ongizatearen Estatua. Baina, batez ere, Munduko II Gerratearen ondoren, komunismoak ez kutsatzeko txerturik onena zela pentsatuaz, Ongizatearen Estatua eraikitzen dute erregimen kapitalistak. Honegaitik, kapitalismoaren hiztorian keynesianis moa salbuespen bat dela esan daiteke eta kapitalismoaren merkatutik kanpo garatzeko ahalmenak azaldu zituzten herri klaseek politikara egin zuten sarrera gage ezin da explikat.

Politika ekonomiko neoliberalak lagundutako kapitalen metaketari funtsezko eragozpen bilakatu zaio Ongizatearen Estatua. Neoliberalismoak era guztietako arauketen kontra eraman duen borroka ideologikori esker,

mundu zabaleko toki guztietan, Ongizatearen Estatu izenekoaren kontrako erasoaldia jaurtzea posible izan da.

Ongizatearen Estatuaren kontrako erasoaldia ez da mugimendu ekonomiko-koiuntualen ondorio; aitzitik ordea, sistemaren beharrian estruktural baten araberakoa da: *kapitalaren mesedetan, klase sozialen arteko errenten trukea*, alegia. Ongizatearen Estatuaren kontrako erasoaldi horren helburua, ahalik eta baliabide gehien desbideratu eta kapitalaren eskura ipintzea da.

Ongizatearen Estatuaren suntsitzearen bidez langileriaren kontrako erasoaldi bikoitza jaurtitzen da: lan-indarraren intsegrantzia eta debaluazioa azkartu eta, bestetik, gorantz datorren klase sozialen arteko aldeak sortarazten dituzten elementuak indartzen dira. Sistemaren bideragarritasun demokratikoa aldarazten duen izaera estrukturaleko aldakuntza da, beraz.

Pobrezia saihestezineko gaitz bezala onartzea, Ongizatearen Estatuaren zartzeko faktore nagusi bihurtu da. Produktibitatea lortzeko politika fiskal atzerakoiak aplikatu behar direla dioen teoria ankerrak osatzen du, beste batzuekin batera, sistemako ekonomisten altxor intelektuala. Begibistan dagoenera eta, zerga-politika aurrerakoien bitartez, gutxienez barne-eskakizunari eta ekonomiaren hazkuntzari eusteko gauza diren garapen-eredu batzuetara begiratzerik ez dute nahi.

Ongizatearen Estatuaren gainbehera, langileak bazterrera bultzatzen dituzten estrategia kapitalisten onurakoa da. Ez gara soldatez eta kostuez bakarrik ari: enpresari eta langileen arteko (aurrenekoen alde) botere-erlazioetan erabateko aldakuntza gertatu dela esaten diogu.

Horrelako kapital-mugimenduek estrukturalki finkatzen duten oinarrietako bat, lan-merkatuaren kontrolean datza. Lan-politikak aldatzearen bitartez eragiten den eskaintzaren gaineko kontrolak eta, honekin batera, langabezia eta prekarietatezko lan asko egoteak ateak zabaltzen dizkiete enpresariei lan-indarra sartzeko eta lanpostuan irauteko baldintzak ezar dituzten. Bidebatez, langileriaren debaluazioari esker, gizartearen bikoizketa areagotu egiten da. Merkatuaren kontrolak ekinbide sindikala dinamitatzea errazten du: horrela, errotazioari, mugikortasunari eta produkzio-kostuen politikari lotutako elementu hutsa bihurtzen da langilea.

1.2. EUSKAL ERAIKUNTZA NAZIONALA ETA NAZIOARTEKO HARREMANAK

Testuinguru honetan, nahitaez egin behar da galdera: Mundializazio babes-tu honek dakartzan arriskuei ihes egiteko moduko nazioarteko harremanen eredurik garatzeko gauza izan ahal daiteke Euskal Herria?

Kapitalen metaketak ezarri duen nazioarteko harremanen proiektuaz zeharo bestelakoa erdiestearen alde, nazioarte alorrean jarduteko beharra planteatzen dugu. Etsi-etsian sinesten dugu ahalmen teknologikoek eta Herrien arteko elkartasunezko garapen demokratikoak eskatzen dutela subirautea politiko eta ekonomikoa ez ipintzea gorporazio transnazionalen

edo nazioarteko botere-zentruen eskutan. Aitzitik ordea, norik bere garapen-eredua eratu behar du, elkarlan eta elkartasunezko irizpidez nazioarte giroan arrakastaz jarduteko.

Jakitun gara, ikuspegi mundialetik guregan eragina duten arazoei erantzuna eman behar zaiela: ingurugiro alorreko, elkartasunezko edota katastrofeen prebentziorako politikak, herri eta nazioen arteko gatazka armatuak, banakuntza, garraio eta merkataritzazko arazoak, monopolio eta espekulaziozko praktikak kontrolatzeko politikak, e.a.

Horregatik, Euskal Herria eta munduko gainontzeko herrialdeen arteko harremanak geroz eta sendoagoak izantearen alde gaude. Euskal Herriarentzako proiektuaren kontrako esplotazio kapitalistan eta Estatu espainolaren egituren bitartekaritzan oinarritutako harremana da onartzen ez duguna, horretara behartzen gaituzten arren.

Herrien geroaldia, gorporario transnazionalak ezarritako mundializazio-joeraren norabide-aldaketari hertsiki lotuta dago eta, beraz, mundu zabaleko Herrien askapen nazional eta sozialaren aldeko borroka areagotzearen beharrean dago, testuinguru sozialistan beti ere. Handiak nahiz txikiak izan, Herriek bizirauteko aukerarik ez dute NOBek daukan etorkizuneko apustuarekin. Herriek aukerarik ez badute, inortxok ere ez du izango aukerarik, eta alferrikako enfrentamendu antzua gertatuko da: segurantzirik ezaren, suntsiketaren, faxismoaren erresuma, hitz batez.

Azken hamarkadetan Euskal Herrian Ezker Abertzaleak askapen sozial eta nazionalaren alde daraman borroka testuinguru honetan nazioarte-maila hartu du. Horri esker eta ikuspegi horretatik, arrakasta izango dugula espero dezakegu.

Erlazio horietan eta herrien eta herritarren eskubideekin adeitsua izango den munduko gizarte berria eratzean sujeto eragiletzat jotkatzearen aldeko apustua egin dugu. Segurtasun politikarik hobereana, herriek duten autodeterminatzeko eskubidean oinarrituta, harmoniazko giza-garapenaren aldeko politika da, inondik inora.

Beraz, gure iritiz pertsona eta herrien harmoniazko garapenean inbertitzea da segurtasunezko inbertsiorik hobereana. Ondorioz, premiazkoa da:

- Egungo egitura militarrek suntsitzea eta egiazko desarme-politika egitea.
- Natur baliabideak zaintzearen elkarlanerako organismoak sortzea eta Herrien garapen endogenoa sustatzea.
- Guk erdietsi nahi dugun NBEak gatazken soluziobidean esku hartu behar du, are egungo estatuen barnean daudenetan ere, herrien eta giza-eskubideak zaintzeko. Deszentralizatua izan dadila, komunikazio, elkarriketa eta negoziatzeko bideak jartzen lagun dezala, erabakiak garantizatzeko konpromezua har dezala. Herrialdeen eta Batzorde Iraunkorraren egungo ordezkagarritasuna eta agerpen honen ondoriozko eskubideak osteratu planteatu beharra dago.

Gobernuz kanpoko erakundeek, NBEren ondoriozko organismoetan eta erabakitako dinamiken garapenean elkarlaguntzaz jardun behar dutela ikusten dugu.

BM eta NMFaren desmantelamendu osoa exigitzen dugu eta herrien eta herri instituzioen nazioarteko bilera berri batean, langile eta herri subiranoen artean nazioarteko kooperazio berri baten interesen alde egingo dituzten erakunde berriak eraiki.

Sistemak ezarritako egungo mundializazio-joera aldatzeko helburuak direla-eta, nazioarte mailan erakunde sindikalak elkarlanean jardutearen aldekoak gara. Mundua elkarlanean eta elkartasunez garatu ahal izateko, gizakiaren eta herrien eskubideen defentsan sindikatuak inplikatzeari derrigorrezko deritzogu. Horrenbestez, sindikatuekin, gobernuek kanpoko erakundeekin edo mugimendu politikoeekin elkarlanean jarduteko prest gaude, nazioarte mailan, politika ekonomikoek eta elkartasunezko nazioarteko proiektua aurrera eramateko gai diren organismoek joera alda dezaten.

1.3. EUROPA ERAIKITZEA: NORANZKO URRATSA?

Europaren eraikuntza, martxan doan mundializazio ekonomikoari loturik eta prozesu honek sortarazitako kontraesan eta segurantziarik ezak oztopaturik daukagu.

Europa eraikitzekeo estrategia nagusia, merkagai eta kapitalen zirkulazio askearen garapenarekin bat dator eta, bertako eta kanpoko merkatuak harrapatzekeo borrokari aurre egitearren, Europako kapitalen sorgunea eratzen saiatzen da. Kapitalaren balorazio mundialean, Europako kapitalei toki ona hartzea bideratuko dieten estatuz gorako elementu instituzionalek eutsita eta interes transnationalek zuzenduta dago estrategia hau.

1.3.1. Maastrichteko Ituna

Bloke hegemonikotzat eratzeko prozesuan Europar Batasunak emaniko urratsik behinena, Maastrichten tajaturiko konbergentzi plana (1991) izan da. Itunaren helburu programatikoak ziren aurrerakuntza tekniko eta soziala sustatzea, Europar Batasuneko herritarren interes eta eskubideen babesa indartzea, herrialde kideen arteko elkarlana areagotzea eta moneta bakarra eratzea.

Europa mailan eta norabide objetiboan, diru-metaketa erraztuko duen kapitalen zirkulazio askea —inongo eragozpenik gabe— eratzeko oinarriak sortzean datza Itunaren mamia, funtsez. Azken helburua du merkatuko indarrak liberalizatzea, desarauketa eta malguketaren bitartez.

Moneta-politika bihurtzen da jarduketan ardatz, egiazko ekonomia kontutan hartu gabe. Helburu hori lortzearren, dena sakrifikatu behar da: enplegua, babes soziala, produkzio-ehuna, elkartasuna...

Maastrichteko Itunaren babespean ezarritako politika ekonomikoak, inflazioaren kontrola, defizit publikoaren kontrola eta interes-tasen kontrola ditugune nagusiak, soldaten eta enpleguaren bizkarretik.

Kontrol politikotatik eta ekonomia errealetik banku zentralak duten independentziak eta aurki sortuko den Banku Europarrak kapital-metaketari beste bultzada bat emango diote, errenten eta Ongizatearen Estatuaren bizkarretik.

Karta Sozialaren inguruan akordiorik lortu ez izanak argi eta garbi uzten du merkatu bakarraren oinarrian, kapitala eta langileen ordezkarien arteko konpromezurik ez dagoela. Xedatutako indizeek ez dute onartzen konbergentzia sozialik (metaketa kapitalistak tajututako produktibitate kontzeptu zaharkituz bestelako konbergentziari, alegia).

Merkagai eta kapitalen zirkulazio askeari bidea libre uzteko sistema amankomuna harmonizatuko duten jarduketa fiskalak dira konbergentziarako planteamendu honen osagarriak. Nekazal merkatuak bestela antolatzea eragiten duen nekazal politika aman-komuna xedatu da. Ingurugiroa babesteko, nazioarteko organismoekin elkarlanean jardutea aurrakusi da. Beste aholku batzuk eman dira garraio, garapen, hezkuntza, merkataritza eta industri politikan eta Europar Fondo Soziala sortu da, langileen mugikortasun geografiko eta funtzionala areagotzeko balio izango duena.

Politika honen ondorioak bistan ditugu: Ongizatearen Estatuaren ahultzeko politikak, lan-baldintzen kontrola espresarien eskuetan uzteko helburuz egindako lan-erreformak, langileen bizi-mailaren beherakada, prekarietatearen nagusitasuna eta langilearen bazterkuntza sozialaren gorakada. Ez hori bakarrik: konbergentzia egiteko baldintzak negoziatzean, sindikatu eta mugimendu sozialen partaidetza eta konbergentzia soziala alboan utzi, gaitzetsi egin dira.

Egungo europar integrazioarako eredua asimetrikoa, osatugabea da eta ez da egokia Europa osoa ulertzeko: hainbat herrialde kanpo geratzen da, Europa anitza osatzen duten Herriek ez dute egiaz parte hartzen eta klase sozial batzuk langabezia, prekarietate eta bazterkuntzara kondenatuta daude.

Estatu europarrak aitzindari jarri direnez geroztik garatu den "erregio" kontzeptuak, batasunezko bere proiektuari begira, gune politiko eta kultural gogaikarriak likidatzeko politika eta barne-hegemoniazko jarrera besterik ez du agertzen. Estatuak osatzen dituzten Herrien eta Estaturik gabeko nazioen errealitatea desagertzeko bidetzat eratu da erregioa eta ez, ordea, Herri horien gaitasunak garatzeko tresna gisa. Unitate administratibo arbitrarioak dira eta, horrenbestez, aurrerakin hauetan oinarritutako edozein Batzorde Europar, estatuen Europa proiektuaren mesedetakoa da.

Europaren Eraikuntza Goresteko Urtea izango zelarik, 1992 urtea izan da Elkarrekin bizi izan duen krisialdirik gorriena. Herri-ikuspegitik kaltegarri eta ikuspuntu ekonomiko-sozialetik, bideratu ezinezkoa da Maastrichteko Europa hori. Proiektuaren eragile bada ere, Alemania gaur bere finantza-ahalmenei azkenetan dago, Ekialdeko Alemania merkatuko ekonomiara ekartzeak eta Golkoko Gerran esku hartzeak izan dituzten kostu ikaragarrien ondorioz. Moneta-politikaren egonkortasuna arriskutan ez jartzearren, une hauetan bi abiadurako Europa eratzen ari da: honek, Hegoaldeko herrialdeak hirugarren kategoriako laguntzaile bezala eta Ekialdeko herrialdeak, berriz, pobrezia eta migrazioen biktimatzat uzten ditu, egongaitzasuna nagusitzeko beste elementu

batzuk erantsita.

Premiarik gorrienetatik urrun eta ekonomia zein politikaren ikuspegitik, panorama egongaitz honen aurrean, Ongizatearen Estatura suntsitzearen beharra daukan eta langabezi tasa altuei eustea beste biderik ez duen eredia bideraezinezkoa dela erakusten ari da Europako herrialdeetako barne-erresistentzia. Honela, Estatu Franzeseko azken protestak, gizarte laguntzen murrizteen aurkako ekimenak eta enpresen desherriratzea.

1.3.2. Europar Ekialdeko Herrialdeak

Egungo Europar Batasunean Maastrichtek bidea adierazten duen bitartean, Mendebaldeko kapitalismoaren treneko azken bagoian sartu izanaren dramaren, ikusle huts dira SESB-ohi eta Europar Ekialdeko Herriak. Proiektu indibidualik eta amankomunik gabe, herrialde hauetan "nork salba bere burua" delako legea aplikatzen da eta, bitartean, merkatu-ekonomiarako trantsizioa zuzenduko duten eta, horri esker, herritarren ongizatearen eta produkzio-ehunaren lepotik aberastuko diren mafia ekonomiko-politiko berriak hazten ari dira. Merkatu-ekonomiara askatasunez iristea zen utopiarren orde, gizartearen erabateko bakanketa eta deslotura etorri dira.

(61) Errusian, bera osatzen duten Herriek maniobrabilitate politikorik ez izatearren eta SESB garaiko burokrazia dominatzailearen politika inperialistaren ondorioengatik, dagoen krisiari ahal den modurik okerrean ematen ari zaio irtenbidea. Estatu berriaren osagai baztertzaila den aldetik, botere "errusiar handia" suspertzea, nazioarteko merkataritzan zentzugabekeriaren sartzearren eta militarismoaren ondorio da.

Potentzia handiaren eginkizuna —gaurregun, Asiako errepublikak kontrolatzera mugatuta— amerikar botere-guneen eredu ideologiko-politikoarekin poliki elkartzen da. Bost axola, herritar errusiarren %37ak pobrezia mailaz azpitik bizi bada ere. Garai berrietako joeraren arabera, erreformak areagotu, industria publikoak saldu eta produkzio-ehuna suntsituko duen botere-gunea sortzeak EEBB-en eta Europar Batasunaren onespenez eta laguntza guztiak jasoko ditu.

Politika ekonomiko neoliberalak, bloke inperialistak eta mundializazioak inspiratzen duten parametro politiko-ekonomikoez jabetzen ari da bestelako estatu-egitura sortu nahi duen joera inboluzionista.

NMF eta BMak ezarritako neurriek Heren Munduan emaitza positibo urri eman badute ere, "planifikatutako" ekonomia zuten herrialdeetan erabat kaltegarri gertatzen ari dira. Barne-mailan erosmena txikia denez, pribatizatutako enpresak, ezinbestez, atzerritarren eskuetara joan ohi dira. Barne-merkatuek atzerriko monopolioen agindutara daude eta, honela, egoera lazkarri honetara iritsi gara: kanpoko enpresa askok bertakoak erosi dituzte, produkzioa murriztu eta lehiakide bat tartetik kentzeko helburu bakarrarekin. Ekialdeko Europako balizko lehiakide guztiak (Skoda, Tunsgam, e.a.) atzerriko enpresetara saldu dira, geroaldiko ondorioak inola ere kontutan izan gabe.

Ekialdean sortu berri diren estatuak, beren subirautea merkatuan azkar sartzean datzala uste izan dute eta, hortaz, Herri horietako langileek urtez urte bildutako baliabideak hutsaren hurrengo prezioan saldu behar izan dituzte.

Trantsizioko erreformen ondorioz, merkatuek ezarritako egokitza-

pen-programek porrot egin eta gestio makroekonomikoan, berriz, monopolioetara itzuli dira, ezinbestez. Ezarritako politika ekonomikoak Ekialdeko Europara gorporazio transnazionalen galbahetik pasatzen ari dira, Europaren eraikuntzarako eredu nagusian sartzeko dena prest utzita.

Estatuetako aparailu politiko-militarraren kontrolean ezarritako merkatu-ekonomiako botereak azalera ekartzea, desintegrazioa eta desaruketa bereizgarri dituen orainaldi honen ondoren etorriko da geroaldia. Egonkortasuna erdiesteko proiektu hauei atxekita, ziurgabezia eta segurantziazirik eza ari dira nagusitzen gizartearen baitan.

Batzuentzat izan, besteentzat izan, etorkizunak aurpegi desberdinak hartzen ditu. Indarrean dagoen Europar Batasunean sar daitezkeen eta Visegrad-eko akordioen partaide diren Eki-Erdialdeko herrialdeei, azken bagoian utziko zaie tokirik. Beste batzuentzat, berriz, hipotesi errealistena balkanizazioa da. Elkarrenganako gorrotoa, egonezintasuna, e.a., bertan Errusia bera amil daitekeelarik.

Panorama orokorra hau da, euforia eta egonezintasun-aldiak tartekatatu arren, herri-iritzia ez dago bat ere eroso egoera berrian eta, etorkizunari dagokionez, badirudi itxaropena sortzen ari dela.

1.3.3. Europako sozialdemokrazia

Sozialdemokrazia izan da, hein handi batean, konbergentzi planen egilea. Ipar Europako herrialdeek ala Hegoaldekoek praktikan jarritako sozialdemokraziak gauza bera ez diren arren, Europa Eraikuntzarako sozialdemokrazia ez da irtenbide orokorrean.

Sozialdemokraziak ez du asmatu —edo ez du nahi izan— europar langileen eta indar aurrerakoien indarrak biltzen, Europaren eraikuntzarako alternatiba demokratikoa garatzeko ez bazen ere, Ongizatearen Estatuaren edo lan-erreformaren aurkako neurriak oztopatzeko, gutxienez.

Gobernu sozialdemokrata duten herrialde askotan, Bigarren Gerra Mundialaz geroztik, langileriaren eta Herrien kontrako erasorik gordinenak eratu dira. Beraiek tajutu eta babestu dute estatua oinarri hartutako Europaren eraikuntza proiektua, gaur nekez geldiaraz dezakegun finantzamunstroa bihurtu den arren.

Interes transnazional eta monopolistekiko konnibentziazko jarrera honek erraztu du ilaje guztietako eskuindarrak berpiztea. Le Pen, Berlusconi, Thatcher, Aznar eta antzekoek, herrialde indartsua eratzeko proiektuan sinetsi behar duen masa topatu dute. Heren Munduari eta inmigrazioari, miseria gorrian eta prekarietatean amildutako europar herri-sektore ugari aurre egingo dien proiektua. Konbergentziazko politika urrunek sortu duten etsipenaren erantzun gisa, estatuen grina nazionalista berpiztea da horien erronka politikoa. Desberdin, bestelako, diferente den guztiaren kontrako jokaera faxista da, Herriek osaturiko Europaren aurkako apustu hutsa da.

Batak eta besteak, sozialdemokratak eta kristaudemokratak, boterearen gune berberetan ipintzen dituzte beren argudioak: botere transnazionala eta Europako aspaldiko estatuak. Boterean tarteka agertzea, baretu eta engainatu behar diren koiuntura sozial kritiko xamarren ondorio besterik ez da.

1.3.4. Europako Herriak berpiztuko ote?

Europako gerrate guztien ondoren sorturiko Estatuak ezartzen dituzten lokarriak ebakitzearen, Europako Herrien borroka berpiztea izan da berebiziko garrantziko elementua.

Herrien matxinada mozorro askoz jantzi izan da eta ez da estatu gabeko nazioetara murriztu. Makineria politiko-ekonomikoa diren heinean estatuak geroz eta urrutiago daude bertako herritarrengandik. Herriek geroz eta nabarmenago ikusten dute beren interesak ia ez datozela estatua kontrolatzen duten botereekin bat. Herri-dinamikatik bertatik sortuta, elkartasunezko eta partaidetzazko demokraziaren tajuera berria dago auzian.

Europako estatueta egoitura politiko-juridikoen baitan bizirik segitzen du egonezintasunak. Estatuak ezarpen etniko, politiko, kultural eta ekonomikoen alde agertze hori ez da aski izan XXI. mendearen etorreran eta, honek, mundializazioaren, nazioarteko harremanek sortarazitako joeren eta barne krisien mehatxupear, iraupenerako proiektuak suntsituz doaz banan-banan. Kapitela birbaloratzeko makina zaharkituak dira eta asmo berekin agertu nahi dute Europaren eraikuntzaren testuinguruan. Baina hauen printzipioek, beraien arteko lehiak, bertako burokraziek eta ustelkeriazko dinamikek eragozten diete Europa bere irudiaren arabera eraikitzea. Estatuak Europa ezinezkoa da eta, beraz, horretarako ahaleginak, segurantziaz eza, egonezintasun eta sistemaren dinamikaren eragozpen bihurtzen dira.

Europar dinamika soziala bertako Herrien subirautea aitortzearen aldekoa da, geroz eta gehiago: dinamika hau, gatazka gutxiago sortuko duen Europaren eraikuntzaren eredu errealistago batekin dator. Europar bizirik dauden gatazka politiko eta armatuen irtenbideak eta egonezintasun sozialak elkarrekin gainditu ahal izan daitezke, bera osatzen duten Herriei subirautea aitortu eta demokratikoki praktikan jartzearen bitartez.

Europako estatu zaharkituek ezarri duten indarkeriak Euskal Herria, Katalunia, Korsika, Galiza eta antzeko Herriei, gai politiko, ekonomiko eta sozialeri buruzko erabakietan erabateko subirautea izatea galarazten diete.

ugoslaviak jasaten duen gatazkak, Herrien autodeterminazioa aitortu eta praktikan jarriko ez duen egoitura politikoa antolatzea ezinezkoa dela agertzeaz gain, batzuek besteak behartzeaz aparte, arazoari inongo soluziobiderik emateko gauza ez dela erakutsi du Europar Batasunak.

Europako paradoxa: estatu kontzeptuaren krisiari soluzioa emateko estatuak ipinitako baliabideek ez dute balio irtenbide egonkorrik edo iraunkorrik emateko. Gaurregun Balkanetan, Errusiako Federazioa, Irlandan edo Estatu espainolean gertatzen ari denari ezin zaio soluziorik eman errotiko aldakuntzarik egin ezean: honek, herri-subirautea, bere bi aldakinetan (partaidetzazko demokrazia eta gune geografiko politikoa) eta subirautea politikoa parean ipini behar ditu.

1.3.5. Europaren eraikuntza eta ekinbide sindikala

Europar Batzordeak edota indarrean dauden instituzio politiko eta aholkularitzazkoek hartzen dituzten erabakietan ordezkartza eta partaidetzarako eskubiderik oinarritzak ere ez dauzkate europar langileek.

Karta Soziala geldiarazita dago, babes sozial, enplegu-politika, zer-gak eta lan-harremanetako gaiak Estatuetako botereen eskuetan daude, eta Europaren eraikuntza proiektu monopolistari aurre egiteko moduko lan-ildo amankomunik tajutzeko ez dira gai izan erakunde sindikalak. Ekinbide sindikalaren funtsezko elementua den negoziazio kolektiboa aurrera eramateko gai ez da Europar Batasuna.

Europako sindikalismoaren azterketa soil batek hurrengo ondorioetara garamatza: europar sindikalismorik ez dago. Badaude (batez ere) bere estatuko marko geografiko jarduera duten sindikatuak, Europa eraikitzekeko proiektutik kanpo utzitakoak, denak. Ez Elkarteko organismoak, ez alor ekonomiko-laboralean edo sozialean dauden eskuduntzak, ez dira demokraziazko eskuhartzera iristeko exigitu behar diren gutxien-gutxienekoak.

Estatu-mailakoak izateak oztopatzen die Europar sindikatu askori Europaren eraikuntza ulertzea: ezarritako eredu onartu eta, hortik irten gabe, adierazitako zelaian, errentaren eztabaida erreduktionista jokatzeko saiatzen dira, eskuhartze sindikalaren ezinbesteko aldakin politiko eta sozialekin ahan-tzita. Europako sindikatu gehienek autodeterminazio eskubidearekin agertzen duten jarrera (ukapen teorikoa edo onartze sinbolikoa baina ez operatiboa), demokrazia eta gizartearen kontra doan Europaren eraikuntzarako ereduaren defentsaren adierazle da.

Europaren eraikuntza zuzentzen ari diren sujetuei, ezartzen ari diren ereduari eta (eraikuntza-eredu herritarraren arabera) planteatu beharko litza-tekeem eredu berriari buruz hausnartzea bultzatu beharko luke Europako Sindikatuen Konfederazioak. Horretarako, Europaren eraikuntza berri baten interesik eduki lezaketen Herri guztietako errealitate sindikalei ateak zabaldu beharko lizkieke, mugarik eta murrizketarik gabe. Honek, ekinbide sindikalak nozitzen duen "mendebaldeko eurozentrismoa" eta Europar Batasunean dau-den estatuekiko menpekotasuna aldatu egingo luke.

Europako Herrien esparruan klase-interesak bateratzea da, bestelako parametroetatik, mundializazio eta Europaren eraikuntzaren testuingurua aztertzeke.

Aurtengo maiatzean CESeK egin duen VIII. Kongresuko erabakiek eta Idazkari Nagusi den Emilio Gabaglio-ren hitzaldiak agertzen dituzte europar sindikalismoaren jarrera orokorrak: Europaren eraikuntza prozesuan, lehenta-sunezko helburutzat, enpleguaren alde jardutea; eskubide sozialek txertatu behar dira EEE eraikitzekeko proiektuan eta Maastrichteko Itunaren hurrengo erreforman; europar exekutiboak diren aldetik, Europako Parlamentuaren eta Europar Batzodearen eginkizuna indartzea; gizartearen ahotsa sartzeko, Eruropako Batzorde Ekonomiko eta Sozialari garrantzi handiagoa ematea.

Joera horretako alderdi politikoek bertan behera utzitako Europa eraikitzekeko proiektu sozialdemokratarekin bat datozen ponentzietan planteatuta-ko proposamenak; enplegu eta errentari dagozkion ekimenak garatzean poli-tika ekonomikoa planteatu nahi dute, ekonomiaren hazkuntza finkatzaeren aldeko jarreretatik.

Europako Konfederazio Sindikalaren VIII. Kongresuan txalo-zaparrad-ak jaso zituen Delors Planari dagokionean, gutxi: planak ez ditu desenple-guaren aurkako borrokaren aldakinak funtsez mugitzen. Enplegua sortzekeo europar merkatuko funtsezko elementuak diren aldetik, garraio eta telekomu-nikazio-azpiegituran inbertitzean datza Delors-en apustua. Koalifikazio urriko

lanesku ugari egotearen ondorio da langabezia edo, Planak behintzat, hala dio. Lanesku horri lana eman dakioke koalifikazio txikieneko enplegetako soldatak jaitsiz. Era berean, aukera horrek, miseria eta bazterkeriaren sortzailer diren zabor-enpleguen ugalketa ekarriko ez ote duen beldurra aitortu dute. Ez dirudi gaurkoz Europar Batasuna ortodoxia neoliberaletik irtengo denik.

Sindikalismo "europarra" ahaleginetan ari da Itunaren eragin negatiboak ahalik eta gutxienak izan daitezen, baina ez du Ituna bera auzitan jartzen. Partaidetzaz eta sakontze demokratikoaz hitzegiten den arren, Europako estatuek ezarritako *statu quo* hori onartu egiten da. Deslokalizazioa, kapitalen mugiera espekulatiboak, industriaren suntsiketa, bazterketa eta desberdinkeria areagotzen ari omen dira baina, halaz ere, merkagai eta kapitalen zirkulazio askea ez auzitan jartzen ez mugatzen duten erabakietan bilatzen dira irtenbideak.

Estatu tradizionaletan elkarturiko konfederazio sindikalak, europar gizarte aurrerakoa sortzearen kontra doan biziraupena erdiesteko borrokatzera zigortuta daude. Erakunde sindikal estatal horiek sentsibilitatea izan beharko lukete Europako Herrietan sortzen ari den errealitate politiko eta ekonomikoaren aurrean. Horretarako, beraien antolakuntza zentralista deszentralizatu eta independente bihurtzetik hasi beharko lukete, berantegi gabe, Herrien esparruan koka dezaten beren ekinbidea.

Ikuspegi honetatik, Herriek osaturiko Europaren alde dauden sindikatuekin lokarriak sendotzeari lehentasuna ematen diogu, europar esparruan, ekinbide bateratua planifikatzeko eta sindikatuetakoa ahalik eta sekzio gehienekin komunikabideak zabaltzeko, Europaren eraikuntza proiektu berriari begira, ekinbide sindikal egokia eramateko helburuz.

Europako Sindikatuen Konfederazioan dugun agerpena —jasan dezakegun oposizioaz kanpo—, geroago azterketa eginda, goien adierazitako planteamenduak defendatzeko aukera izatearen baldintzapean egongo da.

1.4. EUROPA ERAIKITZEKO EREDU BERRI BAT

Esandako guztiak adierazten du Europar Batasunaren eredua ostera eta bestelako parametroetatik planteatu behar dela, ezinbestez:

Europako Herriei beren izaera ekonomiko-politikoa aitortu behar zaie eta beraiek izan behar dute Europaren eraikuntzaren eragile berriak. Europaren eraikuntzari egokia izango zaio Herriek osatutako Europa bakarrik, integrazio-helburutzat.

Modernitatearen, sozialismo eta elkartasunaren elementu askatzaileak irabaziko dituen gizarte-eredu berria eratzeko gauza den artean bakarrik iraungo du Europak. Elkartasun sozial eta borroka ekologikoarekin, gizartearen despatriarkalizazioarekin, bestelakotasun etniko eta kulturekin demokratiko eta tolerantia izango den Europaren eraikuntza proiektua da hau.

Aberastasunen banakuntza ahalbideratuko duen mundua garatzeko proiektuarekin hertsiki lotu behar da Europaren integrazioa, hurrengo belaunaldiak ere hemen bizi ahal izan daitezen. Integrazio horrek, desmilitarizazio-estrategia ahalbideratu eta, bidebatez, Heren Munduarekiko harremanak birplanteatu behar ditu, kanpo-zorraren barkazioaren alde jardunez.

Merkatu desarautu bateko indarren jokaera askearen ordeztu, Ekialdeko eta Mendebaldeko herrialdeen politikak bateratuko dituen politika ekonomikoa ezarri behar da, herri-sektoreek konpromezu soziala har dezaten. Orainarte garatu den industri suntsiketaren eredia ezin delako Europa osoan hedatu eta, gainera, ekarri dituen ondorioengatik, herriak ez du nahi horrelakorik.

Europaren eraikuntza proiektuak SESB zeneko Herriekin elkarlanean jardun behar du, beraiek erabaki ahal izan dezaten harreman eta txertatze-mailak. Ekialdea eta Mendebaldea, elkar aberastuko duten kultur gunetzat ulertu beharko dira.

Sorrerazko proiektu hau, gizakien eta Herrien eskubideak eta jarduteko arau amankomunikak xedatuko dituen Europako Konstituzioaren beharrean dago. Konstituzio honek jorratu beharrekoak lirateke autodeterminazio eskubidearen babesa, informazioaren autodeterminazioa, eskubide sozialen hedapena eta langileen emantzipazioa ahalbideratuko dutenak, naturaren babesa eta gizon eta emakumezkoen berdintasuna zaintzea. Helburu hau betetzeko, Herriek aukeratutako beste Europar Parlamentua eratu beharra dago.

Europar Batasun berri horren demokratizazioak demokrazian sakontzea eskatzen du baita finantzen esparruan ere eta mugimendu espekulatuaren deuseztatze eta komunitate barruan kapitalaren mugimenduak kontrolperatzeko tresna erangikorren sortzea. Planteatzen dugun demokraziaren sakontzeak eskatzen du sindikatuek eta gizarte-eragileen eskuhartzea instituzio-sare osoan eta, dagozkien gaietan, erabakiak hartzean ere.

1.5. HERRIEK OSASUTAKO EUROPA

Honelako estrategia baten bizkarrezurra, Herrien berdimentsionamendu ekonomikoa litzateke, produkzio-ehunen garapenaren, garapen teknologikoaren erabileraren eta produkzioaren difertsifikazioaren bitartez.

Herriek osatutako Europa horrek, Bigarren Gerra Mundialaz geroztik finkatutako *statu quo* mantendu eta erasoaldiak egitea helburu duten armadei uko egin beharko lieke.

Herriek osatutako Europan, ekonomiaz eta baliabideez erabakiak hartzea eta kontrolatzea Herrien eskutan legoke. Herriek erabateko independentzia eduki beharko lukete alor fiskal, politiko, kultural eta administratiboan, bidezkoak diren politika eta finantzaketak kontsentsuz onartu eta

negoziatzearen bitartez, europar proiektu bateratuan lagunduz.

Europar testuinguruan Herriek izango luketen eginkizun amankomuna, denen arazoak aztertzean elkarlaguntzazko jarduera onartzea litzateke, gai hauetan eskuduntzak edukiz:

- Gizaki eta Herrien eskubideen garantia
- Elkarlaguntzazko garapen ekonomiko-soziala
- Elkartasunezko testuinguru mundialean, kanpo-harremanetako proiektu amankomunak
- Herriei laguntza emateko, fondo estrukturalen garapena
- Ingurugiro eta gizarte alorretan, ekinbide bateratuko programak
- Europan barrenako komunikabideak
- Elkarlaguntza teknologikoa eta Europako informazio-sareak.

Testuinguru honetan, nabarmenki kaltegarri gerta lebizkiekeen erabaketan parte ez hartzearen, Herriek beto-eskubidea izan lezakete.

EBAZPENAK

LEHEN EBAZPENA. *Mundializazio ekonomikoak eta Nazioarteko Ordenu Berria izenekoak mundu zabalean sortaraziko dituzten ondorio kaltegarriak izango ditu bereizgarri honako Kongresuak jorratzen duen ziklo politiko-ekonomiko honek. Nazioarte eta ekonomia alorretako harremanetan parametro berriak bilatzeko xedez, pobrezia, desmaila sozial, ingurugiroaren suntsiketa eta antzekoak sortarazten dituen makineria horri aurre egiteko mugimendu sindikalak aurrera daraman borroka da XXI. mendearen atari honetan sindikalismoak dauzkan erronka nagusietako bat. Euskal Nazioaren Eraikuntzaren aldeko borrokan, indarrean dagoen proiektu eta herriek subirotasuna eta langileen askatasuna munduan segurtatzeko demokrazia politikoa eta ekonomikoaren eredu berri baten zabaltzea.*

BIGARREN EBAZPENA. *1996 urtean Maastrichteko Itunari eman beharreko ikuskapenari ongi letorkioke europar sindikalismoaren erasoaldi ideologiko eta mobilizatailearen laguntza, Itun horrek berak sendotu nahi duen Europaren eraikuntzaren ereduaren aurka. Indar sozial aurrerakoiek —LAB, besteren artean— Maastrichteko Europari alternatibazko erantzuna eman behar diote, estatuek eta multinazionalak osatutako Europa hori baldintzapean jarriko duten elkarlaguntzak eta mobilizazioak sortuz eta zabalduz.*

1996 urtean Maastrichteko Itunaren berrikuspena dela-eta, beste erakundeekin laguntzarekin, Euskal Herrian eta Europa osoan, erantzunezko jarduketak egin daitezten Sindikatua, beste erakundeekin konprometitzen da.

HIRUGARREN EBAZPENA. *Gaurregun dauden Nazioarteko Erakunde Sindikaletan afiliatzerik ez dio planteatu LABek bere buruari; aitzitik ordea, Txostenean adierazitako parametroetatik, nazioarteko harreman ireki eta anitzak mantendu eta suspertuko ditu.*

E

ESTATU

ESPAINOLAREN

EGOERA

E

Ebazpena

2.1. ESTATU-EREDUA KRISIAK JOTA

Franco duela 20 urte joan bazen ere, aurreko erregimenak osagai zituen egituterako botere judizial, polizial eta militarrek gune askotan irautea eta, aldi berean, Estatuaren politika orokorrean sektore mediatikoen babeskeriaren baldintzapeko demokraziarako trantsizioa egiteko ereduaren ondorioak jasaten ditu oraindik Estatu espainolak. Monarkia ezartzea eta Konstituzio espainolaren edukina izan dira haustura demokratikorik gertatu ez izanak estrukturaliki baldintzatutako trantsizioaren euskarri politikoak.

Oinarrizko arazoetan (23-F, LOAPA, ZEN plana, Lege Antiterrorista, GAL, CESID, Hiritarren Segurtasunaren Legea, e.a.) jarduerak eta ustezko aurrerakuntza demokratikoak baldintzapean jarri eta desegonkortu dituzten sektore mediatikoei pitzadurak ireki dituzte etengabe, ezarritako "demokrazia formal" horretan. Botere politiko formala, UCD eta PSOE, egoera hori neutralizatzeko gauza ez dira izan baina, gainera, ELKARREKIN IRAUN dute, zeharo ondorio tamalezkoekin. Esparru polizial, militar eta ekonomikoetan azken urte hauetan azaltzen ari diren eskandalu eta txantaiak ELKARREKIN IRAUTE horren emaitzak eta, nola ez, PSOEek baldintza demokratikoak sortzeko borondaterik ez erakustearen ondorio.

Baldintzapeko "trantsizio demokratiko" honek, bere fase eta gorabeherekin (23-F eta oraingoa), EGITURAZ Estatu espainolean eragiten duten bi faktore nagusiren baitan izan du eragina: estatu-eredua eta europar integrazioaren eredua.

Konstituzio espainolean sortutako estatu-eredua, arazo nazionalak ez neutralizatzear gain (NAEMek daraman borrokaren ondorio desestabilizatzaleei esker, batez ere), oso ondorio larriak izan dituen desordenu politiko-administratiboaren sortzaile izan da.

Autonomien maparen artifizialtasuna, egitura ekonomiko administratiiboak ugalduta, Estatuko nazioen erreibindikazio demokratikoei dagozkien profil estrategiko indartu (Ezker Abertzalea) eta sorberriak (BNG, ERC) jarraitzea, mapa politiko orokorrean eragina duten aukera erregionalisten garapena, e.a. dira Estatu-eredua astintzen duen krisiaren agerpenak, beste batzuekin batera.

Estatu-ereduaren krisiaren aurrean, instantzia politiko eta mediatiko-informatzaileek nazionalismo espainol intolerante eta aginkeriazkoa garatu dute. "Espainia" eratzeko apustuaren ondotik, estatu-ereduaren krisiari buruz egindako beharrezko hausnarketan bultzatu da oso eragin negatiboa daukan korrante politiko, kultural... hori.

Kontsentsu konstituzional berri baten testuinguruan Estatu-eredua berrikustea, XXI. mendearen atarian Estatu espainolak dauzkan egundoko gako politikotzat agertzen da. Estatu espainolaren bilakaera demokrazia erreal baterantzergaitiak euskarria izango da, neurri handi batean, estatu-eredua aldatzea eta barne-arazo nazionala desagertzea ahalbideratuko duten oinarri demokratikoak jartzea.

Txandakatze politikoa egitearen aldeko gerrak —horretarako Estatuaren atzealdean konponketak eginez— oso eragin desestabilizatzaileak sortaraz litzake, Estatuaren funtsezko arazoetan espero ezinezko ondorioak izaki. Estatu-ereduaren krisia ikusita (prozesu irekiak, euskal gatazka...) teoria hau ez litzateke baztergarria izango: katarsi fasean sartzea, alegia, "Kontzentrazio nazionaleko" Gobernu batez. "Bigarren Trantsizio" baten hastapenak ote lirateke horiek...?

Europar integratzeko ereduak, nazioarte mailan "demokrazia espainolari" itxurazko legezketasuna emateko beharrezko zegoela, Estatuaren egitura eta bilakaera ekonomikoa baldintzapean jarri du, eragin desbertebraiztaileak eta, honen ondorioz, oinarritzko ongizate sozialaren adierazlearen garapen negatiboa sortarazita: langabezia, pentsioak, gastu publikoa, e.a.

Europar integratzeko ereduak —gerora, Maastrichteko Itunaren bidez izan duen bilakaeraz— Estatu espainolaren antolamendu ekonomikoa hipotekatu du, bere zutabe ekonomikoak funtsez aldatuta eta, ondorioz, kapital multinazionalaren eta Europako eragilearen aurrean (Paris-Bonn ardatza) ahulago eta menpekoago bilakatuz. Inustriaren ahultzea eta lehen sektorea integratzeak ekarri dituen kostu eskergek Estatu espainola hanka bakarren gainean (zerbitzu sektorea, turismoa bereziki) utzi dute. Integrazio-eredu hori da, neurri handi batean, langabezi tasen, murrizketa sozialen eta desmaila ekonomikoen hazkuntzaren sortzailea.

Europar sartzea eta Maastrichteko Ituna zirela-eta, herri-plebiszitirik egin ez izana da prozesu honen ahuleziaren lekuko eta, herri-iritzia lotzeko gai ez delarik, geroz eta indar gutxiago duen tankera demokratiko batean (hauteskundeak) bunkerizatzen den Estatuaren demokrazi hutsuneren berri ematen du.

Europar integratzeko ereduak eta PSOEek gai ekonomiko eta sozialetan jokamolde liberalak hartu izateak egitura ekonomiko-finantziaria monopolizatu du (enpresa ertain eta txikiarentzat ondorio kaltegarriak izaki), ekonomian Estatuaren eginkizuna suntsituz joan da (sektore publikoko privatizazioak), "gauza publikoaren" (eraginkortasunik ezaren, entxufismoaren, e.a.en sinonimo) kontrako kanpaina ideologikoa eginez eta merkatuari lausenguak eskainiz. Bestetik, enplegu eta lan-baldintzei dagokienean, langile eta sindikalismoarentzat tamalezko ondorioak izan ditu.

Kapital-lana erlazioa eta bertan Estatuak duen betekizuna estrukturalki aldarazi ditu ildo ekonomikoak eta, helburu honekin, azken urteotan tajutu den lege-zerrendak.

2.2. ESTATU ESPAINOLEKO EGOERA SOZIOEKONOMIKO HONETAKO GAKOAK

PSOEk berezko politika ekonomikoa eraman duela esatea akatsa litza-teke baina, PSOEn eta hortik kanpora ere politika ekonomikoa maneiatzen dutenek neoliberalismoaren alde jokatu dute eta jokamolde horren aitzindariak izan dira. Urteotam etengabe eutsi diete neoliberalismoaren printzipioei, Estatuko beste gestorek egingo ez zituzketen aldaketak egin dituztelarik.

Politika ekonomikoaren programa honela azal genezake: politika ekonomikoaren erdigunean inflazioaren kontrako borroka kokatzea, enpleguaren sorrera eta gehikuntzari kontrajarrita. Soldaten kalterako, etekinen gehikuntzaren alde jokatzeko. Prestazio sistema publikoaren eta industri sektore publikoaren kontrako erasoak jaurtitzeko, pribatizazioa eta merkatuaren zabalpena lehenetsiz. Ekinbide sindikala ahultzea, botere osoa enpresarien eskutan uzteko.

Egungo larritasunak, orainartean eramaniko politika ekonomikoaren zuzeneko ondorio dira. Nazioarteko egoera katalizatzaile gisa aritu da, oinarriko desmailak sortaraziz.

Ekonomia kanpo-merkatuari atek behar baino lehenago irekitzeak eta Europar Batasunean integratzeak, atzerriko inbertsioen bolumenaren bitartez, ekonomia artifizialki puztu, hanpatu besterik ez dute egin. Inbertsio horiek, gehienetan, epe luzera produkzio-ehuna suntsitzeko helburuz egiten ziren edo, interes-tasa altuak zirela medio, higiera espekulatzaileak eragitegatik.

Politika monetaristak arrakasta izan du produkzio-ehuna hondoratzearen lepotik bakarrik. Bai defizit komertzialak, bai inflazioak ere sustrai estrukturalak dauzkate eta, eskakizuna murriztuz, ezer gutxi erdiets daiteke. Eraitza, ikusten duguna: esandako desmailak ia ez dira zuzendu eta Konbergentziarako Planean xedatutako baldintza guztietatik bat ere ez du betetzen gaurregun Estatu espainolak.

Gastu publiko ez-finantziaria, azken urteotan, PIBekiko ez da %4 baino gehiago igo (honetan ere Europako estatuen atze-atzealdeari eutsiz) baina, bitartean, zorra ordaindu ahal izateko, zergak disparatu egin dira.

Sektore publikoan politika murriztaileari eutsi zaio. Esan dezagun, adibidez, 1995eko aurrekontuetan PIBen sektore publikoaren karga 0,7 puntuz jait-siko dela.

Langabezi tasak Europar Batasuneko batz besteko mailen bikoak (edo altuagoak) dira, lan-prekarietatea areagotzea eta langabezi prestazioak jaistea dira, besteak beste, PSOEn politika ekonomikoaren lorpenak, garaitzapenak.

Soldata-produktibitatea erlazioa Estatu espainolean Europar Batasuneko beste inongo herrialdetan baino lehiakorragoa da. Arazoa ez datza soldatetan, enpresari espainolek zentzumen estrategikorik ez izatean eta gehie-

gizko errentagarritasunean baizik. Estatuko kontabilitateari buruzko datuen arabera, pertsonako egiazko soldatak, %0,4ean gehitu dira batenaz besteko urteko tasan; lan-kostu unitarioak, berriz, %6,5ean. Enpresa-soberakinak, bitartean, %12ko urteko tasan igo dira, bataz beste.

Industria, arrantza, nekazaritza, baso, baratza, abere edo antzeko sektore garrantzitsuen ahalmen eskergak suntsitu izanak, azken 25 urteotan ezagutzen ez ziren mailetaraino iritsi dira desmaila soziala, pobrezia eta prekaritatea.

Azken urteotan Langileen Estatuaren eta lan-merkatuaren kontra-erreformaren bitartez, lan-harremanetan aldakuntza estrukturala gertatu da: honek, lan finakoaren bizkarretik, behin-behineko lana areagotu eta, ondorioz, lanpostuak deskoalifikatu besterik ez ditu egin.

Gizarte Segurantzaren aldatzeko tentaldiak, prestazioak jaso ahal izateko baldintzak gogortzeko, prestazioen kopuruak jaisteko eta lan-merkatuko bitartekaritza bezalako zerbitzu jakin batzuk pribatizatzeke hartutako neurri-sorta luzearen aleak dira.

Aurtengo eta datorren urteko pribatizaio-politika, gastu sozialera bideratutako aurrekontu-partiden kontrako eraso bezala, izango dira jardunbide nagusiak, Estatuko egiazko botereen interesak gestionatzen duen alderdi politikoa edozein dela ere.

Egokitzapena, lan-erreformaren tuerkak estutzea, pribatizazioak ugaltzea: hauxe da, ustez, ekonomia espainola "baldintza hobezinetan", 1999 urtean, Europako moneta bakarrean integratzera eramango duen bidea. Eraginak dramatikoak izan dira eta konbergentziaren aldakinak beselakoak izaterik ez da lortu. Seguru aski, Estatu espainola ez da gauza izango konbergentzi programa betetzeko eta europar proiektuko herrialdeen artean bigarren edo hirugarren kategoriakoetan geratuko da.

2.3. SINDIKALISMOA ESTATU ESPAINOLEAN

Estatuaren finkatze demokratikoan eta gizartearen aldakuntzan "felipismoak" jasan duen porrotak berekin eraman ditu CCOO eta UGT, geroz eta nabarmenagoak diren ahulezia eta noraezean geratu direlarik.

PSOEren politika ekonomiko neoliberal dela-eta, CCOO eta UGTk erakutsi duten jarrera —aldeko defentsazkoa edo, areago, lagunke-riazkoa— areagotu egin da alderdi horren ahulezia politikoarekin batera. Maastrichteko Ituna eta honen ondorioak ezagututa, sindikatu horiek hartu duten jarrerak, lan-erreformagatiko urtarrilaren 27an egindako grebak, erreforma hori ezar dadin erraztasunak emanez, harez geroztik izan duten bake sozialak eta antzekoek, sindikalismo espainolaren jarrera ideologikoki eta sozialki indargetu duten urrats eta jokaeren koadroa osatzen dute.

Ekinbide sindikala instituzionalizatzea eta desideologizatzeak,

egiazko eragile sozial jokatu beharko luketen aldetik, CCOO eta UGTren ahulezia areagotu egin dute. Egungo testuinguru politiko eta ekonomikoari aurre egiteko unean erakunde sindikalek ditugun zailtasun guztiak aintzakotzat hartuta ere, eragile sozial garen aldetik, aldakuntza-dinamika aurrerakoiak bultzatzeko eduki lezaketen kapital soziala alferrik galdu dute. Gizartean eragiteko gaitasuna komunikazio sozialaren (komunikabideetako agerpena, alegia) arabera neurtzea izan da sindikalismo burokratizatu horren akatsetako bat, demokraziaren sakontzearen eta gizarte-aldaketaren eragile izan behar zutenik sinetsi ez dutelako.

Sindikalismo espainolaren ahulezia kezkaigarria dela medio, gestio eta protagonismo instituzionaleko gailurretara iritsi dira (Trebakuntza, Negoziazio Kolektiboa, e.a.) beraien menpekotasun "ekonomikoa" eta sindikal eragilea areagotuz. CCOO eta UGTren ahulezia horrek, beste aldetik, lan-harremanei dagokienean, goraka ari den neozentralismoaren eta chauvinismo espainolistaren igoera eragin du beren jarrera ideologikoetan, sindikalismoa abertzalearekiko enfrentamendu estrategikoa indartuz eta gero eta gehiago euskal langileria zatituaz, zatiketa honen errua sindikalgintza abertzaleari bota nahian, ondorenak jasotzen dituztenei hain zuzen ere beren erantzunkizuna emanaz.

Euskal herria, Galiza, Kanariak eta herri hauetako sindikalismoak, CCOO eta UGTk aurrera daramaten demokraziaz kontrako neozentralismo intolerante horri erantzun estrategikoa eman behar diote, esparru ekonomiko eta sozialean ere, Estatuaren errealitate anitza agertzeko. Lan-Harremanetarako Euskal Gunea eta Euskal Gune Sozioekonomikoa lortzeko estrategiak, euskal langileriaren eguneroko eta estrategiazko interesen eta protagonismoaren aldeko jardueraren bitartez, CCOO eta UGTk bultzatzen duten eredu sindikalarakin talka egiten dute, aurrez aurre. Baskongadetan eta Nafarroan sukurtsalak izan edo ez izan, euskal sindikalismoaren eta langileriaren ekinbide eta protagonismoaren kontrako proiektu sindikal estatalista eta uniformatzailea ezarri nahi dute CCOO eta UGTk.

EBAZPENAK

LEHEN EBAZPENA- Defizit demokratiko garrantzizko bat sortzen duen Estatu ereduaren krisiaren ondorioengatik puntu geldia batean aurkitzen garelarik Euskal Herrian porrot egin du Estatu Espainoleko demokrazia transizioak.

Estatu-ereduari dagokionez, Konstituzio espainola eraberritzea, Herrien Autodeterminaziorako Eskubidea aitortzeaz diharduen 2. artikulua suntsituz (Estatu espainoleko Herrien Subirautza aitortzea) eta lurraldeen bestelako antolakuntza eratzea dira funtsezko ardatzak, demokraziarako egiazko bidean aurrerapausuak ematen hasteko.

BIGARREN EBAZPENA. - "CCOO eta UGTk sindikalismo abertzalearen kontra hasitako espainiar nazionalista eta enfrentamenduzko strategiaren aurrean, LABek Estatu espainolak zapaldutako Herrien (Euskal herria, Kanariak, Galiza, e.a.) sindikalismo nazionalista iraunkortasunez koordinatzearen alde jardungo du. Suntsitu nahi dugun marko juridiko eta politiko-ekonomikoari erantzunez, esandako koordinazioak ateak zabaldu beharko lizkioke ekinbide sindikalak elkarlotzeari: honela, osotasunezko edo berarizko problematikan langileriaren jarrerak defendatuz, bi sindikatu espainol horien ereduari erantzuna eman ahal izango litzaioke. Plurinazionaltasuna onartzen duten heinean, Estatuko erakunde sindikal aurrerakoi eta klasekoekin harremanak eta elkarlana bultzatuko du baita ere LABek.

2.000 urterako bidean
hoiuntura gakoak
ESTADO ESPAÑOL

E H

EUSKAL HERRIA

EH

Ebazpena

SARRERA

Gure Herriari ezartzen zaion lurralde-zatiketak, abertzaleok koherentziazko teoria eta praktikan gainditu behar ditugun azterketa- eta eskuhartze-dinamika estankoak sortarazten ditu.

Estatu espainolak eta frantsesak Euskal Herriari ezartzen dizkioten muga politikoek eta, honen ondorioz, ezarpen horren uztarpean ditugun administrazioek, *statu quo* horrek baldintzatutako eskuhartzera eraman gaituzte, euskal nazioaren eraikuntzan aurrera egin ahal izateko, maila guztietan (politikoan, sozialean, ekonomikoan, sozialean, e.a.) determinazio koherentea proiektatuko luketen dinamika politiko eta sozialak eratu gabe.

Euskal Herriaren proiektzio politikoa nabarmendu eta bideratzeko unean bereizgarri izan dugun "hegoaldekeria" horri, era inkontzientean —baina arrisku handiz— irentsi ditugun baskongadismoak eta navarrismoak erantsi behar zaizkio. Aldez edo moldez, ezarritako lurralde-zatiketara erosokeriaz egokitu gara, bakarka eta loturarik gabe arituz.

Kongresu hau egiten dugun XXI. mendearen atari honetan, Euskal Herriak jasaten du oraindik oinarrizko eskubide demokratikoen ukapena. Hego eta Ipar Euskal Herria maila politikoan, sozialean eta kulturean bereizita dagoen arren, mende amaiera honetan bi lurraldeen egoeraren ezaugarri diren oinarrizko faktoreak berdin-berdinak dira: lurraldetasuna eta autodeterminazio-eskubidea ukatuta ditugu.

Gogoeta orokor honen bitartez, LABek militantzia abertzale osoari eta gure erakundea osatzen duten langile guztiei dei egiten die, Euskal Herria independente eta sozialista lortzeko helburuekin bat, estrategia nazionalean tenkadura teoriko-praktikoa gorpuzten has daitezen.

2.000 urterako bidean
hoiuntura gakoak

EUSKAL HERRIA

36

EH

Ebazpena

3.1. HEGO EUSKAL HERRIKO EGOERA POLITIKOA

3.1.1. Egiturarako giltzarriak

Trantsiziozko 20 urte hauek ez dute ekarri Hego Euskal Herrira bakerik, ez demokraziarik. Monarkia eta Konstituzioaren edukinak euskaldunoi eskubide demokratikoak lortzea galarazten digute, hau da, Euskal herria eta Estatu espainolaren arteko gatazkaren ardatz agertzen da estatureredua eta, bestetik, egoera ekonomiko eta sozialaren baldintzapean gaude.

Euskal Herriaren eskubide demokratikoen aldeko erreibindikazioa neutralizatzeko asmoz, Baskongatueta eta Nafarroan zabaldu den estatutu prozesuak porrot egin du helburu horretan. "Espainiako demokrazia gazteak" estreinatu zuen Autonomien Estatuan ezarri nahi zen "ongizatearen erreionalismoa" ez da gai izan hondoko gatazka nazionalari irtenbiderik eskaintzeko.

Estatutuak eta Amejoramentuak erakutsi dute Euskal Herriarekiko Estatu espainolak zeukan strategiaren izaera. Honen helburu nagusia, nazionalismo espainolaren gune politiko, ekonomiko eta kulturean euskal naziotasuna suntsitzea besterik ez zen. Hego Euskal Herria zatikatuta dauzkaten erakunde autonomikoei lortutako administrazio- eta gestio-mailak ez dute balio aurreko gogoeta deustezteko.

Nazionalismo erreionalista (PNV, EA, CDN, UPN) eta aukera desberdinetako espainolismoa ez dira gai izan "herri proiekturik" antolatzeko, oraingo oinarri politikoen gainean. Deslotura politiko-instituzionala eta indarrean dauden instituzioek politikan eta ekonomian agertzen duten ahalmenik eza Hegoaldeko herritar guztion etorkizuna estrukturaliki baldintzatzen ari dira.

Europar altuenak diren langabezia eta deslotura jasaten dituela, Estatuak eta honen eragileek eskaintzen dioten proiektuarekin ilusioak eta kohesioa galduta dabil euskal gizartea. Ezker Abertzalearen kontrako borrokaren itxurazko kohesioak, eremu antzuan dagoen proiektuarekin euskal gizarteak daukan mesfidantza eta utzikeria ezin du saihestu. Egungo proiektua krisiak jota dago eta PNV eta EAren duintasunik eta koherentziarik gabetutako jarrera kolaborazionistek Euskal Nazioaren Eraikuntzarako bidean estrategiarik antolatzea eragozten dute. Estrategia horrek, Estatuaren jarrerak direla medio, ibilbide traketsa balitz ere, erraztasunez eta indarberiturik suspertuko litzatekeen euskal gizartea eraikitzaera eramango gintuzke.

Ajuria Enea eta Iruñeako Itunak izan dira dinamika sozial baten euskarriak, bi helbururekin: Hego Euskal Herrian ezarri nahi den estatureredua ezartzen Estatuari laguntzea eta ekinbide politiko-informatzailea sustatzea, espainolismoak oinarriak har ditzan. Itunen jokaera izan da gizarteari sinestartaraztea demokrata eta biolentoen arteko gatazka dagoela. Abiagune horretatik antolatu dute beren diskurtso sasi-bakezale eta sasi-demokrata. Eskubide demokratikoak ukatzen dituzten demokratak, GAL antolatzeaz gain, kornisaldegietan tortura eta aseginatoa praktikatzan duten bakezaleak,

presoen eta herritar guztien eskubideak urratzen dituzten tolerantak... izan dira gure Herriaren normalkuntza eta bakearen aitzindariak, haien ustez.

Tesi abertzaleei erantzuna emateko, autonomia eta zapalkuntza tartekatze hori lur jota dago. ZEN Plana eta Iruñea eta Ajuria Eneako Itunak — nazionalismo erregionalistak emaniko abalekin— izan dira disidentzia abertzalearen kontrako erantzule politiko-zapaltzaileak.

Estatuaren estrategia honen ondorioz areagotu dira enfrontamenduak, batzuetan hauek gizartearengana iritsiz. Seiehun preso baino gehiago eta milaka errefuxiatu eta deportatu izatea da gatazkaren agerpenik garbienenetako bat. Europa osoan (mundu zabalean, agian) ez dago biztanleko hainbeste preso politiko dituen herririk.

Komunikazioa betidanik Ezker Abertzalearen kontrako funtsezko armatzat erabili izan da Estatuak eta komunikabideetan eginkizun hau betetzen dutenek, Ezker Abertzalearen estrategia kriminalizatzeko saioka ari dira. Horretarako, askotan gizarte osoari informazioa bihurritu edo bahitu egiten diote. Errealitatea bestelekotu nahi dute bere interesen arabera abertzaletassunaren estrategia baldintzapean jarri eta, era berean, belaualdi berrei memoria historikoa eta erreferentziak aldatzeko.

Mapa politikoan izaniko aldakuntzak (PSOeren desgastea, PPren bilakaera, UPN zatikatu eta CDN sortzea) ez dute Hego Euskal Herriko problematika estrukturalen zuzeneko ondoriorik eta, hortaz, esandako inertzia orokorrak mantendu egiten dira bere horretan. Esan gabe doa boto espainolaren bilakaera nazionalismo erregionalistak eramaniko politikaren zuzeneko ondorio dela (badaude, halaz ere, bestelako faktore osagarriak).

3.1.2. Nazionalismo erregionalista

Trantsizioaren hasieran Estatuarekin itundutako oinarri politikoetatik, euskal proiektu nazionalaren aitzindari izateko saiakeran porrot egin du nazionalismo erregionalistak. Amejorramendu edo Estatuaren bidez Estatuak, sorreratik 16 urtera, ematen duen gestio- edo ordezkaritza-mailak, Hego Euskal Herria alor politiko, ekonomiko, sozial edota kulturalen erakitzeke dauzkan mugak ederkidierazten ditu.

PNVren baitan gertatu zen zatiketa politikoak, Estatu eta bere gestoreak gure gizartean legitimatzeko joera indartu zuen, disidentzia abertzaleak zapalkuntzazko ekintza ugari jasan behar izan zuelarik. Arriagago izpirituak, Gasteizko gestioa Estatura zabalduz, PNVren dinamika antiabertzalea areagotu egiten du, nazionalismo espainol itogarri eta intolerantearen legitimazioa eta zabalpenari ateak zabalduz.

Ezker Abertzalearen kontrako eraso eta bazterkuntza politiko eta zapalkuntzazkoa izan da PNVren zuzendaritzak ordaindu izan duen prezioa, Gobernu Zentralarekin eta honen sukurtsala den PSOErekin egindako ituenengatik. Ezker Abertzalearen kontrako jarrera-nahaste horretan, PNVk gaurrarte, zenbaitetan eginkizun boikoteatzailea eraman du (Algerreko prozesua, 92an HB eta PNVren arteko elkarrizketak, e.a.): bertan alderdi horren balizko protagonismoak, gatazkaren irtenbidean eraginik izan zezakeen. Bertako zuzendaritzan proiektu abertzalerik ez izateak nahaste-borrastera eraman ditu PNVko aitzindariak, beti ere, Estatuaren aginduetara.

Nazionalismo erregionalista ez da gai izan nazioaren eraikuntza

proiekturako bidean, oinarri politiko, ekonomiko eta kulturalak sortu eta aurrera eramateko. Garai batean hartutako bidea, PNVko zuzendaritzak eramaniko gestio politikoa "esplikagarria" izan zitekeen baina ez, inola ere, justifikatzeko modukoa, koherentziazko jarrera abertzaleetik. Ertzantza, ETB, hizkuntz eta kultura politika, neurri ekonomiko eta soziorabonalak, eta beste hamaikatan nazio proiektua eraikitzeke oinarriak sendotu orde, proiektu horren kontrakoildo politiko, ekonomiko eta kulturalak indartu ditu.

Ongizatearen erregionalismoaren teoria finkatzeko ezintasuna eta Ezker Abertzalea neutralizatzeko proiektuan izaniko porrotak "Arriagako izpiritu" izenekoan lotutako ildo politikoa krisian ipini dio PNVri; kinka larrian dago orain alderdia.

Estatutuaren heriotzara iristen ari gara edo, bestela esateko, Estatuan izaniko nortasun- eta legitimitate-krisi latzarekin batera, ziklo politiko bati amaiera ematen ari zaio. Bidagurutze historikoan gaude, beraz, eta oraingoan beriz ere PNVren jarrera erabakiorra izango da enfrontamenduari eusteko edo negoziatutako soluzio politikoa bultzatzeko.

Euskal herria eta Estatu espainolaren arteko gatazkak agertzen du, hein handi batean, PNVren jarrera. PNV estrategikoki euskal nazioaren erai-kuntzarako proiektu baten alde agertzen bada, gatazkaren soluzioaren eskenatokiko mugierak funtsezko gertakari eta urratsetan oinarrituak egongo dira. "Baketze" bideak eta Estatuak ezartzen dizkigun arau politikoeekin nahasi nahi baditu, PNVren zuzendaritzaren mugierak koiunturalak izango dira, Ezker Abertzalea desgastatzeko bakarrik tajutuak.

Bi jarrera hauek batera gertatzen dira barne- eta kanpo-mailan PNVn: ikuspegi estrategikoan ildo garbirik ez dago eta, are gutxiago egungo bere praktika politikoan, honetan Estatuaren estrategia orokorrari jarraitzen diolako. Botere politiko eta autonomi kota txiki txikiak eskuratu ondoren, Euskal Herriko enpresa eta ekonomi sektore adierazgarrienen ordezkari politiko den aldetik, PNVren buruan dabilen agintari gogorren taldeak, gaur gaurkoz, erosotasun maila dotore batera iritxi da eta, keinu erretorikoetatik haratago, autonomien estatuaren egungo marko konstituzionalak auzitan jar lezaketen bide berririk jorratzea ez du nahi.

PNVk Ertzantza eta honen ildo politikoa okertu du, "armada partikular" bezalako zerbait bihurtu duelarik, disidentzia abertzaleari, Estatuarekin egindako itun eta hartutako akordioen araberrako erantzuna emateko. Ertzantza honela erabiltzeak ondorio larri-larriak ditu eta enfrontamendu politiko-sozial latzagoak sortzeko arriskua ikusten da.

Ertzantzak, gaurregun, ez du ematen polizia zibilaren, demokratiakoaren, Euskal Herriaren zerbitzutaiko poliziaren irudia, Estatu espainolaren strategiaren aginduetarako poliziarena baizik. Garrantzi nagusia hartzen ari da gatazka politikoan Ertzantzaren gero eta eragin haundiagoa. Euskal Herriaren askatasuna defendatu orde gorputz harmatua bihurtzean, gure herriari Estatu Espainolak ezartzen dion marku antidemokratikoaren zaindari bezala jartzen da. Erabiltze honek gero eta gizarte enfrontamendu handiagoren ondorioak hartuaz, bere estrategia espainolistaren harma politiko bezala eraten dute bere erabilera PNVko sektoreak. PNVren estrategian faktore mediatikoan bihurtzen da Ertzantzaren norabidea eta erabilera; alderdi hau aurkitzen den bidegurutze estrategikoan era garrantzizko batez eragin dezake.

Ertzantzaren gaurko jarrera errepresibo eta espainola neurri des-

berdinetara mugatzen duten jarreretara dagokiolarik itxaropen apur bat sortzen da polizi gorputz horren gainontzeko organizazioekin bat ez datozen ELA-Ertzantzak azken aldian dauzkan jarrerak.

PNVren jarduera politikoan, aukera *light* bat izan da EA. Nortasunik gabe, alternatiba politikotzat agertzeko ardatzik gabe, HB eta PNVren arteko bilakaeran gorabehera asko izan ditu. 1991 urtean independentziaren aldeko jarrera izan zuen, gobernu hirukoitzean izan zituen eraginak dira nabarmen daitekeen gauza bakarra. Gainontzekoan, gestioaren bila ibili da, edozein preziotan. Autobidean edota Baskongatueta eta Nafarroako hirukoitzean parte hartu izatea (biziki gorrotatzen —omen— zituen PSOE eta CDNrekin batera) dira ezagutu ezinako ildo politiko horren adibide nabarmenak.

Hego Euskal Herriko erregionalismoaren bigaren euskarria UPN da. PSOEek eman dion legitimitateaz jantzita, maila politiko-instituzionalean Nafarroako eskuinak gainontzeko Euskal Herriarekiko joera zentrifugoak areagotu egin ditu.

UPNren haustura politikoa —CDN sortuz— herrialde honetako mapa politikoa funtsez aldatzen du, Iuren sostengua duen CDN-PSOE-EA Gobernuari begira koordenada politiko berriak eratuta. Alli-ren irekizaletasunak Nafarroako erregionalismoa suspertu egin dezake, gizartearengan sustraituago dagoen aukera bikoitza eskainiz. Dena dela, Alliren jarrerak —zabalagoa— Nafarroako gainontzeko indar politikoen jokoeretan izan dezake eragina.

Hegoaldeko euskal nazio-errealitatea hausteko Estatu espainolak planteatu duen probintzibakarreko autonomiaren bideragarritasunik ezari buruzko eztabaida politikoari kontrajartzen zaio Nafarroako dinamika soziala. Euskara, intsumisioa, ekologia edo antzeko esparruetan azalera datorren indarra, herrialde honetan Ezker Abertzaleak bultzatu behar dituen sakoneko hausnarketa politikoen eragile izango da. Nafarroako hauteskunde sindikaletan izaniko emaitzak, erakunde abertzaleen hedapen eta guzti, gogoeta honetantxe kokatu beharko litzateke.

3.1.3. Ezker Abertzalea

Ezker Abertzalea da, gaurkoz, Herri honen hauspo politikoa, Nazioaren Eraikuntzaren estrategian. Sakrifizioa jasan eta borroka egiteko agertu duen ia mugagabeko gaitasunari esker, koiuntura eta akats guztien gainetik, euskal nazioaren eraikuntza politiko, ekonomiko eta sozialaren aldeko borroka zutik mantendu da.

Ezker Abertzalearen borroka Estatuaren proiektu erregionalista eta PNV-UPN alderdietako zuzendaritza kolokan jarri ditu, eta Euskal Herriarentzako bake eta demokrazia erdiesteko egiazko aukera izango litzatekeen fase politiko berri baten oinarriak ezartzeko baldintzak sortu ditu.

Azken hilabete hauetan, Ezker Abertzaleak berriro ere hartu dio tamaina prozesuari eta, 92an planteatutako apustu okerraren eraginez geroztik, Algerreko prozesuaren ondorioz sortutako desgaste politiko eta psikologikoaren faseari amaiera eman dio. Planteatutako hausnarketa eta zuzenketazko dinamiketatik ondorioztatzen diren adierazleak positibo dira eta berauei esker, erasoeko jarreretatik, Ezker Abertzaleak protagonismo

handiagoa hartuko duela pentsa dezakegu, lan politiko-soziala berreskuratzeko premian eta independentziazko proiektuaren defentsaren alde, beharrezko koherentzia teoriko-praktikoan oin hartuta jardungo duelarik, oraintxe hasten ari den ziklo politikoan jarduera politiko-sozialeko fronte guztietan.

Gatazkaren egoera ebaluatzeko unean, hauteskundeetarako indar-metaketa parametro bakarra ez den arren, oso fronte garrantzitsutzat agertzen zaigu Ezker Abertzalearen estrategiaren bilakaera indartzeko. Ezker Abertzalearen jarrera politikoa, hauteskunde-emaitzetan gelditu den arren, birbalorizatu eta perspektiba estrategiko nabarmenez bestelako gunea hartu du, honela, koituntualismoaren uztarpeko apustu politiko batzuek ez gaitzaten eraman Euskal Proiektu Nazionalaren bultzada lagundu behar duten oinarriak suntsitzera.

Ezker Abertzalearen suspertze politiko honen aurrean, Estatuak eta Ajuria Enea eta Iruñeako Itunetako alderdiek, Ezker Abertzalearen tenkadura-estrategia "berria" teorizatu nahi dute iritzi publikoaren aurrean: faltsua bezain ximplea. Zapalkuntza eta sufrimenduzko errealitate honetan Ezker Abertzaleak onartu duena da erresistentzia pasibotik ofentsiba politiko-sozialera aldatu beharra. Bestela esateko, erantzuna, tenkadura soziala erakutsi behar dira, ZAPALKUNTZAREN ETA GURE ETORKIZUN POLITIKO, EKONOMIKO ETA SOZIALA UKATZEAREN BITARTEZ, "POLITIKA EGIN" NAHI DUTENEN JARRERAK BALDINTZAPEAN JARTZEKO.

Gatazkari irtenbidea eman ahal izateko, aurtengo apirilean ETAK egindako eskaintza politikoak (LABek zeharo positibotzat jo duena) eskentoki berria ematen du. Autodeterminazioa eta lurraldetasuna, hauen aitortpena garantizatzeko Estatu espainolarekin akordiotara iristeko beharra, akordio horiek ETAK borroka armatua erabiliko ez lukeen egoera berrirako urrats gisa hartzea, elkarriketa eta negoziazio prozesuan protagonismo-maila desberdinak (ETA, Estatu espainola, alderdi politikoak, eragile sozialak...) aitortzea eta beste puntu batzuk gatazkaren gune direla adierazteak osatzen dute Hego Euskal Herrirako bake eta demokraziatzeko prozesuari begira, proposamen garbia.

Fronte guztietan nazioaren eraikuntzazko dinamika jarraian, eskuhartze instituzional eta sozialaren antolamendu eraginkorra lortzeko premia gorria dauka gainean Ezker Abertzaleak. Indar metaketarentzat egiazko baldintzak sortu ahal izateko, gizartearekin lotura iraunkorra bilatu behar dugu. Eraikuntza Nazionalerako indar-metaketa ez zaigu hurbilduko gure eskubide demokratikoak berreskuratzeko bidean urrats garrantzitsuak emanez bakarrik, baizik eta gure alternatiba politiko, sozial, ekonomikoak euskal gizartean behar bezala zabalduz, hau da Euskal Nazioa eraikitzea eguneroko, jarduketa politiko-sozialeko alor guztietan egin beharreko lana da.

Ten kadura soziala ez da kokatu behar irtenbide orokorren (autodeterminazioa...) eta zapalkuntza alorrean bakarrik. Lan hauek biziki inportanteak izanik ere aztinketa (eguneroko jarduera politiko sozialaren elementua den aldetik) sektore sozialik zigortu eta zapalduenek eskatzen dituzten erreibindikazioen alorretara behar dira. Biztanleriaren premia nazional eta sozialekin ertxiki lotutako kontrabotere sozial eta politikoa sortzea du Ezker Abertzaleak erronka betegabea.

2.000 urterako bidean
Koituntura gakoak

EUSKAL HERRIA

3.1.4. ELA-LAB dokumentua

Aurtengo Aberri Egunean argitara emaniko ELA-LAB Dokumentua izan da azken urteotako faktore politikoetatik nabarietako bat. Sinatzaileen nortasunak eta, batez ere, dokumentuaren edukinak ipintzen dute ekimen hau gune politiko abertzale demokratikoko erreferentzia nagusitzat. Estraineko partez, esparru sindikaletik erreibindikazio estrukturalako mailak (Autodeterminazio eskubidea) zehazten dituelarik, EUSKAL NAZIOAREN ERAIKUNTZAri ekiteko konpromezua dakarren dokumentua izenpetu da; era berean, alor sozio-ekonomikoan kokatzen ditu eraikuntza horrek funtsezkoak dituen lanabes eta norabideak.

Lan-Harremanetarako eta Babespen Sozialerako Euskal Gunea exigitzeak eta Euskal Gune Sozioekonomikoa lortzeko beharrak adierazten dute —edukinaren eta ekinbide sindikalaren aldetik alderdi batzuk zehaztu behar diren arren— bi sindikatuek apustua egin behar dutela Euskal Nazioa Eraikitzeke eta euskal sindikalismoa eta langileok estrukturaliki gaurregun uztarpean gauzkatzen hipotekak hautsi egin behar direla.

Dokumentu honek estatutu-zikloaren endakapena eta nazioaren eraikuntza estrategia antolatzeke beharra azaltzen du zehatz-mehatz, gatazkari garantiazko soluziobideak eman dakizkion. Hau da, Hego Euskal Herriko herritar guztiek onar ditzaketelarik, alor guztietako erabakiak ahalbideratuko dituzten arau demokratiko berriak ezarri behar direla.

Sindikalismo abertzaleak Euskal Nazioa Eraikitzearen alde egin duen apustuak indarrean dagoen *statu quo* horren zaindarien IZAERA INTOLERANTE ETA ANTIDEMOKRATIKOA uzten du agerian, herritar guztiak Ezker Abertzaleak aurkezten dien eskaintza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala indartuz.

Beste aldetik, gatazkaren soluzioa bultzatzeko, Estatuaren aurrean eman beharreko urratsak direla-eta, erreferentzia garrantzitsua da ELA-LAB Dokumentua. Hego Euskal Herriarentzat bakea eta demokrazia erdieste Estatu espainolaren eskuetan dago, bistan da, baina egoera berri horren zutabe izango den erabakia aztertu eta hartzeko, indar abertzaleen baterako ekinbide politikoa ezinbestekoa izango da. Honetan datza ELA-LAB Dokumentuaren ahalmena eta erreferentzialtasun iraunkorra.

3.1.5. LABen ekinbide soziopolitikoari begirako ondorioak

Aurreko Kongresu eta Konferentzia Nazionaletan geure buruari egotzi diogun ezaugarri multzoa ezaguturik eta goien esandako gogoetak eginik, premiazkoa dugu LABen jarrera eta jarduera soziopolitikoak zehazten duten ondorioak kokatzea.

LABen iritziz, gizartean gertatzen diren problematika politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalari egunero erantzuna eman behar die Euskal Nazioaren Eraikuntzak. Herri garen aldetik, dagozkigun eskubide demokratikoak lortzea, ezinbestekoa bada ere, ez da euskal gizartea lotu eta antolatu duen proiektu nazionala eratzeke botika magikoa. Gure eskubide demokratikoen berreskura-pena Euskal Nazioaren Eraikuntzako estrategian kokatu beharra dago, honen izaera integratzaile eta positiboa herritar guztiek ikus dezaten moduz.

Hego Euskal Herria eta Estatu espainolaren arteko gatazka politikoren soluziora elkarrizketa eta negoziazio bideetatik bakarrik iritsi ahal izango da. Prozesu honek AKORDIO bat sortu behar du, bertan gure Herriaren eskubide demokratikoak Gobernu espainolaren babespena izan dezaten eta, ondorioz, euskal herritarrak izan gaitezen geure etorkizun politikoko sujetu bakarrak. Hego Euskal Herriaren bake eta demokraziara egiaz igarotzea finkatuko duten akordioetara iristeko eta elkarrizketarako bidea zabaltzeko borondatea agertzen du ETAk planteaturiko eskaintzak.

LAB-ELA dokumentuari behar bezalako gestioa eta sozializazioa eman behar zaio, apunte historiko huts bihur ez dadin. LABen iritziz funtsezkoa da datozen hilabeteotan dokumentu horren edukinaren operatibizazioari ekitea, sindikalismo abertzaleak (LABek bereziki) berarizko protagonismoa hartuta, Itun antiabertzaleen bitartez, Estatuaren estrategiak bultzatzen duen mugiezintasun politikoa funtsez alda dezagun. Hau da, Hego Euskal Herriaren bake eta demokrazia lortzean, LABek eta euskal langileriak protagonismo aktiboa izan dezaten eskatzen dugu. ELA eta LABek ordezkatzeko duten langileez osaturiko gehiengo sozialak motibazioa hartu beharko luke helburu horren atzean jarraitzeko.

ETAren ekinbide biolentoa Estatu Espainolaren alde aurretiko ekinbide biolentoaren erantzuneko da, Euskal Herriaren borondatearen kontra haren eredu politikoa ezartzeko, Euskal Herriari bere burua garatzea eragotziz erabakitzeke zor zaion gaitasunetik. Gaurregun, Herri honi erabakiak hartzeko bere gaitasunez bizi, garatu eta harremanetan aritzea eragotzen dio Estatu espainolak.

Hego Euskal Herriaren bake eta demokrazia lortzea, eskubide demokratikoak aitortzea, enfrontamendu armatua itzaltzearen sinonimo izango da, protagonismo guztia herritarrek demokratikoki planteaturiko erabakiei utziz. Euskadin borroka armatuak ez du eredu politikorik EZARRI nahi, egiazko esparru demokratikoa kokatzea baizik; bertan, euskal herritarrek beren etorkizuna eraiki ahal izan dezaten, inolako kanpo-ingerentziarik jasan gabe. Zapalkuntza hutsa medio, Estatu Espainolaren eskubide demokratikoen ukazioari erantzun bat bezala kokatzen duelako ez du salatzen LABek ETAren borroka harmatua.

LABek Euskal Herriaren lurraldeak elkarlotzeko dinamikak sustatu behar ditu, euskal gizarteak jasaten duen bi Estatu eta hiru Administrazioen uztarpea gaindituta. Maila ekonomiko eta soziorabolean, ezarri zaigun espazio politiko-administratibora egokitzea astin dezaten dinamikak eta ekimenak martxan jarri beharko ditu LABek. Ekonomia, gizarte eta kulturaren aldetik, euskal gizarteak komunitate nazional den heinean integratu behar dugu.

3.2. HEGO EUSKAL HERRIKO EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA

Euskal Herriaren ekonomiaren ahulezia, politika ekonomiko autonomikoa garatzeko euskal instituzioak aski ahalmenik ez izatearen ondoriozko hutsegite estrukturalengatik gertatzen da.

Garapen ekonomikoaren funtsezko aldakinetan eskuhartzeko gaitasun urrian ezezik, proiektu ekonomiko integratu eta dibertsifikatua garatu ahal izateko ahalmen murrizetan ere agertzen da ahulezia hori.

Hego Euska Herrikol ekonomiak orohar jasaten dituen gaitzak, Estatuko Gobernuak eraman duen politika ekonomikoaren eta honi, EAE eta Nafarroako Gobernuek egiten dioten morrontzazko harreraren ondorio dira. Politika horren eraginez, produkzio-ehuna eta euskal gizartea funtsez aldatzen ari dira, aldakin estruktural batzuek eragiten dutelako, hala nola:

a) Lurraldeak zatikatzea. Estatutu eta Amejoramendu prozesuak, politika instituzionalaren bidez, Hegoaldeko euskal komunitatea EAE eta Nafarroaren artean banatzea azkartu du.

b) Gizarte-klaseak zatikatzea. Desantolamendu hau produkzio alorrean hasi eta, geroago zerga-politika atzerakoiaren eta Administrazioa eta Zerbitzu Publikoak pribatizatzearen estrategiaz sakondu egiten da. Desantolakuntza soziala, gora doazen langabeziaren, lan prekaritatea zabaltzearen, industri enplegua suntsitzearen eta, berdintasun terminoetan, aber-tasun banakuntza den helburu teorikotik gero eta urrutiago dagoen fondo publikoaren gestioaren emaitza da.

c) Arrantza, nekazaritza, abelzantza edo basogintza bezalako sek-toreen eta industriaren suntsiketa. Industri sektorean 1990-1993 epean 50.000 lanpostu galdu dira: hauxe da sektore honen endakapen edo hondaketaren dudagabeko adierazlea. Euskal industriak, nazioarteko lehiakortasun gordina jasaten duten segmentuetan darrai espezializaturik, baina bertako gobernuek ez dute babespena eman, dibertsifikazioa egin, I+D politikak sostengatu edo lehiakortasuneko inbertsioa egiteko neurririk hartu. Euskal industriak, moneta-politikak ematen duen joko eskasari begira segitzen du, enpresak atonia eta desinbertsioatik aterako dituen atzerriko inbertsore baten eta esportazioen zain.

d) Finantza-politika, energi politika eta garraio-azpiegiturak eta sare telematikoak bezalako garapen ekonomikoko faktore estrategikoak kontrolpean mantentzeko gaitasunik ez dago.

e) Euskal sektore publikoaren makala: sektore publikoa ekimen pribatuaren subsidiario da politika industrialean, sostengu-programen jarraitzaile, helburuetan mugatua eta enpleguaren galera prozesu leunen finantzari, azken batean. Euskal sektore publikoa (instituzio autonomikoen ekinbide ekonomiko-politiko) desberdinkeria areago joan dadin laguntzen ari da, zerga-bilketa eta banakuntzaren bitartez, ilunkeria eta gizarte osoarentzat iraingarri diren mailetaraino iritsi den iruzur fiskala kontrolatzeari uko eginez behin eta berriro: elkarleen zerga aitortu behar duten enpresen %25ak eta merkataritza, garraio eta elika-industriako 37.000 enpresa txikik ez dute aitortpenik aurkezten.

Euskal Gune Ekonomikoa eratzeko ezinbestekoak diren aldakin estruktural hauen eraldaketak, euskal aukera politikoetatik Estatu espainolarekin ko-gestioko politika praktikan jartzea eragotzi egiten du. Eskuduntzen traspasuan izaniko eztabaidak eta, gonbaratzeko, garapen nazionala gauzatu ahal izateko oinarritzko edozein erreibindikazioren bazterketa ikustea tamalgarria da.

Politika ekonomiko, laboral eta sozialeko eskuduntzek ez dute epe-

rik. Gure lurrean diharduten enpresa publiko industrialak kontrolatzeko eskuduntzak; Gizarte Segurantzak eta Enplegu alorretako prestazioak gestionatu, bildu eta planifikatzeko eskuduntzak, Lanbide Heziketa Jarraia, Arautua eta Okupazionalaren alorrean geure kabuz jarduteko eskuduntzak, denak frustratuta. Esparru ekonomiko-sozialean gertatu den Estatutu eta Amejoramentuaren desnaturalizazio honek ez gaitu lehen esandako sakoneko gogoetatik apartatu behar, hau da: instituzio autonomikoen lan eta babes sozialari buruzko gaitan legeak egiteko gaitasunik ez dutela. Hau da euskal sindikalismoaren eskuhartze sozioekonomikoa antolatu ahal izateko oinarriko kontua.

Ondorioz, euskal gizartearen eguneroko arazoei erantzuna emateko gutxieneko gaitasunik izango lukeen berezko industri, enplegu- edota gizarte-politikarik ez dagoela azpimarratu behar dugu.

Era berean, esan dezakegu elkarren osagarri diren bi faktore erabakiorrek, Euskal Herri eta Estatu Espainola kinka larrian jarri dituzte. Gure ekonomia Mastricheko itunean tamalez eta eragozpenez sartu izanak, espekulaziozko ekonomia bultzatzeak eta produkziozko ekonomia bertan behera ustek egungo emaitza katastrofikoak ekarri dituzte. Ekonomiaren hazkuntza urriak enplegu prekarioa eta funtsezko aldakuntza eta hobekuntzak izateko esperantzarik ematen ez duten goeraldia besterik ez du sortu. Gure ekintza sindikalean ekimen berrien mailak hartuaz, enpleguari buruz bere gizarte eragina eta ahalegin erreibindikatioa areagotu behar du Sindikatuak.

3.3. TESTUINGURU SINDIKALA

3.3.1. Hego Euskal Herria

Orohar, euskal sindikalismoak langileriarengan eragina duten koordenada politiko eta ekonomikoetara (4.1. atala) egokitu gabe dirau euskal sindikalismoak. Lan-erreformak enpresarien boterea areagotu egin du, ekinbide sindikalak zituen zailtasunak areagotuta. Negoziazio Kolektiboak, enpresariaren jarreraren mesedetan ahulezia sindikala sakontzen den parametroetan geldirik darrai. Krisialdi ekonomikoaren eta langileriaren desantolamenduen eraginek ez dute bilatu, mugimendu sindikalaren aldetik, ez biderik ez erantzun egokirik. Horrela, belaunaldi berriak urrutiago daude sindikalismo-tik.

Azken urteotan sindikalismoak erabateko aldakuntzak jasan ditu, gure sindikatuaren ordezkariak gora egin duelako eta ELA eta LABen artean, ekinbide sindikaleko elementu estrategiko batzuek bat egiten dutelako. Bi gertakari hauei esker, sindikalismo abertzalea gauza izan da eta izango da ekimen sindikalean aitzindari agertu eta nazioa eraikitzeke proiektua gauzatzeko aukerak euskal gizartearen bultzatzeko.

Estatu espainolean CCOO eta UGT elkar hurbiltzearekin batera gertatu diren ELA eta LABen arteko harreman hauen ondorioz, euskal lurraldeetan Estatuaren sukurtsalismo sindikalaren aldeko jarrerak hartu ditu CCOO sindikatuak. Honek guztiak, baterako akordio edota ekinbideak hartzea eragozten du, sindikatuen arteko harremanak tenkatzen dituen bitartean.

UGTren apustua nabarmena izan da: espainolismorik eskuindarre-na eta Estatuko Gobernuaren eta patronalaren politika ekonomikoenganako morrontzazko jarreraren tartekoa, nazio-erakuntzaren aldeko ekinbide sindikaletik bere burua baztertuta.

Jarrera horietan eta galtzen ari diren ordezkariak kontutan izanik, espero dezakegu ELA eta LABen ekinbide sindikalaren atzetik CCOO eta UGT etorriko direla. Ekinbide sindikaleko osotasunezko gaietako akordioak geroz eta zailtasun handiagoekin lortzen ari dira eta erakunde horien dinamika sindikalak (ikus, bestela, 95eko negoziazio kolektiboa) euskal gunea desagertu nahi dute, gune espainola indartzeko helburuz.

Erakunde sindikal hauek ezezik beste batzuek (ESK-CUIS, CGT, eta besteak) Ezker Abertzalearen iritziz, Euskal Langileri Mugimenduak bizi duen egoera konplexu honetan geroz eta jokamolde testimonialagoa dute. Behin ere baino garrantzi handiagoa dauka gaurregun osotasunezko, antolatutako eta etengabeko erantzuna emateak, euskal langileriarengan neoliberalismoak eta zentralismo espainolak sartzen dituzten aldakin ideologiko eta sozioekonomikoei aurre egiteko.

Badira, bestetik, sindikalismoaren bidez politika laboral, ekonomiko eta sozialean funtsezko aldakuntzarik inola ere sortu nahi ez duten erakunde sindikalak, langile profesionalizatu edo funtzionario jendeak osatuak, ekinbide sindikala lan-esparrura mugatzen dutenak. Batzuetan, klase-sindikatuaren ahuleziaren ondorioz sortzen diren honelako sindikatuak, beraien ekintza sindikala lehen aipatu diren gaietara mugatzen den neurrian, azkenean, politika sindikal garbieran euskal langileriaren mugimendua are eta zailago bihurtzen dituzten elementu korporatiboak ohi dira.

Errealitate sindikalak dituen elementurik adierazgarrienak ikusirik, ekinbide sindikaleko helburuak garatzearen aldeko sindikatuarteko harreman-politika darama LABek. Euskal Nazioaren Eraikuntzaren testuinguruan, gizartea aldatzearen alde egin dugun apustuak, garatu ahal izango ditugun sindikatuarteko harremanak zehazten ditu. Esandako helburuak lortzeko lagungarri gerta daitezkeen neurrian estutuko dira sindikatuaren arteko harremanak.

Hegoaldeko enpresariei dagokienean, salbuespen bakanen batean izan ezik, euskal proiektu nazionala eratzearen alde gure Herriak daraman borrokatik aparte daudela esan behar dugu. Esparru ekonomiko eta sozio-laboral espainolean egokitu izanak, Lan-Harremanetarako Euskal Gunea eta Euskal Gune Sozioekonomikoaren eraketaren kontra daramatza enpresariak, zuzen edo zeharka.

Era berean, euskal enpresariak jasaten duen itsukeriari arreta berezia eskainiko diogu. Etekina epe laburrean lortzean eta lan-indarra kostutzat hartzean oinarritutako aukeraketa ekonomikoa da enpresari hauen jarreraren bereizgarria. Neurri txikiko estrategiari eusten diote, Estatu espainolarekiko lehentasunezko harremanak hobetsiz, euskal gizartean eta produkzioehunean gertatzen ari diren aldakuntza estrukturalak ikusi nahi izan gabe. Hitz batez, Hego Euskal Herriko etorkizun sozial, politiko eta ekonomikoarekin konpromezurik duen PATRONALIK EZ DAGO GAURREGUN.

► [Nuestra
apuesta por la
transformación social,
dentro del contexto de
Construcción Nacional,
determina los niveles de
relación intersindical
que podemos
desarrollar]

3.3.2. Ipar Euskal Herria

3.3.2.1. Gogoeta orokor batzuk

Estatu frantsesean Ipar Euskal Herriak ordezkatzeko duenak (Errepublikako 544.000 km²-etatik, 3.000; 59 milioi lagunetatik, 250.000) Herrialde honen egiturazio sozialean zuzeneko eragina dauka. Baina datu hauek ez dute ematen arazoaren egiazko neurriaren berri, alor ekonomiko eta juridikoko erreferentziak erantsi behar zaizkiolako horiei, ezinbestez.

Fantses klase zuzentzaileak eta Iparraldeko burges handi gehientsuen artean dagoen aliantza, sektore guztietan kanpo aldetik gordinki uztarpe-
turiko egitura ekonomikoaren sortzaile izan da. Morrontza hau areagotuta dago Estatuaren egituraketa zentralizatuaren ondorioz. Deszentralizazio-pun-
turik agertzen duten eskualdeak —Akitania eta Atlantiar Pirinioak— Iparraldez kanpo daude.

Gaurrarte gelditu ezineko prozesuan, Ipar Euskal Herriko biztanle-
riaren gehientsua bildu da itsas aldera. 1851 urtean kostaldeko biztanleria
guztirako populazioaren 1/4 zen bitartean, une honetan herena baino gehiago
bizi da itsasaldean. Biztanleriaren banakuntza irregular honekin batera, migra-
zio-jario irregularra dator.

Ipar Euskal Herriko biztanleria etengabe ugalduz etorri da, 1975etik
1990era arte jaiotza baino heriotza gehiago gertatu den arren. Korrante
migratzaileen eraginez gertatu da hau, izan ere, garai horretan 179.000 lagun
etorri diren bitartean, emigranteak 179.000 izan dira, gazteak gehientsuak: 20
urtetik beherako biztanleria guztirako kopuruaren %23ra murriztua dago. Datu
hauek gorabehera, joerari goazkiola, esan liteke azken bost urte honetan
zaharrek gizartean duten karga arintzen ari dela eta, bien bitartean, Herriaren
etorkizunaz interesa duten gazteen eragina gorantz doala, parekaturik.

Ipar Euskal Herrian industri enpresa krisiak jota dago (Dassault,
Turbomeca) edo irizpide antisindikalez dihardu (Sony), baina enpleguaren
gehientsua zerbitzu sektoreko enpresa txiki eta ertainean dago bilduta, neu-
rriz kanpoko hipermerkatuez josia. Hau guztiagatik langile gehientsuen
bereizgarriak dira enplegu prekarioa, soldata apala eta aitortu gabeko lana.

Enplegua prekario izateak ekinbide sindikala oztopatu egiten du,
berez. Sindikatu abertzale baten sorrera bi faktorek eragozten dute, funtsez:
Negoziazio Kolektiboaren egitura zeharo zentralizatua izatea eta ekinbide sin-
dikala aurrera eramateko unean sindikatua "ordezkagarriago" behar izatea.

Erabaki bat edo komenio bat aplikatzeko garaian, Frantziako juris-
prudenziaren esanetan, testu hori aplikatuko den markoaren arabera nabarit-
zen da sindikatu batek daukan ordezkartza. Modu honetan, beste enpreseta-
ko lantegi edo filial ez diren Iparraldeko enpresetan bakarrik aitortu leku eus-
kal sindikatu bati enpresa-komenioa negoziatzeko ahalmena. Honi beste zer-
bait erantsiko diogu: hauteskunde sindikaletan, sindikatu "ordezkagarriek"
soilik aurkez ditzakete hautagaiak lehen bueltan. Beraz, lan-harremanen eredu
horretan euskal sindikatu abertzale batek nekez har dezake tokirik.

2.000 urterako bidean
hoiuntura gakoak
EUSKAL HERRIA

47

▶ [Está
apareciendo en este
último lustro una
disminución del peso
social de los mayores,
junto a un correlativo
ascenso de la
influencia de los/as
jóvenes que se
interesan por el futuro
del País]

3.3.2.2. Sindikatuak Ipar Euskal Herrian

Iparaldeko mugimendu sindikala ezagutzera txangoa eginez, hurrengo lau sindikatu estatal frantsesak ikusiko ditugu:

a) CGT (Confédération Général du Travail) Ideologia marxistako sindikatu hau 1895ean sortu zen, historikoki Frantziako Alderdi Komunistaren ildo politikotik. "Euskal kulturaren berarizko problematikari" buruzko eztabaidan parte hartu arren, euskal erreibindikazioak eta errealtatea ezezagutzen ditu.

b) CFTC (Confédération Française des Travailleurs Chrétiens). 1919 urtean jaiotako erakunde honek Eliza Katolikoaren dotrinan dauka oinarria eta, euskal erreibindikazio kulturalen aurrean, aurrekoak baino sentiberatasun handiagoa agertzen du.

c) CGT-FO (Force Ouvrière). CGTtik gutxiengo bat apartatu zenean (1947) sortu zen sindikatu honek, ideologia antikomunistekoa eta ituna sinatzeko prest beti, euskal problematika nazionalaren aurrean inongo sentibilitaterik ez du erakusten.

d) CFDT (Confédération Française Démocratique du Travail). 1964an sortu zen, CFTCren Sindikatuaren ondoren, bertan militanteen %70ek erabaki baitzuten sindikatu haren izaera konfesionala ez onartzea. Euskal problematikarenganako sentiberatasunik handiena erakutsi duen sindikatua da eta bertan militante abertzale ugari dauka afiliatuak, hauek euskal errealtatera begiratzeari uko egiten dioten militanteekin batera bizi direla. Bereziki UGTren bitartez mugaz gaineko harremanak gauzatzearen aldekoa da, oso.

Inoiz edo behineko erlazio edo harremanez kanpo, aipatu berri ditugun lau sindikatu hauek Hegoaldeko sindikalismoarekin izan dituzten harremanen bereizgarria, euskal izaera nazionalari buruzko edozein aipamen baztertzea izan da.

Testuinguru honetan eta Europako mugalde batzuetan Erregioarteko Kontseilu Sindikal (EKS = CSI) izenekoan sorrera apoiatzen zuelarik, Europako Sindikatuen Konfederazioaren ekimenez (bertan daude sindikatu denak, CGT izan ezik) 1987 urtean muga franko-espainolaren markoan antzeko esperientzia bat egitea nahi izan zen, Euskal Herria zatikatuta.

Ekimenak lortutako arrakasta eskasa izan arren, sindikalisten arteko topaketen emaitza da "Mendebaldeko Pirinioak-Ardatz Atlantiarra" izenekoaren sorrera, bertan Akitaniako CFDT, CFTC eta FO eta Baskongatueta, Nafarroako eta Aragoako CCOO eta UGTk parte hartu zutelarik. ELAk CSIn parte hartzeko gonbitea jaso zuen arren, Euskal Herria banatuta daukan mugaz bi aldeetako sindikatu espainol eta frantsesen maniobra franko-espainol honetan ez du esku hartu nahi izan.

3.3.2.3. Abertzaleen agerpena ekinbide sindikalean

Militante abertzaleen agerpenak alor sindikalean, batetik bestera alde handiak agertzen ditu eta problematikoa da.

Azken urte hauetan Euskal Herriko Langileen Elkarteak (EHLE) izen

duen eskarmentuak zailtasun horren berri zehatza ematen digu. Problematika sozialarekin konpromezua hartutako EMA, EB, Patxa Oldartzen eta antzekoetako militante abertzaleak biltzen zituen elkarte hau 1990 urtean sortu zen, "Maiatzaren Lehena" kolektiboan oinarrituta. Sorreraz geroztik, Ipar Euskal Herriko langileen problematikari buruzko eztabaidarako gune izan da EHLE. Bost urtez eztabidak, hitzaldiak, ekintzak antolatu izan ditu, erreferente egoiena Korsikako Langileen Sindikatua hartuta, erakunde honek epe laburrean eragin handia lortua baitzuen hango gizartean. EHLEri, berriz, helburu hori gauzatzea ezinezkoa gertatu zaio eta, 1994 urtearen amaieran, bere burua desegitea erabaki zuen.

Nekazaritza eta abeltzantzan, berriz, mugimendu abertzalearen ekinbide sindikalak, alor askotan ereduakoa den dinamika jarri du praktikan. Euskal Laborarien Batasuna (ELB) sindikatuak bere ekinbideari urrezko koroa ipini dio, aurtengo urtarrileko hauteskundeetan egundoko arrakasta lortu duenean. 1989ko emaitzekin gonbaratuz, %6a igo dute, sektoreko ordezkartzaren %47,10 lortu eta lehen indar sindikal bihurtuta, Estatu frantsesean hegemonikoa den FNSEArekin parean.

Nekazaritza-abelzantza eta industri sektoreen arteko desmaila, ikusten den bezala, izugarria da. Iparraldeko langileen eskakizun nazional eta sozialei erantzuna emango liokeen industria eta zerbitzuetako erakunde sindikal abertzalea sortzeko ezintasunak, gure iritziz, Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak ekinbide sindikalean eman beharreko urratsei buruzko eztabaidari ekin beharko lioke.

3.4. EUSKAL LANGILERIA: ORAINALDIA ETA GEROALDIA

3.4.1. Alderdi orokorrak

Euskal langileriarengan eragina duten faktoreek, nazioarte mailan sistema kapitalistak izan dezakeen bilakaerari lotuta daude, berez. Goien esan den bezala, badira aldakuntzarako bi elementu nagusi: bilakaera teknologikoa eta nazioarte mailako aldakuntza politiko-ekonomikoak.

Kapital-lana aurkamenduaren erlazioetan eta ezaugarrietan, parametro garrantzizkoetan erabateko eragina dauka teknologiararen bilakaerak. Produktzio-gaitasuna handitzea, enpresen tamaina, lanekuaren koalifikazioaren igoera... langileriaren (eta, ondorioz, klase-aurkamenduaren) baitan sakoneko aldakuntzak sortzen ari dira. Sei-zazpigarren eta hamarkadetako (eta 80. urteetako aldi luze bateko) industrialdiko zuzeneko eskulana bestelakotu egiten ari da, enpresetako langilerian aldakuntza funtsezkoak sortaraziz.

Maila politiko-ekonomikoko nazioarteko egoeraren ondotik, aski azaldua dugun mundializazioa eta eraso ideologiko neoliberalak etorri zaizkigu, mundu zabaleko (eta, bereziki, Euskal Herriko) langileriarengan sekulako eraginak izaki.

Langile mugimenduko erakunde sindikaleen norabide politiko gal-

► [El Movimiento
Obrero está
contaminado por las
consecuencias del
contexto político-
económico y el
bombardeo ideológico
que los valedores del
mismo insuflan en la
sociedad]

duak, sendotasun defentsibo eta alternatiba ezak garbi nabaritzen diren kontestu honetan, langile mugimenduak gizartean mantentzen zituen jarrenen aurkako benetako eraso bultzatu da kapitalaren partetik. Nahiz eta eraso hau arrera eramateko erabiliko diren elementu asko ez ezagunak ez izan, beraien aurregabeko indartze eta garapenak, neurri handian, klaseen arteko harremanen bilakaera erabiliko dute.

Testuinguru politiko-ekonomikoak dituen ondorioek eta horren ele-dunek gizartearengan pizten dituzten bonbardaketa ideologikoak kutsatuta dago langile mugimendua. Mundualizazioaren (gizarte-desmailaketak, pobrezia, langabezia, e.a.) eta Nazioarteko Ordenu Berriaren (Golkoko Gerra, Balkanetakoa, Rwanda, eta.) eraginei erantzuteko, sistemak praktikan jarri behar duen langile mugimenduaren alienatze politiko-ideologiko horretako funtsezko lanabesak, komunikabideak eta hezkuntza sistema dira.

Korronte neoliberal honek, sistemaren injustziaren aurka langile-riak ematen duen erantzunari kaltegarri zaizkion baloreak jaurtitzen ditu. Lehiakortasuna eta bazterketa bultzatzen den bitartean, elkartasuna eskatzen da. Miserian edo segurantzirik ezean bizi diren milaka langileen zoritarra ekarri duten lehiakortasuna eta merkatua goretsi egiten dira. Natur baliabideak suntsitu eta ekologiar eraso egiten zaion bitartean, "modernotasuna", teknologiaren bilakaera eta antzekoak aldarrikatzen dira. Gazteriaren eta langileriaren erantzuna hausten duten norberekeria, lehiakortasun eta intsolidaritatez jardutera behartzeko, mito sozialak (exekutibokak, enpresariak, e.a.) sortzen dira. Gertakari historikoak eta balore aurrera-koiak manipulatu dira, utopiak kriminalizatzen dira, lanean dabilen gazteria indibidualismoan entzerratzeko eta, era berean, ezartzen diguten "demokrazia" politiko-ekonomikoa sinesgarria dela sinestarazteko. Honek guztiak, langileriaren klase-kontzientzia eta erantzuteko gaitasuna heldu eta areagotu egin du.

Testuinguru honetan, langileriaren osakera abiada bizian aldatuz etorri da. Zatiketa prozesua jasan du, erantzuteko gaitasuna murriztu diona: langabetuak geroz eta gehiago dira, prekaritate ugalduz doa, lan-merkatuko "apartheid" jasaten du oraindik emakumeak, jubiliatuaren eskubideak urritu egiten dira, gazteek "morrontza moderno" gisako lan-baldintzetan jardutera daude behartuak, e.a. Zatiketa hauen ondorioz, kasurik hoberenean, erantzunen estankotasuna sortarazi da, intsolidaritateari ateak zabalduz eta injustizia sortzen duen gorputz politiko-ekonomikoaren kontrako osotasunezko ekinbidea oztopatuz.

Honekin batera, sistemaren ekinbide ekonomiko eta politiko-araue-malearen indarrez, produkzio-bitarteak dituzten langileen proletarizazioa azkartu dela nabarmendu behar dugu: baserritarrek, autonomoek, dendariak, e.a., sistema kapitalistaren oraingo egoeran langileriaren segmentu bat osatzen dute.

Teknologiaren bilakaera eta desarroilismo kapitalistak, naturaren kontrako erasoan eta langileen segurantiaren lepotik, orainarte berarizko kabinetek bakarrik zeramatzaten sailetan, ekinbide sindikalari alorrak zabaltzen dizkio (borroka ekologikoa, energiaren aurreko planteamenduak, laneko segurtasuna...). Hau da, fenomeno berri hauentzako erantzunik ez du langileariak.

Sindikalismoa ez da gai izan kapitalismoak ezartzen dizkigun koodenada hauei erantzunik emateko. Noragabe honetan, erreferente politiko-

ekonomikoen krisiak eta bide alternatiboen ahuleziak izan dute eragina. Nazioarteko sozialdemokraziaren betekizuna funtsezkoa izan da sindikalismoaren ahulezia eta susperraldi honetan. Herrialde gehienetan, proiektu sasiaurrerakoiaren alde jardunez, langileriaren eta sindikalismoaren erantzuna indargabetu du sozialdemokraziak, ideologikoki "desarmatuak" utzi arte, korrante neoliberalak maila guztietan kokatu diren bitartean.

Sindikalismoaren ahulezia edo noraezarekin batera, mundializazio eta neoliberalismoaren eragin politiko, ekonomiko eta ideologikoen bilakera azkarrak, belaunaldi berriek sindikalismoan ez sinestea ekarri dute. Gazteria eta sistemako sektorerik zigortuenak sindikalismotik urrundu egin dira, honek ez baitu egungo fase historikoari egokitutako estrategiarik eskaintzen. Behin ere ez dira izan orain bezainbeste baldintza potentzial langileriaren erantzuna entzunazteko (langabetuak, desmailak, diskriminazioak, prekaritatea, e.a.) eta, era berean, sekula ez du erakutsi sindikalismoak orain bezain erantzun-ahalmen eta eragin sozio-politiko urria, langileriari dagozkion sailetan.

3.4.2. Hego Euskal Herria

Maila orokorrean aurkeztutako gogoeta guztiak, Euskal Langileriaren bilakaerari dagokionean aplikatu daitezke. Industriaren birmoldaketak, kapital-lana harremanen aldakuntzak eta honen ondorioek, eraso ideologiko neoliberalak, izan dute berebiziko eragina euskal langilerian. Nazio-borrokak erabat bideratutako erantzun-maila desberdinak eman dituen arren, esandako gogoeta orokor hauek biziki eraginda dago euskal langileria.

Estatuaren menpekotasunaren ondorio izaki, krisialdi kapitalistak egitura ekonomiko bulneragarriaren baitan izan duen eraginagatik eta industriaren suntsiketak gure Herriaren egitura ekonomikoa biziki aldatu du eta, honen ondorioz, euskal langileriaren osakerak eta ezaugarriek ere nozitu dute prozesua.

Produktzio-sektoreen bilakaerak garbi asko agertzen du goien esandakoa:

- Industri sektorea
- Lehen sektorea
- Zerbitzu sektorea

Euskal langileriaren zatiketak, ekinbide sindikal eta sozio-politikoaren errealitate honi egokituago eramatera behartzen du sindikalismoa. Errealitatea honela azaltzen da gaurregun Hego Euskal Herrian:

- Langile finoak
- Behin-behineko langileak
- Langabetuak (gazteak, emakumeak...)
- Jubilatuak
- Autonomoak
- Ekonomia soziala

Euskal sindikalismoak —LABek izan ezik— ekinbide sindikal ideologi-gabetua eraman du, garatzen ari ziren aldakin politiko-ekonomikoetatik kanpo. Honela bada, trantsizio politikoaren hasieraz geroztik CCOO-UGT eta ELAk eraman duten ekinbide sindikala kapitalaren joeren mesedetakoak izan dira, langileriaren erantzuteko ahalmenean atzerapen ideologiko ikara-

▶ [La debilidad y/o desorientación del sindicalismo unido a la velocidad de evolución de los efectos políticos economicos e ideologicos de la mundialización y el neoliberalismo han provocado una falta de credibilidad del hecho sindical en las nuevas generaciones]

garria sortarazita.

Lehenago esandako joeren ondorioz zatikatuta zegoen langileri errealitate hori, antolakuntza eta eskuhartze mailan, integratzeko gauza ez da izan sindikalismoa. Langabetuen, gazteen eta abarren erreibindikazioak, bazterketa sozial eta prekarietatearen kontrako borrokak ez dute salakuntzazko diskurtsotik aurrerako ekimenik erakutsi eta, horrela, sindikalismoaren funtzionaltasun eta sinesgarritasuna berpiztuko lukeen ekinbide sindikaleko frontierik ez da antolatu.

Euskal Langileen Mugimenduaren eskuhartzeari emandako erantzun sozio-politikotik, horrelako korrante eta aldakinentzat eustorma izan da LAB, nolabait, egoera aproposagoan geundelako gu geure eskuhartze teoriko-praktikoa Hego Euskal Herriko testuinguru politiko eta ekonomikora eta, era berean, langileriak bizi duen egoerara egokitzeko.

Produktzio sektorean LABek izan duen garapena ez da langileriaren beste segmentuetan bultzatu beharko genukeen ekinbide sindikalarekin bat etorri. Hau hasi ginen baloratzen aurreko Kongresuan baina oraingo honetan, maila guztietako zehaztapen teoriko-praktikoa izan behar du.

Euskal langileri sektoreen erantzun eta erreibindikazio-mailak, osotasunean txertaturik eta izaera eraldatzailez, bideratzeko dugun gaitasunaren araberakoa izango da gure Sindikatuaren etorkizuna. Helburu honekin, ekinbide sindikaleko fronte guztien erreibindikaziorako lanabesak, borroka eta mobilizazio-metodoak berpiztea erabakiorra izango da. Ordezkaritzak gora egin duen arren, baliteke egungo korronteak LAB bere ekinbide sindikalean antzutzea. Erronka, beraz, gain-gainean daukagu.

EBAZPENAK

HEGO EUSKAL HERRIKO TESTUINGURU POLITIKOA

LEHEN EBAZPENA.- Euskal gizartearen erreibindikazio politiko, ekonomiko eta sozialei erantzuna emateko lanabes diren aldetik, Estatutuak eta Amejorramenduak porrot egin dute. Era berean, nazionalismo erregionalistaren estrategia-oren ondorioz, estatutualdi politiko hau ez da gai izan euskal herritar guztientzat OINARRIZKO LURZORU DEMOKRATIKOA jartzeko. Eskubide demokratikoak ukatuak daude oraindik eta Gobernu Zentralearen aginduetarako gestioa, gure Herriaren antolakuntza politiko, ekonomiko eta soziala eta demokraziazko jarduera eragozten duten oztopo instituzionalak galerazita dago. Hau da, Euskal Herriaren Subirautzarik ez dago eta Estatu espainolaren jokaera agintzaile eta menderatzaileak baldintzatuta dago hemengo oinarritzko arau demokratikoak.

Hego Euskal Herria eta Estatu espainolaren arteko beste AKORDIO POLITIKO bat eratu beharra dago. Euskal herritarren erabakia galarazita duten hipotekak suntsitzean oinarria izango duen AKORDIO horrek, dinamikoki eta euskal gizarteak adierazitako borondatearen arabera, bestelako marko juridiko berria antolatuko du. Hau da, sorrera prozesua baino gehiago, Euskal Herriaren subirautza eta eskubide demokratikoak aitortuta, herriaren iritziaren arabera, independentzi aukera egiazko ahalmen politikoaz jantziko duen Estatuarekiko harremanaldia dinamikoki sor dadin nahi dugu.

BIGARREN EBAZPENA.- Ezker Abertzaleko osakide den heinean, Euskal Nazioa Eraikitzearen aldeko konpromezua berrindartzen du LABek, Euskal Herria politikoki, ekonomikoki eta sozialki gara dadin baldintzak sortzen lagunduko duelarik. XXI. MENDEAREN ATARIAN ETA NAZIOARTE MAILAN, EUSKAL HERRIA NAZIO DEMOKRATIKOTZAT kokatzen lagunduko diguten espektatiba sozialak eta ekimenak bultzatu behar ditu LABek fronte guztietan (politiko-institu-

zionalen, ekonomikoan, sozio-laboralean, euskara edota intsumisio alorrean, e.a.).

Justiziaz eta elkertasunez, Euskal Nazioaren Eraikuntzaren eragile nagusia langileria eta indar sozialek izan behar dute eta, honek daraman gutzia bereganatu behar du gure Sindikatuak, teoria eta koherentziazko praktikan.

HEGO EUSKAL HERRIKO TESTUINGURU SINDIKALA

LEHEN EBAZPENA.- LABen lehentasunezko helburua ELArekin dauzkan harreman sindikalak sakontzea izango da, bi erakundeen artean orainarte hartutako akordioen ezaugarri izan diren gogoeta eta ekinbide sindikaleko koordinadek bere horretan irauten duten neurrian. Lan-Harremanetarako Euskal Gunea eta Euskal Gune Sozioekonomikoaren garpena, alde ekonomiko eta sozialetik Nazioaren Eraikuntza edukinez jazteari dagokionean, funtsezko erronka dugu euskal langile gutziori helburu positiboa ikusten laguntzen gaituelako.

BIGARREN EBAZPENA.- Ipar Euskal Herrian sindikatua antolatzeko beharra dagoela onartzen du LABek. Helburu honekin, eztabaida eragiteari funtsezkoa deritzogu, bertako langileriak estrategia egokia bidera dezan, Euskal Herriko lurralde honetan maila politiko eta sindikalean dagoen errealitatea eta testuinguru berezia kontutan izanik.

HIRUGARREN EBAZPENA.- Zuzendaritza Nazional berriak, Ezker Sindikaleko beste sektore batzuegana hurbildu beharko du, Ezker Abertzalearen esparruko ekinbide sindikal eta soziopolitikoko lanabes bakarra den heinean, LAB indartu eta berarekin bat egin dezaten. Eraldatzen jarraitu behar dugun errealitatean esku hartu ahal izateko, indarrak eta eraginkortasuna metatzeari begira, prozesu horri egundoko garrantzia ematen diogu.

EUSKAL LANGILERIA

LEHEN EBAZPENA.- LABek ekinbide sindikala egokitu behar du, langileriaren osakera heterogenoari eta kapital-lan enfrontamenduan eragina duten aldakin berriei erantzuna eman ahal izateko. Aurreko Kongresuan emaniko lehen urratsei (Gazteak, Langabetuak, Emakumeak, e.a.) jarraiera eman eta LABen ekinbide sindikal eta soziopolitikoan integratu behar dira. Horretarako, lan-areak berriak eratu eta egitura konfederatuetan txertatu behar dira. Sindikatuak daukan izaera eraldatzaileak, sozialki zigortuenak izan diren sektoreengan ekinbide sindikala lehentasunez garatzera eraman behar gaitu, erakundearen eskuhartzean. Sistemak sartzatzen duen errealitate sozialetik kanpo, enplegua duten eta sektore egonkorretan oinarritutako ekinbide sindikalak, LABen ezaugarri eta helburuekin talka egingo luke, aurrez aurre.

BIGARREN EBAZPENA.- LABen ezaugarri soziopolitikoak dira geroz eta indar handiago duten nortasun-adierazleak, sindikalismoaren baitan. Sistema kapitalistaren bilakaerak eta honengan eragina duten aldakin berriek, ekinbide sindikalean barrena norabide horretan joatea ezinbesteko bihurtzen dute. Kontrako jokaerak, antzutu eta, beraz, eragile sozial den aldetik, erakundea desagertzea eskatuko luke.

LABek bere ezaugarri soziopolitikoak indartu behar ditu ekinbide sindikal osoan, erreibindikazio politiko hutsetara (autodeterminazioa, presoak, intsumisioa, e.a.) ez murriztearren. Eskuhartze sozio-politikoak eredu politiko-ekonomiko bati eman behar dio erantzuna eta, era berean, Euskal Nazioaren Eraikuntzara zuzendu behar da.

Ebazarpena

4 . B i l t z a r r e a

NAZIOA
ERAIKITZEKO
PROIEKTUAREN
BARNEAN GIZRTEA
ALDATZEA

**Eraikuntza nazionaleruntz
LABen eqinkizunak**

1. EUSKAL SINDIKALISMOA ETA ASKATASUN DEMOKRATIKOAK

- 1.1. Joerak eta hausnarketa egiteko giltzarriak
- 1.2. LABen ekinbidearen zutabeak

2. LAN-HARREMANETAKO ETA BABESPEN SOZIALEKO EUSKAL GUNEA. EUSKAL GUNE SOZIO-EKONOMIKOA. EUSKAL NAZIOAREN ERAIKUNTZAREN ZUTABE SOZIO-EKONOMIKOAK

- 2.1. Lan-Harremanetako eta Babespen Sozialeko Euskal Gunea
 - 2.1.1. Lan-legeria
 - 2.1.2. Enplegu eta babes sozialeko politika
 - a) Langabezia
 - b) Lanbide Heziketa Jarraia
 - c) Gizarte Segurantzza
 - 2.1.3. Negoziazio Kolektiboa
 - a) Europar Gune Soziala eta LABen estrategia sindikala
 - b) Egitura eta Negoziazio Kolektiborako esparruak
 - c) Negoziazio Kolektiboak urrats honetarako dituen helburuak.
 - 2.1.4. Organo instituzionaletan parte hartzea, ekinbide sindikalaren bitartez
- 2.2. Euskal gune sozio-ekonomikoa (EESE)
 - 2.2.1. EGSEaren oinarriak
 - 2.2.2. EGSEko garapen-eredua
 - 2.2.3. Enplegua, elkartasunezko etorkizun egonkorra
 - 2.2.4. Lurralde-antolamendua
 - 2.2.5. Gizarte-antolamendua

3. EKINBIDE SINDIKALA GIZARTEAREN ALDAKUNTZA LORTZEKO

- 3.1. Sindikalismoa, gizartearen aldakuntzaren sujetu
- 3.2. Sindikalismoak esku hartu eta antolatzeko gune berriak
- 3.3. Ekinbide sindikala enpresetan
- 3.4. Euskal Langileen Mugimendua eta bere erreibindikazioak, Euskal Nazioa Eraikitze Proiektuaren banean gizarte aldatzeko bidean
 - 3.4.1. Ekinbide sindikala eta berreuskalduntzea
 - 3.4.2. Intsumisioa eta sindikalismoa
 - 3.4.3. Euskal Eskola Nazionala
 - 3.4.5. Osasun Sistema Publikoa

AD

EUSKAL

SINDIKALISMOA ETA

ASKATASUN

DEMOKRATIKOAK

6

A D

Ebazpena

1.1. JOERAK ETA HAUSNARKETA EGITEKO GILTZARRIAK

Bere etorkizun politiko eta ekonomikoaren jabe izatea euskal herritarrei eragozten dien oinarri demokratikorik ez izatea langileria osoarengan eta biztanleriak jasaten dituen bizi-baldintzetan dauka eragina, estrukturalaki. Bizirik dagoen gatazka nazional eta sozialaren ondorioak jasaten dituen gizarte-klasa delako, euskal langileria da Euskal Herriaren normalizazioa eta bakea lortzea gehien nahi duena.

Askatasun demokratikoak eta bakea lortzeko prozesuan, bere buruaren protagonismoa erreibindikatu izan du Langile Mugimenduak historikoki.

Sindikalismo espainola eta honek Hego Euskal Herrian dituen sukurtsalak saiatu dira Langile Mugimendu horren protagonismoa suntsitzen, Herrien eta langileen oinarrizko eskubide demokratikoak indargabetuko lituzkeen eredu politiko eta ekonomiko ezartzeko asmoz. Egiazko arau demokratikoak sendotzeko sindikalismoak (honen protagonismoak, zehazkiago) praktikan jarritako ekinbide sozio-politikoak itotzeko saiakera honetan, CCOO eta UGTk urtetan zehar ELA lagungarri izan dute.

Euskadi eta Estatu espainolaren arteko harremanen gaurko esparruan ELAk urte luzetan euskal ekinbide sindikal abertzalea sortu nahi izan du, gure Herriari ukatzen zaizkion askatasun demokratikoen konkistan sindikalismoak izaniko protagonismoa itzalduko lukeen apolitikotasuna bultzatuz.

ELAk eramaniko ekinbide sindikaleko eredu honi egundoko zuzenketa egin zaio, euskal langileriak dauzkan arazo politiko, ekonomiko eta sozialetan sindikalismo abertzaleari norabide berriak eskainiz.

CCOO nazionalismo espainol intolerante eta zapaltzailearen tesiak onartuz etorri da. Sindikatu honek, zenbait aurriritzi soziopolitiko (autodeterminazioa) mantentzen duen arren, gure Herriari zor zaizkion eskubide eta askatasun demokratikoekin loturiko erreibindikazio asko bertan behera utzi izan ditu gizarte eta langile mugimenduekin jardutean. Honen lekuko, ELA-LAB Dokumentuari egindako kritikak, "autodeterminazio eskubideak langileria zatikatu egiten duela" argudiatuz.

CCOO eta UGT gaurregun eredu monarkikoaren alde daude, zor zaigun autodeterminatzeko eskubidea ukatzen digun Konstituzioaren alde, "aberri" espainolaren berme bihurtutako armadaren alde, gaitzak jotako (GAL, gerra zikina, 23-F, e.a.) sistema politikoaren alde, eskubide nazional eta sozialen kontrako "trantsizio" antidemokratikoaren alde...

Edukin eta konpromezu zehatzetan oinarrituta, azken urte hauetan LABek eta ELAk hasitako ekinbide sindikalerako batasuna eskarmentu positiboa izan da, sindikalismo abertzalearen ekinbidearen susperraldi estrategikoaren mesedetan. Honek daukan gehiengotasunak (%52) eta Euskal Nazioaren Eraikuntzan langileriak bereganatu eta gizarteratu behar duen indarrak, bi sindikatuek batera zabalduko bidea egundoko garrantziaz jantzi dute.

ELA-LAB Dokumentua hausnarketa egin eta ekinbide sozio-politikoan jarduteko oinarria da, Euskal Herriari zor zaizkion eskubide demokratikoak

berreskuratzeko bidean, sindikalismo abertzaleak eta langileriak hartu beharko lukeen protagonismoa indartzeko.

Euskal Herriaren askatasun demokratikoak lortzeko borroka, gure etorkizunari begira osagai egitura daukan arren, gizartea aldatzeko helburu eta dinamiketan oinarritu behar da. Ekinbide sozio-politiko eta sozio-ekonomikoa behar bezala tartekatu eta elkartzetik etorriko zaio sinesgarritasuna gure sindikalismoari.

1.2. LABEN EKINBIDEAREN ZUTABEAK

Sindikalismoari berez dagokion bake eta justizia sozialaren aldeko borroka izango da, maila guztietan, Sindikatuaren eskuhartzea bereiziko duen zutabea. Euskal Herriaren bakea eta demokrazia lortzeko borrokan, langileria-aren protagonismoa berpiztuko duen ekintza-plana xedatuko du LABek.

Ajuria Enea eta Iruñeako Itunak Estatu espainolaren lantresna hutsak izan dira gatazkak bere horretan iraun dezan. Izan ere, gaurregun, itun horiek beren aitzindarien itxieria eta geldikeriaren adierazle zehatz bihurtu dira. Bi itunak izan dira (eta hala dira oraindik) disidentzia abertzalearen kontrako gerra-politikarako lanabesak. Itunak mantentzeak edo itxuraz aldatzeak, sorrerazko estrategian bertan protagonismoa berreskuratzeko bakarrik balioko luke.

Euskal herritarrak bakea eta demokrazia lortzeko duen egarria sistemak eta "bakezaleek" manipulatu dute, Ezker Abertzalearen erreibindikazioak politikoki eta sozialki hausteko helburu bakarrarekin. Erresistentzia abertzaleak mugimendu horietan "nortasun krisiak" sortu ditu: atomizazioa, jarreretan nahasketa eta, gatazkaren soluzioari dagokionez, protagonismoa irabazteko borroka izan dira horren ondorioak. Erakunde horietako edozeinen ekimenei batekin ados egotetik haratago, gatazka politikoaren funtsei eta soluzio-bideei dagokienean, LABek bere iritzi- eta jardute-autonomiari eutsiko dio.

Normalkuntza politikoa, Bakea lortzeko derrigorrezko giltzarria denez, gure eskubideen onarpenaren ondorioz etorriko da Euskal Herrira. Gobernu espainolak euskal errealitatea eta gure Herriak berreskuratu beharreko subira-tza aitortuko dion jardunbide demokratikoa onartu beharko du. Bi hauek osatuko dute Hego Euskal Herria normalizatze eta demokratizatze akordioaren oinarria.

ELA-LAB Dokumentuaren edukina, Sindikatu honen jarrera eta ekinbiderako patroitzat agertzen da. LABeko militante eta afiliatu guztiak onartu behar dute dokumentu hori langileriarengan eta gizarte osoarengan sozializatu, zabaldu behar dela. Hortaz, Euskal Herriak bere eskubide demokratikoen alde daraman borrokaren banean, gizartearen aldakuntza lortzeko konpromezua bereganatua duela berriro aldarrikatzen du LABek.

Euskal gizarteak jasaten dituen arazo politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaleri bestelako irtenbidea ematearren, Estatu espainolarekin dugun gatazka politikoaren soluzioa lor dadin presio soziala indartzeko aurrerapausuak eman behar ditugu abertzaleok eta demokratok, orohar.

Nazioa eraihi eta
gizartea aldatu

ASKATASUN DEMOKRATIKOAK

9

EBAZPENAK

LEHEN EBAZPENA. Askatasun demokratikoen aldeko borrokan euskal sindikalismoaren protagonismo aktiboa errebindikatzen du LABek; horretarako, Euskal Herria baketzeko eta demokratizatzeko borrokan dabilzan langileen zuzeneko jarduera berpizteko ekimenak jaurtiko ditu. Honela, ELA-LAB Dokumentua euskal eskenatokiko erreferente garrantzitsua ezezik, sindikalismoak asumitu behar duen protagonismoa suspertzeko lanabesa ere bada.

BIGARREN EBAZPENA. Ajuria Enea eta Iruñeako Itunen jokamoldeari jarraikiz, erakunde politiko, sozial eta sindikal batzuen aurka eratu eta aplikatzen diren politikak —diskriminazioa, bazterkuntza, intoxikazioa, e.a.— desagertzea ezinbestekoa da LABen iritziz, harreman politiko-sozialak eratzeko bidean, bestelako oinarriak sor ditzagun.

Zs

LAN-HARREMANETAKO ETA
BABESPEN SOZIALEKO
EUSKAL ESPARRUA • EUSKAL GUNE
SOZIO-EKONOMIKOA •

EUSKAL NAZIOAREN
ERAIKUNTZAREN

**ZUTABE SOZIO-
EKONOMIKOAK**

12

Z **S**

Ebazpena

2.1. LAN-HARREMANETAKO EUSKAL ESPARRUA (LHEG)

LHEG honen elementu bereizgarriak aztertuak izan dira LABek urte hauetan zehar egin dituen aportazio askotan: hauek, euskal langileria osoari eta euskal herritar guztiei zuzendu izan zaizkie.

Hitz batez, hor dago LHEG bat sortu beharra, geure politika laboral eta soziala praktikan jarri ahal izan dezagun. Euskal Nazioa Eraikitzeko Proiektuarekin konpromezua hartua du LABek eta, ikuspuntu honetatik, erreibindikazio hau demokratikoa da eta, gainera, justizia sozialean oinarritutako euskal nazio independienterantz urratsak eman ahal izateko, erabat beharrezkoa da erreibindikazio honi eustea.

LHEG exigitzeak izaera politikoa du, dudarik gabe, Ezker Abertzalearen eta euskal nazioaren subirautea berreskuratzearen alde gauden guztion koordinada politiko, taktiko eta estrategikoetan txertatuta baitago. Izaera sozio-politikoko sindikatu garen aldetik, ikuspegi aurrerakoi eta aldatzailetik, Euskal Herriari zor zaizkion eskubide nazionalen aldeko borroka indartu eta osatu egiten duelako gure praktika sindikalak. Euskal gizartearen sektorerik zigor-tuenak eta langileria asebeteko duen alderdi ekonomiko eta sozio-laborala baztertuta ezin uler daiteke nazio eraikuntzaren prozesu hau. LHEG ez da, beraz, kontzeptu abstraktua, langileriaren premia, kezka eta helburuekin zuzenki lotutako xedea baizik.

Euskal naziotasunaren kontra borrokatzen dutenen jarrera politiko eta sindikaletatik askotxotan desitxuratzen da LHEGen zentzua. Lan-harremanetarako gune estatal bakarra sendotzeko helburuz, ustez elkartasunezkoak diren argudioak aitzakiazat ipintzen dituzte, elkarte autonomiko bakoitzak inbertsioari abantaila handiagoak eskaini ahal izatearren *dumping* soziala eratzeko arriskuaz ohartaraziz. Paradoxa handia da: kontra-erreforma laborala onartu (edo bultzatu) dutenek, hau da, Euskal Herriko industriaren suntsiketaren kontra deus ere egin ez dutenek, oraingoan, LHEG lortzeak langileentzat izango lituzkeen ondorio negatiboak iragartzen dizkigute. Nolanahi ere, horren kontra agertzeko arrazoiak honela azaltzen dituzte: barne-merkatuan gauden neurrian, merkatu-batasunak lan-harremanen sistemaren batasuna agintzen du, "autonomia batzuetan nabarduraren bat onartuta". Hitz batez: merkatuaren eta espainiar chauvinismo zaharkituaren batasunaren defentsa da dena.

Bistan denez, LHEG ez da euskal langileriaren arazo guztiak sendatuko dituen botika magikoa. Gogoeta abstrakto bat eginez, lan-harremanen esparruan gune sozio-ekonomiko aurrerakoi bat sortzeko unean, euskal langilearentzat lanabesik egokiena den ala ez den, auzitan ipin daiteke.

Hariari helduz, nabarmendu behar dugu LABek ez duela LHEG erreibindikatzen kapitalismoaren aldeko gestioa egiteko edota lan-eskubideak, soldatak edo babespen soziala murrizteko, zeharo kontrakoa lortzeko baizik: erreibindikazio honen lorpena proiektu aldatzailearekin batera etorriko da. Proiektu honek, joera neoliberalak eta desarautzaileak zeharo kuestionatzen ditu eta, bestetik, euskal langileriaren eta gizarte osoaren sektorerik dinami-koenek esku hartzen duten eraikuntza nazionaleko prozesuaren barnean dator. Izan ere, ekinbide sindikalaren alderdietako bat aipatzearen, eskar-

mentuak erakusten digun bezala, Euskadin egin izan den negoziazio kolektiboa euskal langileriaren interesen aldekoagoa da estatu-maila edo bidekoa baino.

Gure arazoen jorraketa europar esparrura igortzearen bitartez, LHEGen eztabaidaren egiazko izaerari ihes egiteko tentazioa ere somatzen da. Europaren eraikuntzari gure kritikarik zorrotzena egiteaz gain, egiazko Europaren batasun prozesuan hainbat sistema sozial harmonizatzen saiatzea agian mesedegarria izango litzaigukeela azpimarratu behar dugu: orduan, logikoa litzateke herrialde bakoitzak bere subirautzaren zati bat utziko balu, helburu orokorra lortzeko. Gurean, berriz, bi estatutan zatikatutako (eta, administratiboki, bi autonomi elkartetan eta hainbat departamentutan bakan-duriko) Euskadi honetan, horrelako edozein proiektu egin nahi izatekotan, ukatu egiten zaigun subirautza hori berreskuratu beharra dago, lehendabizi. Gero, nork bere irizpideen arabra negoziatutako integrazioa garatu ahal izateko, beharrezkoak diren eskuduntza politikoak aitortu behar zaizkigu.

Logikoa da, beraz, Gobernuak, Estatu aparatua eta eskuindar politikoa LHEG horren kontra agertzea: Euskal Nazioaren Subirautzaren kontrako printzipio politiko eta ideologikoen arabera egiten dute. Baina gehiengoa daukan sindikalismo estatalak, ordea, diskurtso defentsiboa egitera behartuta agertzen da, gezurrezko argudioen gaintik eraikia: LHEG hori, Europar nagusi diren uniformizazio sozial eta ekonomikoaren aurka doa eta "historiako haizeez" kontrako erreibindikazio atzerakoa dela. Planteamendu honek ihes egiten dio egiazko sakoneko eztabaidari, hau da, euskal nazioak bere subirautza izateko bidezko eskubidea daukan ala ez. Estatalisten asmo-gogo honen kontrako jarrera erakusten da honela, gure proiektuaren ustez inbiabilitate eta desegokitasuna argudiatu eta kontzeptu-maila desberdinak nahasiz.

Gure nazio-subirautzari —eta, beraz, LHEGri— dagokion bidezketasun eta justiziazko sustratua gauza bat da eta marko edo esparru horren bideragarritasuna, beste bat. Azken hau, asmo horren alde lanean gabiltzanon eta aurka dihardutenen borondatearen (eta ondoriozko indar-erlazioaren) araberakoa izango da. Zorionez, Euskadin ezarpen handia daukan sindikalismoak, era honetako mugimendu abertzalea indartuz joango dela adierazten digu: honentzat, LHEG lortzea kezka eta helburuen mamian dago, izan ere, filosofia horrekin bat gatozelako, hau da, nazioarteko langileriarekin harremanak izan ezezik elkarlaguntzan jardutea ere eta, era berean, europar esparrua bertako Herriek sor dezaten eta harreman ekonomiko eta sozialez aberas daitezen borondatea dugu. Gune honen ezaugarrien berri txosten honetako beste ataletan eman dugu.

LHEGek funtsezko hiru oinarri ditu: lan-legeriaz eta babespen sozialaz jarduteko euskal botere publikoek erabateko ahalmena edukitzea, alor ekonomiko-laboralean eragina duten organismo eta instituzioak transferitzea eta euskal esparruan negoziazio kolektiboa garatzea.

2.1.1. Lan-legeria

Estatu espainoleko lan-legeriak aurrerakinik gabeko egundoko inboluzioa jasan zuen, besteak beste, PNV eta UPNren sostenguari esker, Gobernu Zentralak eragin eta martxan jarri zuen lan-erreformaren ondorioz.

Konbergentzi Programan iragarri ziren guztietatik praktikan jarri den bakarra izaki, langileriaren eskubide indibidual eta kolektiboen lapurreta bihurt-

zen ari da lan-erreforma. 1994ko Langilearen Estatutuak biltzen duen funtsezko ideia da enpresariaren boterea indartzea, lan-harremanetako hiru fase hauetan: lan-prekarietatea xedatzen duen araudia finkatuz, behin-behineko eta sasi-trebatuntzazko kontratuen bitartez; lanaren antolamenduan patronalari eskuduntza itzelak emanez eta, azkenik, erabat errazten duen kanporaketa-erregimena ezarritik, kontratuen iraungipena merketuta. Horrekin batera, behin-behineko lan-enpresen legeztapenari esker, langileen arteko desberdinkeria eta gehiegizko esplotazioa zabaldu eta indartu egin daitezke.

Lan-harremanen erabateko desarauketa prozesu honek lan-baldintzak hondatu, patronalaren aginkeria eta arbitrarrietatea erraztu eta langileen defentsazko ekinbide sindikalari oztopoak ipintzen dizkio.

"Lan Merkatuaren Malgutasun" bilakaera es da neutroa jeneroari dagokionez, behin-behinekotasunaz eta langabezia gain 1.994. urtean E.A.E.n emakumei egindako kontratuen %26a aldi-partzialerako kontratoak zirela ikus daiteke. Kontrato mota honek soldata gutxiago izatea eta babes soziala murriztago izatea suposatzen du. Honela emakumeen pobrezia handitzen da, ez, enplegu-eza dela eta bakarrik, baxik eta gutxienezko bizi baldintzak ziurtatzen ez duen enplegu baten ondorioz.

Sistemaren jarrera ideologiko neoliberaletatik, behin eta berriro aldarrikatzen ari dira ekonomiaren mundializazio prozesuak alderdi guztiei eskatzen dizkiela sakrifizio eta ahalegin handiak egitea. Kontuak kontu, langileei ezarritako sakrifizioaren ordeztasunak ez du kontraprestaziorik eskaini. Jokaera hau, bestela ere, iraunkorra da, kontzertazio sozial izenekoak frogatu duen bezala.

Hitz, batez, erreforma honen eskutik, lan-harremanen aro berri batean kokatzen gara: lan-erreformaren aurretik eta geroagoko garaiez hitzegin ahal izango dugu.

Bertan bilduta dauden eragin luzeko aldakuntzak neutralizatzeko ezinbestekoa izango da osotasuneko ekinbide sindikala praktikan jartzea, sindikatua lantegi guztietan sartzea eta estrategia oldarkor eta erasotzailea martxan jartzea, bertan mobilizazio sozialak berebiziko eginkizuna betezen badu.

Estrategia sindikal hori ezartzen (behartzen) duten oinarrizko baldintzak dira Euskadik orainaldi honetan (eta, seguru aski, epe laburrera) eskainzen digun panorama ekonomiko-soziala, ezarritako ekonomi eta lan-harremanetako markoa eta enpresariaren izaera. Ezin diogu uko egin oraingoz bestelako euskarrietan oinarritutako harreman sozio-laboralen eredu berria sortzeri. Kapitalaren logika auzitan jarri behar dugu, lehiakortasuna bezalako konzeptuak etsipenez eta kritikarik egin gabe onartzerik ezinezkoa da, are gehiago lehiakortasun horren zutabeak Europako herrialde aurreratuetakoa baino gehiago, Asiako Hego-ekialdeko tipikoak diren soldaten jaitsiera, lan-prekarietatea, lan-eskubideen murrizketa eta antzekoak direnean.

Bai lan-erreformaren onspenaren aurreko negoziazioetan, bai haren ezarpena xedatu zuten erabaki politikoetan ere, Euskal Herriko instituzio autonomikoek eta eragile sozialek inongo betekizunik ez zuten izan. Arrazoia, erraza: lan-harremanetako (indibidual zein kolektiboak) gaietan, lan-erreforman egituratuta dagoen eredu zehazten duten funtsezko aspektuen arauketan, legeei buruzko eskuduntzak Estatuari bakarrik dagozkie.

Horrekin esan nahi dugu, Estatuak izaera estrukturalako lan-politikari buruzko neurri atzerakoi eta antisozialak ezartzeari aurre egiteko edo neutralizatzeke inongo lanabesik ez dutela instituzio autonomikoek (bitxia da, hemendik, Izquierda Unidak Gasteizko Legebiltzarrean aurkeztea agindu zuen proposamena, hau da, EAEtik lan-erreforma indarrrik gabe uztea, —noski, ezin aplikatuzko— formula soil baten bitartez). Era berean, ekinbide sindikala zehazten duten arauak Estatu mailan ezartzen dira, Euskadin gehiengo duen sindikalismo abertzaleak objetiboki estatalaren menpeko betekizuna izan dezan, demokrazia zko printzipiorik oinarritzkoenak urratuta.

Lan-harremanen alderdirik estruktural eta funtsezkoenak, gaurregun, Estatu espainolaren lege-politikaren uztarpean daude, Hego Euskal Herriari dagokionean. Lan-legeriak harremanen koordenada nagusiak xedatzen ditu, oinarritzko institutuak arautuz eta, gainera, ekinbide sindikalaren testuingurua eta dinamika ezarriz. Horrenbestez, lan arazoei dagokienean, lege-gaie tan jarduteko eskuduntza exigitzen dugu LHEG horren erdigunetzat, euskal langileen interesen defentsarako estrategia garantizatuko duten eskuhartze-oinarriak kentzen dizkiolako Estatuko legeriak euskal sindikalismoari. Kontua da, beraz, euskal botere publikoek (eta, hala dagokionean, nazioarteko instantziek) xedatutako politika ekonomiko eta sozio-laboralen aurrean, euskal langileriak eta honen erakunde sindikalek eraginkortasunez eta erabakiortasunez jarduteko lanabesak eskuera izatea.

Lan-gaiei dagokienean esandako lege-eskuduntza, LHEG kontzeptuaren ardatza den aldetik, Euskal Herriaren Eraikuntza Nazionalerako bidean bultzatzen dugun lan-harremanen ereduarekin dago loturik.

Negoiazio kolektiboa lan-harremanen antolamenduko funtsezko lanabesa denik baztertu gabe, "abstentzio legislatiboan" oinarria daukan sistemaren aurka dago LAB, sistema honen arabera, lan-harremanen zuzeneko arauketan instituzioak abstenitzen direlako. Negoiazio kolektiboa (ezinbestez, bete behar duen eginkizuna desnaturalizatuz) edukinez hustuko duen interbentzionismo eta araukeria nabarmena defendatu ordez, lan-harremanen sistema eratzean euskal botere publiko nazionalak esku har dezaten alde gaude, eragile sozialen artean hartutako erabakiak sustatzeko lanabes huts izatera murriztu gabe. Horretarako, ezinbestekoa da lehen esandako lege-eskuduntza eskutan hartzea, honela, lan-arauteria eta alderdi sozialen jarduera auto-arautzailearen artean eraman beharreko ariera bateratuak, lan-harremanen sistema aurrerakoa garatzea ahalbidera dezan moduz.

LHEG lortzearen Estatutu-bideak egindako porrota ikusita, erreibindikazio hau sakoneko enfrontamendu politikoaren koordenadetan kokatu beharra dago, hau da Euskadi eta Estatu espainola aurrez aurreko enfrontamenduan. LHEG hau Estatuaren eskuduntza eskusibo bati (esplicituki eta dudarik ez uzteko moduan konstituzionalki eraturik) dagokion neurrian, euskal esparrua bakarrik gorpuz liteke esparru juridiko-politiko berri baten barnean. Esparru honen funtsa euskal subirautea nazionalaren aitortzea da.

2.1.2. Enplegu eta babes sozialeko politika: beharrezko lanabesak transferitzeaz

LHEG egiazko edukinez hornituta egon dadin, euskal langileria eta gizarte honetako sektorerik zigortuenen premien araberrako enplegu eta babespen sozialeko politika martxan jarri ahal izateko beharrezkoak diren lanabes

politiko eta administratiboekin batera, geure lan-legeria eratzeko ahalmena eduki behar dugu.

a) Langabezia

Langabezi prestazioei dagokienean, "Dekretazoak" aldakuntza atzerakoi batzuk ezarri zituen, emaitzak zeharo ezagunak direlarik: prestazioen munta murriztea, hauek jasotzeko betebeharrak gogortzea eta langile-kolektibo batzuk babespenik gabe uztea (ikastariak eta behin-behineko kontratuak, besteak beste). Defizit publikoa jaisteko ustezko helburuak kolektibo ahulena hartu du, berriro ere, biktimatzat.

INEMi dagokionean, enplegu-zerbitzu publikoak indartu eta bere eskuduntzak Autonomi Elkarleen eskuetan utzi ordez, Estatua hasia da Institutu hori suntsitzen, behin-behineko lan-enpresak eta kolokazio-agentzia pribatuak legeztatzearen bidez: honela, lan-merkatuan beharrezkoa den bitartekaritza publikoa desagertu egiten da.

Egoera honen aurrean, LABek egiten duen planteamendua hurrengo oinarriak ditu:

a) Babespen sozialari dagokionean, instituzio autonomikoak inongo eskuduntzarik ez zeukatela egiaztatu denetik, elkartasun eta justizia sozialeko printzipioei eutsiz, ezinbestekoa da erabateko lege-eskuduntzak tinko exigitzea, langabetuen bizi-baldintzen hondaketari aurre egin ahal izateko. Onartezina da langabetuen interesak arautzen dituzten politika sozialeko neurriak hartzea, euskal gizartea eta bertako indar sozial eta politikoak enteratu gabe.

b) Era berean, erreibindikatzen dugu INEM erabat transferitzea Hego Euskal Herriko instituzio autonomikoetara, institutu estatal horrek bereganatuak dituen betekizun guztiekin. Enplegu eta Trebakuntza Institutuak sortzea ezinbestekoa eta ezin luzatuzkoa da, enplegu-gaiak osotasunezko perspektibatik jorratu ahal izateko, bai enpleguaren sustapen eta gestioaren alderditik, bai (Administrazio Zentralak tajututako planen aplikazio hutsa bihur ez dadin) Lanbide Heziketa Okupazionala eratzeko politikaren aldetik ere. Aldi berean, prestazio ekonomiko, kontributibo eta asistentzialen aitortza eta ordainketa instituzio autonomikoen eskuetan utzi behar da.

c) INEMen jarduera burokratizatu eta dirigistaren aurka, organismo horren transferentziaren ondorioz sortuko diren Enplegu eta Trebakuntza Institutuak enplegu-zerbitzu publiko bezala egituratzea proposatzen dugu. Horko zuzendaritza-organoek hirukoitz eta paritarioak izan behar dute, sindikatuak organismo horien jardueran egiazko partaidetza izaki, tajueran, onarpenean eta exekuzioan erabakiak hartu ahal izateko (ez dadin kontsultibo hutsa izan). Era berean, eskualde mailako errealitateak eskualdeko batzordeen eta ordezkariak sozial zabaleko oinarriko organoen (sindikatuak, enpresariak, hezkuntza-zentruak, udalak eta bestelako eragile sozialak) bitartez zain ditzan egitura deszentralizatuko organismo bat eratzearen alde gaude, Zatikako eta koordinaziorik gabeko erantzunak gerta ez daitezen, enplegu eta lanbide heziketa okupazionalako planen ondoriozko jarduketak kohesioz eta koordinazioz jantzi beharko lituzkete Enplegu eta Trebakuntzarako Institutuek.

Nabarmen dezagun: esandako baldintzetan INEM transferitzeari uko egiten dio Estatuko Administrazioak.

Lanbide-heziketa okupazionalerako behatoki gisa "Egailan" elkarte publikoa sortu izanak eta, kolokazio-agentzia pribatuen legeztapenaren babesean sortu beharreko "Servicio Vasco de Colocación" izenekoak ez dituzte asetzen LABen gutxieneko asmoak, EAEn lurraldean Enplegu eta Trebakuntzako egiazko Institutua egituratzeari dagokionez. Nafarroan, berriz, bertako Gobernuak edo Parlamentuak norabide horretan urratsak eman dituztenik ezin jakin. Izan ere, gehiengo sindikalak erreibindikaturiko baldintzetan INEMen transferentzia exigitzeko borondate politikorik ez da somatzen, ez EAEn ez eta Nafarroan ere.

Langabeziagatiko prestazioei dagokienean, "beharrezko elkarrizketen hasiera bultzatzea" omen da ekimena, gai honetan alde aurretik ez elkarrizketarik eta ez negoziatorik egon ez dela aitortza egindakoan. Hau da, euskal langileak eta mungimendu sindikal abertzaleak kezka biziak dituen enplegua, trebakuntza edota babespen soziala (eta antzeko gaietan) gutxieneko erreibindikaziozko dinamika antolatze-kontuetan (bere bide estatutariotik, behintzat) Gasteizko Gobernuak eta bera sostengatzen duten indar politikoei jasaten duten desgaitasun eta borondaterik ezaren adierazle garbia da.

b) Lanbide-Heziketa Jarraia

Lanbide-Heziketa Jarraia lanean dabilzan langileei dago bideratuta eta langile hauek lanbidez birziklatzea eta koalkifikazio-maila altxatzea du helburu. Lanbide-Heziketa Jarraia sustatzeko politika lanpostuak mantentzeko eta, bidebatez, produkzio-sistemaren geroaldia segurtatzeko enplegu-politikaren ardatz nagusitzat hartzean bat dator mungimendu sindikal osoa, are eta premia handiagokoa ekonomiaren internalizaziorako urrats honetan. Horregatik hartzen dugu elementu estrategikotzat, langileen sustapen profesionala eta, aldi berean, biztanlego aktiboaren koalkifikazioa dagoelako jokoan.

1992ko abenduan "Heziketa Jarraiarako buruzko Akordio Nazional" izenekoak izenpetu zuten CCOO, UGT eta CEOEk. Akordio horren bereizgarri nagusia zentralismo itsu eta itxia da eta, honela, Madriletik erabakitzen dira enpresazain sektore alorreko taldekatutako heziketa-planak, trebakuntzarako baimen indibidualak eta heziketa jarraierako erabilgarri diren fondoaren administrazioa eta banakuntza. Akordio estatal horren babespean Heziketa Jarraierako Fundazioa (FORCEM) sortu zen: organoak milaka milioi pezeta asko administrazioan dituen arren, egitura hau gestionatzen duten erakundeak finantzatzeko sistematzat bakarrik erabiltzen den susmoa aski zabalduta dago.

Guk-geuk, estatalaz bestelako Lanbide-Heziketa Jarraieraren eredu alternatiboa tajutzen ari gara, bestelako euskarrietan oinarrituta, heziketa jarraieraren garapenera hobeki egokitua. Hona gure ereduaren oinarriak:

a) LABek defendatzen duen ereduak enpresa txiki eta ertainei arreta berezia eskainiko die, hauek euskal ekonomian duten garrantzi koalkitiboa eta koantitiboa dela medio. Araututako lanbide-heziketaren ikastetxeetako azpiegitura erabili beharra dago, hezkuntza sistemaren jabetzakoa delako. Era berean, ematen diren laguntzen helburu-izaera nabarmendu behar dugu hemen, dirukopurua jasotzaileak zuzenki har dezan eta ez, ordea, trebakuntza plana aurkeztu eta, gerora, eraginkorrak nekez izan daitezkeen ikastaroetan dirutza "xahutzen" dutenek.

b) Heziketa Jarraiaren gestioa hartuko duen erakundea hirikoitza izango da. Patronal eta sindikatuen agerpen paritarioaz gain, erabakiak hartzerakoan boto ponderatu eta proportzionaltasun irizpideen arabera, organo horretan botere publiko autonomikoek ere parte hartzeari positibo deritzogu, lanbide-heziketaren sustapenean daukaten ardura politikoa kontutan izanik.

c) Heziketa-jarduketak tajutu eta martxan jartzean sindikatuek eta patronalak zuzenean esku hartzea. Honela, aurkezten diren heziketa jarraiko planak Erakundeak onetsiko ditu eta, beste aldetik, itundutako heziketa-politika martxan jarri eta garatzetik ondorioztatzen diren erabaki guztiak hartuko ditu (hautatzeko irizpideak, programak, heziketa-erakunde laguntzaileak, heziketa-jarduketan jarraipen eta ebaluazioa, e.a.). Ohikoa den aholkularitza eta apaindurazko formulen ordeztasun, sindikatuei erabakiak hartzeko ahalmena emango dien partaidetzazko ereduak ezarri behar da, beraz. Beste aldetik, enpresa nahiz sektoreko negoziazio kolektiboak protagonismoa izan behar du, noski, garatu beharreko heziketa-jarduketan benetako egileak langileak eta hauen erakunde ordezkariak izan daitezten.

c) Gizarte Segurantzza

Hogeitabat urte iraun duen krisialdi kapitalista honen alderdi adierazgarrienetako bat, Ongizatearen Estatuaren porrota da. Krisialdi ekonomikoa gaintzeko sistemak egiten dituen proposamenetatik gehientsuenek alor ekonomiko eta sozialean Estatuak izan behar duen eskuhartzean dute oinarri: titulartasun publikoko enpresa eta industri taldeen pribatizazioan, lan-merkatuaren desarauketan, soldaten mantentzean, gastu sozialen murrizketan, e.a. Langabeziagatiko prestazioen murrizketa, lan-merkatuaren erreforma eta Gizarte Segurantzaren egin behar duten murrizketa ere, bide horretan abiatu dira. Lehen bi neurriak aztertuta, Gizarte Segurantzaren erreformari buruzko oharren bat egitea beharrezkoa zaigu, Estatu espainolean egiteko dagoen erreforma estruktural nagusietako bat delako.

Azken urteotan, interes batzuen aldeko irudi manipulatu nagusitzen ari da gizartean Gizarte Segurantzaren porrot ekonomikoari eta, ondorioz, gizarte segurantzaren eredu unibertsalerako osagarritzko bideak ezarri eta aldakuntzak egin behar direla zabaldu da. Porrot ekonomiko horren sakoneko arrazoiak zein diren jakiteko unean, sakoneko arazoari ihes egiten zaio: dagozkien kuotak enpresariak ez dituzte ordaintzen, kuota-salbuespenengatik Gizarte Segurantzaren kargurako kontratazio-sistemak, e.a., alegia. Murrizketa sozialetan oinarrituta dauden arren, sistema publikoko kutxetako fondoetatik lapurreta egitea onartzen duten Gizarte Segurantzako politikak agertzen dute berebiziko zinismoa, ikaragarria, aldi berean langileen osagarritzko fondoekin finantza-espulazioa egiteko bideak zabaltzen dituelako.

"Toledoko Itun" izenekoa, langileen artean aski isilik pasa den arren, Gizarte Segurantzako pentsioen sistema publikoaren kontrako erasoaren parte bat da. Lehenago esandako gezurrezko argudioak erabiliz, Gobernu espainola eta bere eledun ekonomikoak ari dira etengabe aldarrikatzen pentsio sistemari, etorkizunean, ezingo zaiola eutsi eta, ondorioz, sistema indartu behar dela. Okerrena da "Toledoko Itunaren" inguruan ia indar politikoa guztiak kontsentzura iritsi direla. Koiuntura politikoa arabera, orain edo geroago praktikan ipiniko diren lege-erreformen oinarriak izango diren "aholku" batzuk eman ditu itun horrek. Itunaren funtsezko alderdiak, laburbilduta, hauek dira:

a) Finantzabideen bereizketa, babespenaren izaeraren arabera; honela, sistema kontributiboa kotizazio sozialekin bakarrik finantzatu da eta ez-kontributiboa, berriz, Estatuko Aurrekontu Orokorretako zergen bitartez. Beraz, ahal diren prestazioak ordainduko dira biltzen diren kotizazioekin; patronalak behin eta berriz "enplegua sortzearen alde" exigitzen duen bezala, bilketa murrizten bada, prestazioen kopurua ere jaitsi egingo da, derrigor.

b) Pentsioak kalkulatzeko epea, gaurregun 8 urtekoa bada ere, 10, 15 urte edo langilearen lan-bizitza guztira zabaldu nahi dute eta, gainera, langilearen pentsioaren kopurua ere jaitsiko litzateke, are gehiago langabezia egon direnen kasuan.

c) Jubilatzeke adina atzeratzeko pizgarriak eman. 65 urte betetzean jubilatzea borondatezkoa dela kontutan izanik, adina atzeratzeko asmoak direla-eta, lana banatzeko premia defendatzeak ez du buru, ez hanka.

d) Egungo kotizazioen murrizketa: honela, sistema finantzatzeko ahalmena arriskutan egon liteke.

e) Pentsio-sistema pribatua bultzatzea, teorikoki, sistema osagarritzat eratu zen. Sistema publikoko prestazioak seguru aski hondatu egingo direnez, sistema pribatu hori langile askorentzat errealitate bihurtuko da eta, honela, langileek sartutako ikaragarriko dirutza izango du kapital pribatuak erabilgarri.

Hitz batez, "Toledoko Itunak" oinarriak ipini ditu langileen kontrako beste erasoaldi bat egiteko eta horiek egindako beste konkista historiko bat larriki zauritzeko mehatxua bota du.

Esandako arazoari aurre egiteko egiazko ahalbiderik ba al dute, Hego Euskal Herriko instituzio autonomikoei? Sistema horren ezarpena debekatu, eragotzi edo oztopatu egin ahal dezakete? Ez, bistan da. Hemen dugu berriro ere Espainiako Konstituzioak (beraz, Estatuak) ezarritako teilatua. Gizarte Segurantzako pentsio sistema funtsezko elementua da errenten birbanakuntza politika garatzeko eta gizarte-desmailak txikitzeko, baina botere publiko autonomikoen eskuhartzetik kanpo geratu da. Botere hauen eskuduntzak bazterrekoak dira, gizarte-asistentziari eta pentsio ez-kontributiboen gestioari dagozkio bakarrik, hau da, geure Gizarte Segurantzaren sistema eratzeko ez dira aski inondik ere. Horrenbestez, LABen errebindikazioek bi euskarri dituzte:

a) Gizarte Segurantzaren gaitan, erabateko lege-eskuduntzak, are oinarritzko legeria eta Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa egituratzen duten arauen xedaketa ere.

b) Gizarte Segurantzako Institutu Soziala eta ISM delakoa euskal instituzio autonomikoei transferitzea, finantza-baliabideak bildu, gestionatu eta administratzeko ahalmenez, "kaxa autonomoa" printzipioaren arabera. Estatuaren izaera unitarioa defendatzen dutenek, nabarmen dezagun, Gizarte Segurantzaren Altxortegi Nagusian kaxa bakarra egotea eta lehen esandako transferentzien alde gaudenon balizko intsolidaritatea nahasten dute. Berriro ere, EAEn duela 16 urtez geroztik indarrean dagoen Estatuaren espreski aurrikusita dagoen Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoren gestioaren transferentzia egiteari ere uko egiten zaio, Estatuaren itsukeriazko ulermen zentralistari lotutako interes politikoak estaltzeko, elkartasu-

na bezalako argudio nobleak erabiliz. Lan-erreformaren alde agertu eta Toledoko Ituna izenpetzeko inongo lotsarik ez duela, PNVk ez du borondate politikorik agertu Gizarte Segurantzaren transferentziak exigitzeko eta, bide honetan, 1987 urteaz geroztik hilzorian dagoen estatutu-prozesuak jasaten duen "transferentzien lehortea" bakarrik salatu du.

c) LABek ezinbestekotzat jotzen du onuradunei duintasunezko prestazioak garantizatuko dizkien Euskal Sistema Publikoa garatu ahal izateko, ERABAKITZEKO AHALMENA izango duen Gizarte Segurantzako Euskal Institutua sortzea.

2.1.3. Negoziazio Kolektiboa

a) Europar gune soziala eta estrategia sindikala

Europar gune soziala eta, helburu amankomunetan oinarrituta, europar proiektu sindikala indartzearen aldeko apustua azpimarratzen duten hainbat jarrera politiko eta sindikal dabilta LHEGen erreibindikazioaren aurrean. Kontu hau zehazki kokatzeko eta, gure arazoan soluzio magikotzat, europar esparrura behin eta berriro jo ez dezagun, gogoeta batzuk egitea komeni zaigu. Esan dezagun lehenik, Europar Batasun izenekoaren eraikuntza-prozesu ultraliberalaren izaera sozialik ez dagoela, Batasunaren Itunean alderdi laborala eta sozialak arautzen dituen esparruan ikusitako gabezia ikaragarriengatik. Politika sozialeko protokoloaren arabera, elkartzeko eta sindikatzeke edo grebarako eskubideak, patronalaren ixketa eta ordainketak bezalako alderdiak lan-harremanetan funtsezkoa izanik ere, EEEren arauketarik kanpo geratuko dira. Honez gain, estatu kideek aho batez erabaki beharreko gaiak ugari dira (ahobatasunak beto-eskubidea inplikatzeko du); gizarte segurantzaren eta langileen babespen soziala, ko-gestioa, kanporaketa gertatzean langileen babespena, herrialde bateko langileek hirugarren herrialdeetan izango dituzten lan-baldintzak eta enplegua sustatzera zuzendutako finantza-kontribuzioak. Izan ere, esandako Protokoloak (Britainia Haundiak ez zuen izenpetu), Europa-mailan erabakiak hartzeko ahalmena aitortzen die hizkide sozialei, "europar elkarrizketa soziala" berretsiz.

Bestetik, ba ote dago Europa mailako egiazko negoziazio kolektiborik? Ba al daude horretarako baldintza objektiboak? Era guztietako zailtasunak izugarriak dira. Hasteko, Estatu bakoitzak dituen sistemak eta negoziazio kolektiboaren ereduak erruz aldatzen dira, batetik bestera. Negoziazio kolektiboaren egiturak ezin gonpara daitezke gutxieneko homogenotasunen arabera. Negoziazioa daramaten sujetuek garaian garaiko botereak ohi dituzte eta langileria ordezkatzeko ereduak ere, desberdinak dira, Europa mailako hizkide sozialei dagokienean, Europako Sindikatuen Konfederazioak (ESK) dauzkan ahalmenei esker, gobernuari eska diezaike legeak egin ditzaten edo Elkarteko organismoek jarraipideak xeda ditzaten, baina komenio bat negoziatzeko gaitasunik ez du. UNICE patronala, bere aldetik, Europa mailan edozein negoziazio kolektibo egin ahal izatearen kontrakoa da.

Egoera honetan, negoziazio kolektiborako europar esparruaren balizko indar eta baloreetan oinarritutako strategiaren aldeko apustua egitea, euskal sindikalismoarentzat, tentaldi suizida litzateke. Izan ere, gehiengoak daramaten sindikatu espainolak behin eta berriz saiatzen ari dira lan-harremanetarako esparru estatala finkatzen eta, bestetik, haiek berak galarazten dute kategorizazio profesionalak sektoreetan xedatzea edo greba eskubidea fin-

katzea; are eta debekatuago dago Lanbide Heziketa Jarrairi buruzko beren Akordio "nazional" haren ondoriozko FORCEM eratzea, Europa mailako balizko elkarrizketa sozialen bat egiteko dagoen honetan. Aitzitik, ordea, bere esparruan, Estatu espainolaren barnean, bere estrategia sindikala aurrera eramateko beharrezkoak diren lanabesez hornitzen dira.

Bestelako kontua da irailaren 22ko 94/95 Jarraipidearen aplikazioz, sortuko den Europako Enpresa-Batzordeetan esku hartzeko borondatea izatea, gure kasuan bezala. Europar Elkarteko estatu bat baino gehiagotan ezarpena duten eta tamaina jakin batekoa diren enpresetako langileei kontsulta egin eta informazioa emateko organoak dira batzorde horiek. Ekimen interesgarria da hau eta, mugetatik haratago, Euskadin ere lantegiak dituzten enpresa multinazionaletan nolabaiteko kontrola ezartzeko lanabes bezala ere balioa izan dezake.

b) Egitura eta Negoziazio kolektiboko esparruak

Negoiazio kolektiboen esparruari dagokion kontua ez da antzu eta artifiziala; aitzitik, gure estrategia sindikalean egundoko inportantzia dauka, Euskadin negoziatu diren eta negoziatu behar diren komenio kolektiboen defentsa, zabalpen eta garapena delako LABen funtsezko eskakizunetako bat, LHEG erabat lortzeko bidean.

Lan-harremanen eta hauek negoziazio kolektiboan dituzten ondorioen estatizazioari buruzko azterketa asko egin dira, III. Kongresua egin zenez geroztik. Gaurregun ere gogoratu behar dugu horrelako estatizazio-estrategia gehiengoan duten sindikatu espainolek eta CEOEk garatzeko arriskua badagoela, Ordenantza Laboralen ordezkatu direnez, Estatu-mailako sektorea indartzearen bitartez.

CCOOn Kontseilu Konfederalak joan den martxoan erabaki argiemalea hartu zuen. Honela zioen: "Estatuko sektore-esparrua da lehentasunezkoa eta berari eskaini behar zaizkio ahalik eta ahalegin sindikal gehienak, estrategia sindikaleko oinarri gisa garatzeko. Horretarako, Ordenantza Laboralak ordezkatzeko negoziazio prozesuaz baliatu behar dugu, Marko-Komenioak edo Orokorrak erdiesteko". Sindikatu horretako Federazio Minerometalurgikoak zioenez, bere aldetik, "Komenio Sektorial Estatalek duten aitzindaritasunaren alde agertzen da, esparru *nazional* osoko langile guztien eskubideak arautzeko lanabesak diren heinean".

UGTk alor honetan hartutako jarrera are eta zentralistagoa da (ezinezkoa ez bada).

Sindikalismo abertzaleak, ELA eta LABen artean itundutako ekinbiderako batasunaren bidez, jarrera horien kontrako gatazka dauka erronka. Hauteskunde sindikalen ondoriozko mapaz eta Euskadin dagoen sindikalismo estatalaren ahuleziaz baliatu behar dugu, Ordenantza Laboralen ordezkari diren komenio estataletatik bereizketa eta askapen-dinamika ezartzeko. Negoziazio kolektiboaren euskal esparrua garatu, irmotu, zabaldu eta finkatzeko bidean gogor egin behar dugu aurrera, negoziata daitezkeen gai guztiguztiak geure komenioetan arautuz, inongo parametro estatalekiko menpekotasunik izan gabe. Era berean, negoziazio kolektiborako euskal esparrua bultzatu eta indartzeko helburuz, gaurregun maila estatalean negoziatu eta Euskadin aplikatzen diren komenio kolektiboen negoziazioa euskal esparrura ekartzeko premia aldarrikatzen dugu hemendik. Dauden zailtasunez

jabetuta ere, norabide horretan abiatu behar dugu, orainarte erantzun honek izan duen izaera erretorikoa gaindituta.

Labur esateko, komenio kolektiboen estalizazioaren kontrakoa eta, ondorioz, izaera estrukturalekoak izan ala ez izan, Estatu-esparruan edozein gai arautzearen kontrakoa da gure jarrera. LABen ezin dugu onartu Euskadin negoziatutako komenio kolektiboak komenio sektorial estatalen menpean egoterik. Horrelako interferentziak, lan-harremanetarako euskal esparruaren kontrako erasotzat hartuko ditugu.

Esandako helburua dela-eta, indarrean dagoen Langileen Estatutuko 84. artikulua baliagarri gerta daiteke. Euskadiko negoziazio kolektiboaren etorkizunean betebeharrak izan dezakeen eragin eta ondorioez eztabaidan sartzeko une eta toki aproposik ez da hau baina, egia esan, gehiengo sindikal abertzaleak esandako Estatutuko 84. artikulua eskaintzen duen tarte horretaz baliatu beharko du, sindikatu eta patronal estatalak iragarri dituzten erasoaldi antidemokratikoak, zatika bada ere, neutralizatzen saiatzeko. Bide honetatik, 84. artikulua horren aplikazioaren indarra ahultzeko egiten diren saiakerak salatzen ditugu, are eta ozenkiago, negoziazioaren esparru estatalera ez direlako 84. artikulua xedatutako gaiak bakarrik mugatu nahi: soldata-egitura, sektoreko gutxieneko soldata, jardunaldi, igoera eta sustapen kontzeptua eta egiturak, maila apalagoetako negoziazio kolektiboaren antolamendua eta lan-gatazkak erabakitze prozedura eta organoak ere hemen sartu nahi direlako baizik.

LABentzat beharrezkoa da Euskadin egindako negoziazio kolektiboari eustea. Estatu esparrutzat ez duen sistema antolatuz ari gara, jakina: kontua da Euskadin negoziatutako (eta, izaera osagarritz, hauen edukina hobetzen duten enpresako itunak) komenio sektorialen arteko koordinazio eta erlazio-sistema ezarri behar dela, nolana ere, sektoreko langileei "gutxieneko oinarria" garantizatuta. Era berean, euskal esparruan negoziazio kolektiboaren zentzumenezko bihurtzea nahi dugu, jardueren antzekotasunaren edo beren problematikari (merkataritza, garraioa, e.a.) dagokion homogenotasunaren arabera, sektore jakin batzuen komenioak integratu eta batzeko bidean.

Negoiazio kolektiboaren antolatu eta eratzeko gure proposamenaren oinarria, gaurregun Euskadin dauden negoziazio kolektiborako markoak zaindu eta, ahal den neurrian, zabaltzeko premia ipintzen dugu. Bide honetatik, nabarmen dezagun, gaur-gaurkoz, gure estrategiaren urrats bat, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan komenio kolektibo sektorialak defendatu eta finkatzea dela, Administrazio Publikoetako akordio eta komenioei dagokien dinamika autonomikoa izan ezik. Honenbestez, EAE esparrua duten komenio sektorialak bultzatzea ez da orain bertan LABen lehentasunezko helburua, are eta gutxiago honek esan nahi badu negoziazioan eskarmentu handiko esparru batzuk bertan behera utzi behar direla eta, azkenean, komenio estatalak ezarri ahal izango lukeen bidearen aldeko apustua egin beharko litzakeela.

Negoiazio kolektiboaren enpresa-esparruak, enpresa-itunen bitartez batez ere, ekinbide sindikalaren euskarria izan behar du. Honen helburuak, aipatu den bezala, indarren koerlazioak hala bideratzen badu behintzat, komenio sektorialetan xedatutako lan-baldintzen hobekuntza progresiboa izan behar du (ekinbide sindikalari dagokion sakoneko planteamenduekin eta ez, ordea, lan-jardunaldian eta soldatan bakarrik oin hartuta). Gogoan izan dezagun lan-erreformak enpresako itun eta akordioak desarautzeko bultzatzen dituela, komenio kolektibo sektorialetan ezin aplikatuzkoak direlako. Aski da gogoan

izatea komenioan itundutako soldata-erregimena aldatzeko enpresan hartutako akordioak (deskolgatzeko klausula aplikatzeaz), edota komenio kolektibo estatutario batean xedatutako lan-baldintzen funtsezko aldakuntzari buruzko komenio kolektiboak, adibidez. Sektore-komenioetan langileen esku-hartze dinamika eza eta gero eta gehiagoko hauen hondarazpena gertatu arren, eta nahiz eta enpresa mailako negoziazio-esparrua langileen artean finkaturik egon, gaur egungo egoeran negoziazio hori zein mugak dituen eta muga horiek gaindituko dituen lorpen-errebeindikatiboen beharra ikus dezaten kokatu behar dugu beraien artean egin beharreko lana.

Maila enpresarialeko erabaki eta akordio horien indarraldia ez da txiripazko fenomenorik: aitzitik ordea, deszentralizazio-malgutasun binomioa, sistemak ezari beharreko lan-harremanen eredu horren oinarritzat hartu nahi duen pentsamolde baten oinarrian kokatzen da.

Adierazgarria da, honela, negoziazio kolektiboaren zatirik handiena enpresari utzi behar zaiola Adegui patronalak nola defendatzen duen su-ta-gar. Negoziazioaren deszentralizazioari heldurik dagoela, enpresarien elkarte horrek dioenez, "ez gaude deszentralizazioaren alde edo aurka Euskadin bestelako errealitate sindikala dugulako bakarrik; deszentralizazioaren alde agertuko ginateke Segovia edo Almeriako patronala bagina". Honela uzten digu argi eta garbi zer pentsatzen duen lan-harremanetarako euskal esparruari buruz.

Negoziazio kolektibo sektoriala ahultzen digun enpresa-eremu hau indartzeko joeraren aurka jardun behar dugu LABetik, Euskadin negoziatutako komenioak behar bezala antolatuz, lehen aipatutakoaren haritik.

c) Negoziazio Kolektiboak urrats honetarako dituen helburuak.

Euskal mugimendu abertzaleak orohar eta LABek bereziki, eragile sozial aktibo den neurrian, ezin dute geldirik egon, aurreko ataletan adierazitako esku-duntzak ahalbideratuko dituen esparru juridiko-politikoak noiz aldatuko zain. Osotasunezko borroka politikoaren alorrean nazioa eraikitzeko proiektua, gure iritziz, hemendik aurrera eguneroko lanaren bitartez landu beharreko prozesu dinamikoa den bezalaxe, ekinbide sindikalean ere LHEG osatzen hasi behar dugu orain bertan. Horretarako euskal esparruan negoziazioa bereizirik praktikatzea —aurreko ataletan aipatutako esparru eta egituren defentsa oinarri hartuta— izan behar dugu geure ekinbide sindikalaren ardatzetako bat, beraz delako eskuhartzeko lanabesik garrantzitsuenetako bat. Gauzak honela, galñaderak dagozkigu: Zein helbururen inguruan? Helburu horiek eskuratzeko nola-ko estrategia gorpuztuko dugu?

Bidezkoa den bezala, txosten honek ez ditu erreibindikazio-plataforma baten helburu zehatzak banan-banan adierazi nahi eta, kontrako norabidean, lan-harremanen sistema aurrerakoi baten garapenean negoziazio kolektiboak izan dezakeen betekizunari buruzko gogoeta teoriko eta denboraz kanpokoak egitea ere ez da gure xedea. Kontua da, beraz, kongresu ondorengo aldian egingo den negoziazio kolektiboan gure estrategia zuzentzeko balioko duten oinarritzko idea batzuen zirriborroa egitea.

c.1) Lan-erreformaren kontra jardutea

Datozen urteetako negoziazio kolektiboaren helburu nagusienetako bat, lan-erreforma finka ez dadin saiatzea da. Halaz ere, langileriaren interesak larriki

urratzen dituen politika ekonomiko eta sozialaren adierazpide den lan-erreformaren kontrako borroka ezin muga daiteke negoziazio kolektiboaren esparrura bakarrik, gure ekinbide sindikaleko lanabes guztiak erabili behar ditugu horretan: enfrontamendu "hutsezko" prozesuetatik hasi (ondorioz, gatazka izaera politikoaz jantzita) eta sindikatuaren egitura guztien etengabeko dinamika mobilizatzailerik sistemikoak arte, negoziazio kolektiboan behar bezalako eskuhartzea agertzean barrena. Adibide gisa gauza bakarra esango dugu: lan-erreformaren aplikazioan ezarritako kaleratzeek, prekaritatearen kontra edota behin-behineko lan-enpresen kontrako borroka osotasunezko erantzuna eskatzen dute, baina erantzun hori ezin daiteke izan negoziazio kolektibo hutsa, arazo horiei aurre egiteko unean aski ez delako hori. Bestela esateko, lan-erreformaren kontrako borrokan, negoziazio kolektiboak ez du agortzen gure ekinbide sindikal eta erreibindikatzailerik.

Jakina denez, esandako kontra-erreforma horren eraginetako bat, duela oso gutxi arte alderdi kolektiboentzat ezin erabilezko hartzen ziren gutxieneko arau eta bestelako eskubideak suntsitu egin izana, kasu askotan. Honela bada, langileen eskubide batzuen gutxieneko agerpena den aldetik, larriki hondatuta geratu da legearen eginkizuna. Legea kendu edo gauza batzuk legetik kanpo geratzeko arriskuaren aurrean, lan-harremanetako gai ugari negoziazio kolektiboan arautu beharko dira. Bestela, akordio indibidualaren barmean geratuko dira, praktikan, enpresariaren esku. Honenbestez, negoziazio kolektiboak egundoko betekizuna dauka lan-harremanetako hamaika alderdiren antolakuntzan. Gure arreta berezia eskatzen duten gaietako batzuk aipatuko ditugu hemen, bereziki:

a) Komenio kolektiboen indarraldia. Arau orokor gisa, komenioen indarraldia iraupen mugatutzat jo beharra dago, urtebetekoa, ahal bada. Langileen lan-baldintzak hobetzeko eta, ekinbide sindikalean, haien egiazko protagonismoa bultzatzeko borrokan langileriaren zuzeneko partehartzea indartzeko lanabesa negoziazio kolektiboa dela ulertzen badugu, urte bat baino gehiagotarako komenio edo itunik egin ez dadin saiatu behar dugu, horrek langileen utzikeria eta desmobilizazioa ekar dezakeelako. Fenomeno hauek nahiko zabalduak daude gaureraino negoziazio kolektiboaren dinamikan, zorritzarekin. Nolanahi ere, baliteke negoziazio-gai batzuek urteko iraunaldia gainditzea, negoziazioa bera osatzen duten edukinaren interes sindikalak hala eskatuta.

Edonola ere, komenioen alderdi arauemailearen iraunaldia automatikoki luzatuko dela garantizatzea beharrezkoa da; bestela komenio baten indarraldia agortzetik hurrengo onetsi bitarteko arauketaren hutsaldia honela bete litzateke. Kontutan har dezagun komenioen "ultra-aktibitatearen" kontrako dela patronalak negoziazio mahaietan maiz planteatuko dituen helburuetako bat, lan-erreformak horretarako eskaintzen dion aukeraz baliatuta.

b) Komenio eta lan-eskubideen jarraipena. Lan-erreformaz geroztik, aurreko komenioa beste batek indargabetu eta osotasunean ordezkatzen duela kontutan izanik, beharrezkoa da interesatzen zaizkigun gai guztiak negoziazioan sartzea. Ez dugu, beraz, atal bat bera ere negoziatu gabe utzi behar, gai askotan espresikito ituna ez izateak lan-erreforma hutsa aplikatzea —hau da, enpresariaren ezarpen gordina— ekar dezakeelako.

c) Desloturazko klausulak. Honelako klausulak xedatzea komenio sektorialen betebeharreko gutxieneko edukinaren zati gisa agertzen denez, klausulen arauketaren bitartez, horien aplikazioa arreta handiz zaindu behar dugu: gorabehera justifikatzaileak zehaztea, horretarako aha-

lik eta informazio gehiena aurkeztuz: desloturaren eragina, aplikatzeko epeak eta prozedurak, enplegua mantentzeari buruz enpresek har ditzaketen konpromezuak, eta komenio kolektiboen eraginkortasunaren printzipioa urratzen duten klausula hauek praktikan ez aplikatzeko joera ager dezakeen beste edozein betebeharrak.

d) Kontratazioa. Ekinbide sindikalaren lehentasunezko helburuak dira enpleguaren eta lan-banakuntza, eta txosten honetako hurrengo atal batean honelaxe aztertuko dugu, bereziki. Hala eta guztiz ere, lan-kontratazioari dagokion berarizko problematikari buruzko ohar txoren bat egitea komeni da. Lan-harremanen funtsezko alderdietako bat kontratazio-moldeak dira. Izan ere, lan-erreformak oinarriak sendotzen ditu prekarietatea zabaldu eta finka dadin (mugimendu sindikal osoak hainbestetan salatutako eragin larriko fenomeno den arren). Politika legislatibozko aukera baten aurrean gara: enpleguan egonkortasuna eta kontratazioan kausalitate-printzipioa, erreformak bultzaturiko segurantziazirik ezaren eta prekarietatearen aurka. Alor honetan, izan ere, alderdien autonomia kolektiboak, negoziazio kolektiboak, zeharo menpeko zeregina betetzen du, are eta menperatuago jurisprudentzia jakin batek, kontratazioari dagozkion gaien arauketa komertzionala erabat mugatzeko joera daukala kontutan izanik; honen iritzi-ziz, enplegu politika garatzea botere publikoen eginkizuna delako, funtsean beharrezko eta aldaezinekoak diren eskubide-arauen bidez, komenio kolektiboetan.

Halaz ere, negoziazio kolektiboaren bitartez ere esku hartu behar dugu. Honetarako, enplegu garbia mantendu eta sortzea eta, bestetik, behin-behineko eta behin betiko kontratua duten langileen arteko diskriminaziorik ez gertatzeko balio duten tresnak erabili behar ditugu. Arreta berezia eskainiko diegu ikastari edo apendizien kontratuei (hauek baitira behin-behineko kontratazioaren hondamendiaren adierazle bikainak) eta zatikako denborako kontratu jakin batzuei. Zabor-kontratuei dagokienean, honelakoak komenio kolektiboetan arautu behar ditugu, hezkuntza-helburuak osorik beteko direla segurtatuz eta legeriak aurrikusten dituen soldata eta babespen sozialeko baldintzak hobetuz. Zatikako denborako kontratuak: babespen-gabezia inplikatzeko duten honelako kontratuak (asteko 12 lanordu edo hileko 48 lanorduz azpiko jardunaldiak) debekatuak daudela adierazi behar dugu komenioetan.

e) Kontratuaren iraungipena (amaiera). Gure proposamenek printzipio bati heldu behar diote: enpleguaren eta lanpostuen iraupena ahalik eta sendoen segurtatzeko, defentsa kolektiboaren mekanismoak, eta enpresa-batzordeen eta sekzio sindikalen eskubideak indartzea. Arrazoi ekonomiko, tekniko, antolakuntza edo produkziozkoengatik (bai eta "arrazoi objektiboengatik" despido indibidual eta pluraletan ere) izaniko despidoetan informazio, kontsulta eta negoziazio-eskubideak aitortu beharrekoak direla azpimarratuko dugu, lan-erreformak kasu hauetan baimen administratiboa suntsitu duen arren. Era berean, esandako arrazoi guztiengatik despidoetan, langileen odezkariei enpresariak entregatu behar dien ekonomi eta finantzei buruzko informazioa zehazki eta zorrozki arautu behar da.

f) Emakume langilearen diskriminazioa. Diskriminazio honek ekinbide sindikaletik osotasunezko erantzuna eskatzen duen arazoa izaki, eskuhartze sindikalerako berarizko lanabesa den neurrian, negoziazio kolektiboaren bidez ere sartu behar dugu problematika hau geure negoziazio-dinamikan. Sindikatuko beste dokumentuetan behin eta berriz esan izan den bezala, sexu-arrazoiengatik diskriminatzea debekaturik egoteaz

klausula estereotipatuak edota esamolde generikoak sartzeak ez du berebiziko garrantzia, komenio kolektiboetan bertan ezartzen diren zeharkako diskriminazio-mekanismoak hauteman eta horien kontra jarduteak baizik. Negoziazio kolektiboaren bitartez, emakumearen bazterkuntza laborala praktikan jartzeko bi metodo bakarrik aipatzearen, saiatu behar dugu bereziki kategorian profesionalen arteko bereizketarik (ordainsari apalago duten eginkizunak eta lanpostuak "feminizatuz") gerta ez dadin eta, bestetik, gizonezkoek bakarrik bete ditzaketen lanpostuetan soldata-osagarriak ezar ez daitezzen.

g) Enpresa-taldeak. Txosten honen lehen zatian azaldutako ekonomiaren mundializazioaren testuinguruan, enpresen taldekatzeak, ekonomian eta antolakuntzan integrazio-maila garaia duten enpresa-taldeei geroz eta maizago aurre egin behar izan diezaiegun behartzen gaituzte, askotan, eginkizun bakar batekin: ondareak bategitea eta langileak taldeko edozein enpresatan, tzandaka, zerbitzuak eman behar izatea, nahiz eta enpresa bakoitzak berezko nortasun juridikoa eduki. Ikuspegi laboraletik behintzat, enpresa-talde horiei buruzko lege-arauketarik ia ez dagoenez, esparru horretan komenio kolektiboak bultzatzea egokia ezezik beharrezkoa ere izango litzateke, Negoziazio Kolektiboaren Sustapenari buruz, 1981eko ekainaren 19an Nazioarteko Lan-Erakundeak (OIT) egin zuen 154. Komenioari jarraiki, enpresa-taldeko langile guztien eskubideak garantizatu eta interesak defendatzeko. Planteamendu honi, jakina, berezko arauketa dagokio euskal esparruan, goien adierazitako negoziazio-esparruei dauzkagun jarrekin bat.

c.2. Lan-harremanen demokratizazioan aurrerapausuak ematea.

Negoziazio kolektiboaren beste helburu nagusi bat izango da lan-harremanen demokratizazioan aurrera agitea, kapitalaren boterea murriztuz.

Izaera antikapitalistako planteamendu pragmatikoa duen LAB bezalako sindikatu batentzat, perspektiba estrategikotik beharrezkoa da patronalaren boterearen legitimazioa auzitan jartzea eta, bidebategi, sistema kapitalistari berez dagokion lan-harremanen aginkeriazko ereduak kuestionatzea. Enpresaren baitan boterearen oreka aldatu egin behar da, botere-esparruan eragina duten erabakiak hartzean langileek ere eragin handia izan dezaten moduz.

Sindikatuak langileria "hezi" (hitz honen adiera onartzen bada) egin behar du, gauza bat ongi erakutsiz: enpresa-gatazka ez dela soldata-alorreko gatazka hutsa, ez eta nagusia ere; aitzitik ordea, langileen eskubideak berriro indarrean jarri eta enpresaren boterea deslegitimatzen duen lan-harremanen eredu alternatiboa pixkanaka ezartzeko botere-gatazka egokia dela. Esandako lan-harremanen ereduak, ko-determinazio (hau da, enpresari dagozkion arazoetan —baita alderdi funtsezko edo estrategikoak ere— langileen ordezkarien partaidetzaz erabakiak hartzea) plegu batzuen bitartez, enpresaren boterea murriztu edo mugatzeko helburuz, langileen partaidetza-motak defendatzera eramaten du.

Ko-determinazioarekin bat datorren proposamen honek patronalaren boterea zorrozki mugatzea du helburu eta, hortaz, kontutan hartu behar ditugu, zeharkak bada ere, enpresa-boterea elkarbanatzeak daraman edozein partaidetzamekanismoren arriskuak. Enpresaren gestio-maila edo zati bat daraman partaidetzak (ko-gestioak berak), langileriak ere bere ardura bereganatzen dute.

lako, fase historiko honetan bultzatzen dugun erreibindikaziozko eta enfrentamenduzko ekinbide sindikala garatzeari erabateko oztopoa ipintzen dio.

Kakoa, lehenengo eta behin langileek enpresarien botere-eginkizunean lan baldintzak ezartzeko orduan, eta jerarki-antolamendua, soldata mailak, enpresak lortutako inbertsio eta mozkinen banaketa, lan-antolamendua... eta abar erabakitzerakoan duten zeregina ulertu, eta eztabaidatu eta gero, botere horren mugaketa gizarte ez-demokratikoa botere sortzaile gisa planteatu behar izatean datza. Nahiz eta "kalitate-esparru" batzordearen jerarki-antolakuntzari eusteak duen arriskua sindikal-erakundeen desegiketa suposa bait dezake. Langileen esku-hartzea enpresaren kudeaketan gaur egungo gizarte autoritarioa ulertzearen urrats garrantzitsuak egin direla adieraziko luke eta gizartearen langileak duten zeregin garrantzitsua isladatzen duen esku-hartze eredu berriak aztertzen utziko luke.

Kontua, beraz, enpresako alderdi estrategiko eta orokorretan langileen egiazko kontraboterea garantizatzen duten ko-dezisorako mekanismoak ituntzea da, haren martxan modu erabakiorrez eta efikaziaz eraginez.

Adierazitako gogoetak martxan jartzea ahalbideratuko duten lanabesetako bat dugu negoziazio kolektiboa, zentzu zabalean ulertuta. Negoziazio kolektiboaren edukinak aberasteko proposamen topikoan, lan-harremanen demokratizazioa lehentasunezko helburutzat planteatu behar dugu. Negoziazio kolektiboaren ulermen tradizional edo industrialista gainditu behar dugu: pentsamolde honen arabera, komenio kolektiboen betekizun bakarra, lan-indarraren salmentaren prezioa xedatu, langilearen eginkizunak mugatu eta lan-jardunaldiaren iraupena zehaztu besterik ez da. Honela pentsatzen du askok oraindik baina, jarrera honen arabera, lanaren antolakuntza eta produktio-sistemaren arauketari dagozkion alderdiak enpresariaren eskuduntzakoak dira eta, horrenbestez, negoziazio kolektiboetan ez dira jorratzen (edo zeharo gaizki jorratzen dira).

Alor honetan eskemak aldatu behar ditugu, beraz, kontrol sindikaleko lana-besak indartzearen alde jardunez: langileen ordezkariak informazioa ematea, alde zurretik galdetzea, negoziatzea eta zaintza-lanetan aritzea. Esandako kontrol sindikala, maiz askotan gure ekinbide sindikaletik bazterrean geratzen diren gai mordo bati dagokio: ekonomia eta finantzazko informazioa; lan-baldintzen aldakuntzari buruzko informazioa; mugikortasun geografiko eta funtzionala; enpresaren status juridikoaren aldaketari buruzko informazioa (elkarte-aldakuntzak, bategiteak, irenketak eta, orohar, enpresaren egituraketa juridikoaren aldaketak, etorkizunean ondorioak izan ditzaketenak); hedapenezko edota teknologia berritzeko plan estrategikoen negoziazioa, e.a.

Hitz batez, kontua da ekinbide sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren dinamika murriztaile eta defentsiboa gainditzea, lan-harremanen demokratizazioan aurrerapausuak ematea errazten duten elementuak sartuz, hau baita LHEG batean eredu sozialaren oinarria. Horretarako, gaur hasita, industri harremanen ereduak daukan ezaugarri behinena auzitan jarri behar da: esparru guztietan erabakiak hartzeko ahalmena, alegia, lan-erreformaren onespeneren bitartez zeharo indartu dena.

Enpresa-botere hori indartzeak eragina izan du lan-baldintzen eta mugikortasun geografikoaren funtsezko aldakuntzan. Baimen administratiboa sunsitudutakoan, baldintza horiek ezartzeko eskuduntza guztiak enpresariaren eskuetan daude (honen erabakien kontra inpugnaketa judiziala ipin daiteke-

en arren, honen eraginkortasuna ez da segurua, gehienetan, gertatutakoa zuzentzea erraza ez delako). Horrenbestez, kontsulta-aldian sortutako gorabeheri ebazpena emateko unean, bitartekaritza eta arbitraia derrigor sartzea komeni da komenio kolektiboetan; era berean, bitartekaritza edo arbitraia horren izaera beteerailea funtsezko lekualdaketa edo aldakuntza guztietara (indibidual, plural nahiz kolektiboak direla) zabaldu beharra jasoko da: Planteamendu hau autodefentsazko metodoak (greba, bereziki) praktikan jartzearekin elkargarri gertatzen da eta lan-gatazkei ebazpen estrajudiziala emateko aukera eskaintzen du; ez, lan-gatazkek baketzeko perspektibatik, lan-erreformak enpresarien eskuetan uzten duen eskuduntza aldebarrekoak murrizteko ikuspuntutik baizik.

2.1.4. Organo instituzionaletan eskuhartzea, sindikatuaren partaidetzaren bitartez

Bai EAEn bai Nafarroan ere, era askotako organismo instituzionalen sorrera ugaltzen ari da. Egitura hauek sarea osatzen dute, bertan, egiazko eskuduntza urriak direla medio, estrukturalki baldintzatutako protagonismoa daukate eragile sozialek eta sindikatuek, bereziki. Garrantzitsuenak aipatuko ditugu, laburbilduta:

a) EAEko Lan-Harremanen Kontseilua (LHK = CRL). Patronal eta sindikatuen osakera paritaria daukan organo honen egiazko birtualtasuna urria izan da azken urteotan: gatazka kolektiboari buruzko PRECO II izenekoaren gestioa, bigarren mailako gaiari buruzko kontsulta-jarduera, egoera sozio-ekonomikoaz ikerketak eta negoziazio kolektiboari buruzko azterketa batzuk bakarrik egin ditu. Halaz ere, badirudi LHK honi bultzada bat eman nahi zaiola, balizko "negoziazio kolektiboaren berregituraketa" jorrazteko, nonbait: beraz, horren bilakaera gertutik zaindu behar dugu, negoziazio kolektiboaren bestelako praktika garatzeko aurkez daitezkeen balizko aurrez baliatuta.

b) EAE eta Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak (KES). Sortzeko arauak aldatu berri izanak, LABi bietan sartzea ahalbideratzen dio: hauen egiazko eraginkortasuna, geroago adieraziko ditugun baldintza estrukturaleri dago loturik.

Osalar. (EAEko Lan-Segurantza eta Osasunaren Institutua) eta Lan-Osasunaren Nafarroako Institutua. LAB bi organismo hauetatik kanpo dagoenez, bertan parte hartzeko daukan eskubidea planteatu behar du, langileentzat biziki interesgarria delako siniestrabilitate laboralaren aurrikuspena.

d) EAEko Lanbide Heziketaren Kontseilua. Organo hau antzu eta alferrikakoa izan da, gaur arte. Kontseilu hau martxan jartzea, neurri handi batean, Lanbide Heziketa Jarraiari buruzko Konfederazioarteko Akordioa hartzeari eta INEMen transferentziari lotutako Lanbide Heziketa Okupazionalaren traspasua baldintzapean egongo da, lanbide heziketaren alor desberdinen (arautua barne) arteko koordinazio egokia lortzeko.

Adierazitako eskuhartze instituzionalako organismo guztiek zenbait berezigarri amankomun dituzte:

1) Horien eskumenen markoa, jorrazten diren gaietan Estatuak eta Autonomi Elkarteek eratu dituzten eskuduntzen banakuntzak erabakita dago aurretik. Politika ekonomiko, sozial eta laboraleko erabaki estrategiko edo

garrantzikorik gehientsuenak Estatuko instantzia legislatibo eta gubernametaletan hartzen dituztela errepikatuko dugu hemen. Beraz, diktamenak egitea Estatuko KESi eta Gizarte Segurantzaren gestioan duten Erakundeetako organismoen dagokien (hauetan agertzea ukatu digu Lan Ministeritzak, izan ere, diskriminazio sindikal nabarmena ezkutatu duten argudio xeleez bidez). Beraz, organismo autonomiko horiek birtualtasun eta garapen osoa izan dezakete baldin eta euskal instituzioek, LHEGen esparruan berezko politika sozio-ekonomiko eta laborala eratzeko moduko eskuduntza-maila badute.

2) Izaera kontsultiboa, EAEko KESen areagotu egiten da, Autonomi Elkartearen Aurrekontu Nagusien proiektuari buruzko diktamena egitea espreski galera baitaio, Estatuko KESekin bat etorriz (honek, Estatuko politika ekonomikoaren xedatzen duen arauari buruzko diktamenik egiteko eskumenik ez dauka).

Alor honetan LABen planteamendua hau da: eskuhartze instituzionaleko organismoetan sindikatuek duten izaera ko-erabakitzailea defendatzea, hauen eskuhartzea eraginkorra eta erabakiorra izan dadin, euskal langile guztien interes sozial eta ekonomikoak zaintzeko. Hau da, sindikalismoak bere egiazko protagonismoa hartu behar du horrelako organismoetan, lan-baldintza eta bizi-kalitateari (zentzurik zabalenean) dagozkion neurrietan erabakiak hartzeko daukan ahalmena garrantzizko zaiolarik. Beste alde batetik, eskuhartze instituzional horrek ez ditu ordezkatu behar sindikatuek botere publikoekin eta patronalarekin dituzten interlokuziorako zuzeneko bideak, izan ere, beti iraugo du hor tentazio batek: Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak, dagozkion itun soziala negoziatzeko "kontzertazio erregionaleko" foro egoki bihurtzea, organismoaren eginkizunak zeharo desnaturalizatuta.

Era berean, alor honetan LABek dituen helburu nagusietako bat, eskuhartze instituzionalerako gune berriak defendatzea da, Diputazio eta Udalen esparruan bereziki. Erakunde hauek hainbat areataran bideratzen dituzten dirutza izugarriak (gizarte ongizatea, lanbide heziketa, industria, e.a.) gauregun eragile sozialen kontrolatik kanpo daude eta akordio garrantzitsuak mugimendu sindikalaren atzetik hartzen dira, horrelakoak erabakitzea —haien esanetan— botere politikoari dagokiolako. LABen iritziz, alor hauetan ere sindikatuek eragile sozial aktibo izan behar dute, eta beraz, langileen interes orokorretan eragina duten gaietan erabakiak ko-gestioz hartu behar dituzte, botere publikoen gestioan egiazko kontrola eramateaz gain. Bide honetan kokatzen dugu UDAL MAILAN ENPLEGU ETA GARAPEN EKONOMIKOKO BATZORDEAK sortzeko proposamena.

Partehartze sindikala dagoen organo instituzionaletan LABen eskuhartzea aztertzeke unean, ez dugu ahanzi behar eskuhartze hau ekinbide sindikaleko beste fronte bat denik, baina ongi jabetuta geure lehentasuna oinarritzko lana dela, lantegietan, eskualde eta sektoreetako eskuhartze-egituretan, hankak lurrean, hitz batez. Horren esan nahi du LHEGrako bidean gure estrategian, ez ditugula jarduera instituzionalaren ahalmenak gehiatsi, sobredimentsionatu egin behar, ekinbide sindikalaren ardatz bihurtu arte. Izan ere, "elkarrizketa soziala" berez helburu bihurtuko bagenu eta, horrenbestez, bide instituzionalak gure eskuhartze-alor behinenak balira, epe laburrera, gure izaeratik zeharo urrundutako sindikatu itunzale bilakatzeko oinarriak sendotzen ariko ginateke. Beste alderditik, aurreko guztiak ez gaitu eraman behar organismo instituzionaletan jarraipen eta eskuhartze zuzen, bikaina egiteak daukan garrantzia gutxiestera, mesprezatzera. Izan ere, esandako mugak gorabehera, organismo horietan jorratzen dira maiz asko-

tan langileentzako interesgarriak diren gaiak. Horrexegatik, maila konfederalen lehentasunez, geure irizpideetan oinarritutako eskuhartze instituzionalaren estrategia antolatzeko premia bistan dago.

2.2. EUSKAL GUNE SOZIO-EKONOMIKOA (EERE)

2.2.1. EEREren oinarriak

EGSEz hitzegiterakoan, lehen-lehenik, politika ekonomikoan lehentasunak errotik aldatu behar direla esaten dugu. Eta Herrien garapen endogenoa aipatzen dugu, liluratuta kanpora begira dagoen eta, gainera, kanpoko gertakarien menpeko den ekonomiaren alternatibatzat. Garapen endogeno horrek, errealitate ekonomiko eta sozial honetan oin hartuta, geure baloreak eta geure independentzia politiko eta ekonomikoak galdu gabe, teknologiaren aurreapena eta nazioarte mailako elkartrukea geureganatzeko gauza izatea esan nahi du. Euskal Herriaren sobirotasuna lortzearen borrokatu behar da, eta bere gizarteratzea langile eta sindikal abertzaleen mugimenduak bideratua izan behar du. Era berean, Europako inguruak, langileek beren sobirotasunaren aldeko ekitzen bitartez, aldatua egotea eta elkarren arteko errespetuan eta elkarbidetzan oinarritua, ekonomi-politika bat eraikitzen utziko duela espero dugu, eta ez, orain arte bezala, explotazioan eta gutxi batzuren onuran oinarritua. Bien bitartean, gure esparrutik, nahi ditugun EGSEak itxuratzeari ekin behar diogu.

Garapen ekonomiko eta kultural osoaren eredua da, barne eta kanpo alorren aniztasunen batasunaren eredua, modernismo eta heredentzia historikoaren arteko aberaste-eredua, indar sozialen ekinbidearen bitartez sozializatorantz aurrera egiteko eredua, hitz batez.

Politika ekonomikoaren norabide neoliberalari gainbegiratuta, hamaika arrazoi ikusiko ditugu premia gorritz estrategiaz aldatzeko, bai eta ikuspegi posibilistatik ere.

LABek alternatibazko estrategia sozio-ekonomikoa eraiki behar du. Dinamika autokokatuetan oinarritutako dinamikaren ardatz nagusia, egungo egoera honetan, barne-enplegua eta eskakizuna izango dira.

Kanpo-eskakizuna eta lehiakortasuna menpeko elementutzat hartuta, barnealdakinen arabera. Produktibitatea eta hazkuntza areagotzeko bitartetzat, barne-norabidea hobesteko premia planteatzea.

Lehiakortasuna, koalatiboki bestelako ikuspegitik (gizartea garatzeko premiatik) begiratuta, geure proiektu ekonomikoaren giltzarritzat ulertuta, barne-ekonomia dinamikoagoa, egokiro irekia, nazioarte mailako prezio eta teknologiaren arabera. Honen funtsa eta indar eragilea, ordea, barne-lehiakortasuna eta ekonomiaren dinamika lirateke, irekitasun, lehiakortasun,

makroekonomiaren egonkortasun eta aldakuntza egiturak egiteko berarizko aginduak sortuko lituzkete, garapenaren *leit motiv* ez daitezen izan esportazioak.

Hauxe dugu geure abiaesparrua, EESE zer den azaltzeko. Planteamendu hauen ondorioak hurrengoak lirake:

- Euskal Gune Sozio-Ekonomiko honi kohesioa eta jarraiera eman go dieten faktore ekonomikoak eta politika laboral eta sozialak martxan jartzeko eskuduntza legislatibo osoak lortzea.

- Europako konbergentzi politika erabakitzen den guneetan eta mundu zabaleko foroetan negoziatzeko gauza izatea.

- Gune hori bultzatzeko lanabes instituzionalak edukitzea.

- Politika ekonomiko liberalarekin bat ez datozen interesak dituzten kemen sozial, sindikal eta politikoak elkarlotzea.

Euskal Gune Sozio-Ekonomiko honek hurrengo beharra dauka:

a) Euskal sektore publikoa garatzeko eskuduntza legislatibo osoak: gure Herriaren ahalmen ekonomiko eta sozialen garapenaren zerbitzurako gestio- eta kontrol-proiektu demokratikoaren alde, baliabide sozialak martxan jartzea izango litzateke sektore publiko honen helburua. Sektore publiko berria litzateke, eragile sozial eta sindikalen partaidetza izango lukeena, deszentralizatua; iruzur fiskala, gestio administratiboko burokrazia eta — kidesun politiko edota ideologikoen arabera— kontratazio eta gestio ustelak hauteman eta zigortzeko gai izango litzatekeena.

Euskal sektore publiko berria, garapen-ereduaren eragile, zerga-politikaren norabideak eta politika ekonomiko eta monetariaren ardatz nagusiak zuzentzeko gauza litzatekeena. Errenten banakuntza berdintasunez antolatu eta, jasotako errenten araberako zerga-kontribuzioa eginez, euskal gizartea garatzeko balio duten parametroen bidez, aurrekontu publikoak administratu behar lituzkeena.

b) Industri enpresa publikoa bultzatzea, produkzio-ehuna garatu, dibertsifikatu eta koalifikatzeko lanabesa den aldetik. Estatuko industri sektore publikoa hutsaren hurrengo prezioan saltzen ari den honetan, euskal lurraldean dabilzan industria, garraio, finantza eta zerbitzuetako enpresen titulartasuna EAEari eta Nafarroari transferitu behar zaizkie.

Industriaren garapenerako programa indar sozialekin kotsentsuatzea, inbertsio publikoa eta pribatua bultzatuz; euskal esparru geografikoan industriarteko harremanak indartzea; finantza-kapitala industri inbertsioan inplikatzeko; teknologiararen garapenean, teknologia egokien aplikazio praktikoan sektore publiko inplikatzeko; produkzio eta gizarte-ehunaren gaineko eraginak kontrolatzea; udalerrri eta eskualde mailako produkzio-ehuna zabaltzea.

LABen iritzi, udalerrri edo eskualde mailako egiturek, garapen ekonomiko eta sozialaren lagungarri izan daitezkeen produkzio, enplegu eta merkataritzazko dinamikak antola ditzakete. Udalerrri bakoitzean enplegua sustatzeko batzordeak sortzearen aldeko bultzada, garapen ekonomiko horren ahalmenen garapen ekonomikorantz bideratu beharko litzateke, instituzio publikoen, sindikatuen eta bestelako eragile sozialen jarduera aktiboaren bidez.

c) Europar Batasunean ordezkari-tza. Gure produkzio-ehunean eragina duten alderdi ekonomikoak EBarekin negoziatzeko eskuduntza. Estatu espainolari dagozkion organo komunitarioetan ordezkari-tza osoa.

d) Arrantza eta nekazaritza-elikadura sektoreak bultzatu eta dibertsifikatzea, eta geure natur baliabideak berreskuratzea.

e) Garraio eta komunikazio-politika integratua, dibertsifikatua, gure udalerrri eta eskualde-mailako errealitateak indartuko dituena.

f) Euskal Banku Publikoaren sorrera dela-eta, geure finantza-lanabesak garatzea, moneta-politika, kapital-arrisku pleguko elkarte indartsua eta aurrezlea enpresarekin zuzenean lotzen duen balore-merkatua koordinatzeko gauza izango dena.

g) Administrazio Publikoa eraberritzeak ondorengo azalpenetan oinarritua egongo da:

- Sektore publikoa sendotzea, pribatizazio joeren aurrean.
- Zerbitzu publikoak eustean eta zabalitzean.
- Euskal Administrazio baten eraiketa gizartearen esku-hartzeari zabalik, demokraziaren eta herriko gertakizunen bermatzailetzat hartuko dena.
- Administrazio baten itxuratzea beren langileak bere eguneroko zereginetan zerbitzatzen duten gizarteari leialtasun berezia izango diotenak, horretarako informazio gardetasuna eta gizartearen esku-hartze bideen laguntza eta aurrerabidea erabiliko dira.
- Beren esku-hartze profesionalak agintean dagoen alderdiaren menpe egon ez dadin, beren kualifikazioaren menpe baizik, beren sarrera gizartearen interesak defendatzeko dituzten ahalmenen objektiboan balorapenen bitartez egingo dira.

Lehen aipatutako irizpideen arabera, euskal funtzio publikoaren eta beren langileekiko zereginen esparruan estrategi bereziaren zehaztea ikusten dugu.

2.2.2. EESEko garapen-eredua

EESE bestelakoa izango bada, ongizatearen egoera izenekoa errotik aldatu beharra dago. Ezin sortu daitekeelako gaurregun gune sozio-ekonomiko bat garapen-ereduan konkista sozialak integratu gabe eta, produktibitate kontzeptuan herritarren premien betetzea kontutan hartu gabe.

Euskal gune soziala eratzeak euskal herritartasuna onartzea eta gure nazioa eraikitzeke proiektua ikuspegi horretan kokatzea darama berarekin, elkartasunezko jarrera aurrerakoi horietatik.

Bultzatzen dugun eredu soziala honela ulertzen dugu: edozein pertsonari, euskal herritarra izateagatik, egin duen lanaren eta ekoiztu dituen errenten banakuntzaren emaitza gisa, subira-tza politikoaz eta ongizatezko egoeraz gozatzeko eskubidea zor zaio.

Honela bada, gune sozial hau egituratu ahal izateke, zerga-politika aurrerakoiari eta aberastasunen banakuntza-politikari dagozkion bilketa, gestio eta banakuntza gaietan, bidezkoak diren lanabesak eskuratu behar dira.

Planteamendu hauek garatzeko lanabesen abiaesparrua, gaurkoz, hau da: gai sozial eta fiskaletan eskuduntza legislatibo osoa; Nafarroan eta EAEn Gizarte Segurantzaren Institutua sortzea eta herritarrei garantizatu behar zaien errenta negoziatzea.

EESE hori osatzeak eskatzen du, esparru horretan, esparrua bideragarri bihurtu ahal izateko, iraunkortasun eta egonkortasuna emango dioten osagai sozial eta ekonomikoak berresturatu behar direla. EESE, izan ere, Nazioaren Eraikuntzari hoberen dagokion garapen-eredua orientatzean, etorkizunari begira, geure burua zenbait bidez hornitzeko alternatiba besterik ez da.

Ikuspuntu horretatik, ekologi faktorea —hau da, elkarren osagarritasun eta menpekotasunezko harremanak izateko era— politika ekonomiko eta soziala praktikan jartzean ere kontutan hartu behar da.

Nazioa eraikitzeke proiektu honen lokarria kultura da. Enpresa transnazio-nalen bitartez igortzen den informazioa, geroz eta indar handiagoz, indar-jarreraz eta norabide bakarrean hedatzen da: honek, botere-taldeek ikus-puntua agertu eta eraso kulturalaren mugak urratzen ditu. Informazio eta programen produkzioaren monopolioa, geroz eta baztertzailago dela eta herriaren aldetik kontrol gutxiago daukala, Nazioarteko Ordenu Berria gara dadin lagungarri da.

Beraz, garbi dago botere-gune handien informazio- eta kultur erasoaldiak geldiarazteko eta euskal gizartearen informazio- eta kultur gaitasuna garatzeko beharrezkoak diren lanabes eta kontrolei aurre egin behar zaiela EESEtik.

Herri kulturak eta euskarak are eta birtualtasun handiagoa hartzen dute, planteatzen ari garen garapen-eredua egituratu eta homogeno bihurtzeko elementu diren aldetik.

Planteatzen ari garen kulturazko aukera hau eraginkor eta iraunkor bihurtu-ko bada, bitarteko asko eduki beharko genituzke eskuera: eskola nazionala, eragile sozialen partaidetza eta kontrola duen komunikazio-sistema publi-koa, informazioaren euskarrien erabileran dibertsifikatuta legokeen norabi-de anitzeko komunikazio-sistema nazionala e.a. sortzea, besteak beste.

2.2.3. Enplegua, elkartasunezko etorkizun egonkorra

a) Testuingurua

Enplegua sortzea bihurtu da Euskal Herrian produkzio-sistemaren arazo nagusia. Sistema hau mugatzen duten koordenadek ez dute ahalbideratzen egungo langabezi egoera gainditzea eta, bestetik, produktibitate edo teknologiararen garapenaren inguruko ekimenak, bere alde, langabezi eta preka-rietate-mota bihurtzen dira.

Enpleguari dagokionean, patronalaren eta PSOE, UPN, PNV edo EA bezala-ko alderdien jarrerak, neoliberalismo ortodoxoaren mugen barnean dirau: enpresak lehiakor bihurtzeko, kostu laboralak murriztu behar dira, patrona-lak etekinak atera ditzen, geroago etekin hauek inbertitu eta enplegua sort-zeko —omen—.

Politika sinplista honek funtzionatu izan du bete-betean 74ko krisialdiaz

geroztik, porrota besterik jaso ez duen arren. Politika hori aplikatzeagatik sortu den geldiketa soziala eragozten ari da bertatik irtetea, ez bada bikoizketa sozial, desberdinkeria, segurantzi ez eta istiluak zeharkatuz, hitz batez.

Enpresariaren patrikara begira, produktibitate-printzipioetan irautea arazo eta premia sozialen aurrean itsuarenak egitea, bertako eskakizuna itotzea eta bertako garapen ekonomikoak gaindituko ez duen orma altzatzea da.

Aurrekoaren ondorioz, patronalak eta alderdi politiko gehienek nahita nahasten dituzte lan-banaketa eta soldata-banaketa. Horrela sinets genezake, inozo hauek, langabezia euskal langileriaren arazo berezia dela eta ez, ordea, zentzugabekeria defendatzen duten sistemaren hutsegite estrukturala.

Enplegu-sorrera den erronkari aurre egin behar zaio, ezin-bestez eta errotik, lan-merkatu iristeko ezintasunak sortutako gizarte-bikoizketa arinduko duten larrialdiko neurriak hartuz.

b) Lanabesak

Nafarroan eta EAEn Enpleguaren Institutua eskuratzeko premia planteatzen dugu: honelakoetan (Inem-ekoak izan edo beste edozein organismoetakoak izan), dauden baliabide publikoak biltzea, osotasunezko perspektibatik lan-merkatuan bitartekaritza praktikan ipin dadin.

Era berean, behin-behineko lan-enpresak suntsitzea eta, udalerrri nahiz eskualde mailako garapena indartzen duten ekimenak bilatzea eta bitartekaritza deszentralizatzea proposatzen dugu.

Egoera sozio-ekonomikoaren larritasunak eta, honi erantzuna eman diezaioten, euskal instituzioak beharrezko lanabesez hornitzeko borondate politikorik ez izateak agintzen digu DESOBEDIENTZIA ZIBILEZ ERANTZUTEKO BEHARRA, Hego Euskal Heritik ordaintzen ditugun kuotekin osatuko den enplegu-fondo estrukturala sortzeko: enplegu-sorrera, jardunaldiaren murrizketa eta lan-banakuntzako politikak finantzatzeko helburua izango lukeen fondo hau enpresariak, eragile sindikalek eta Administrazioak kontrolatuko lukete.

Oraintxe da garaia jarrera aktibo eta erasotzaileetara igarotzeko, Hego Euskal Herriko gehiengo sindikal eta politikoak mantentzen dituen jarrerekin koherentziaz jokatzeko.

c) Neurriak

Enpleguaren sorrerak, halaber, politika ekonomikoaren norabide aldaketa eta gure produkzio-ehunaren garapen eta dibertsifikazioa eskatzen du, eragile sozialekin negoziatu beharreko urte anitzeko planen bitartez, hauetan inbertsio publiko eta pribatuak bil daitezten moduz.

Enpleguaren sorrerak produkzio-ehuna eta, bereziki, industri ehuna garatzeko politika aktiboak martxan jartzea eskatzen du. Gaurrengungo industrializazioaren testuinguruan, industri ehunaren garapenerako jarraipideak bete ahal izan daitezten, sektore publikoak sostengu-politika aktiboak jarri behar ditu praktikan alor askotan, hala nola azpiegiturak, I+D (ikerkuntza gehi garapena), instalakuntza berriak ipintzeko lurzorua gestioa, teknologiarren berrikuntza, enpresa txiki eta ertainaren garapena, udalerrri eta eskualde mailako ekonomiak berriro dimentsionatzea, e.a.

Egonkor eta sozialki produktiboa izango den enpleguaren aldeko borroka atzeraezineko aldakuntza estrukturalak sortarazi behar ditu lan-harremanetan. Enpleguaren banakuntza eta lan-malgutasun handiagoa lotu nahi dituzten pentsamolde politiko-ekonomikoei aurre eginez, LABen iritziz, %23ko langabezia daukan Hego Euskal Herri honetan lan-jardunaldiaren erabateko murrizketa eta aparteko orduen kentzearekin bakarrik zabalduko dizkio ateak egiazko enpleguaren banaketari.

Kontu hauen inguruko esku hartzeari esker, lan-indarra baloratu eta 1974 urteaz geroztik (sistema kapitalistaren krisialdi luze honen hasieratik, alegia) nozitu dituen presio jasanezinetatik atera dezakegu.

Enpleguaren banakuntzari dagokion ekimen sindikala, lan-harremanen aberastasun eta demokratizazioak garantizatzen dute Euskal Langileriaren Mugimendua justiziazko eta elkartasunezko gizarte berriaren funtsezko sujetua izango dela. Horregatik, LABek lan eta aberastasunen banaketari buruzko eztabaidari ekingo dio, gaur egungo dinamika hautsiko duten irtenbide berriak eta bereak ekarriaz... Langileriak protagonismoa erakutsi behar duen koordinada ekonomiko-sozialetan errotiko aldaketa egingo dela gizartean agertzeko bidea da hau.

Lan-harremanen demokratizazioa, politika ekonomikoek agintzen dituzten erabaki politikoetan dagoen partaidetza sindikalaren proportziozkoa da. Aginkeria, "dekretazioa", Langileen Estatutuaren aldebakarreko aldakuntza sustraitik aldatzea da, ko-gestio sindikalean, etekinen banakuntzan, enpresetako inbertsio, lan eta merkataritza-politiketan oinarritutako dinamika laboral demokratikora igarotzea da kontua.

Lan-indarra koalifikatzean eta produkzio-ehunaren dibertsifikazioan ere egundoko garrantzia dauka lanbide heziketaren betekizunak. Demokratikoki gestionatua, sozialki erabilgarria eta harreman sozial zabal, aberasgarri eta asebetetzekoak dituen enpresa-ereduan bere ahalbide guztiak garatzeko gauza diren pertsonak sortuko dituen lanbide heziketa lortu behar dugu.

2.2.4. Lurralde-antolamendua

Egungo politika konstituzional-estatutarioak Hego Euskal Herriko errealitate soziala hautsi egiten du eta Euskal Gune Sozio-Ekonomikoaren garapenean bilduko diren lurraldearteko antolamenduzko neurriak hartzera behartzen gaitu.

Gure helburua: Hego Euskal Herrian, eskuduntza legislatibo osoak eta hauek praktikan jartzeko beharrezkoak diren lanabesak eskuratzea. Helburu hauek lortzeko bidea: egungo egoera politikoa desblokeatzearen alde egina dugun apustua eta geure subirautea nazionala eskuratzea.

LABen ekinbide sindikala ezin daiteke geldirik egon negoziazio politikoari dagozkion urratsak eman arte; gure eguneroko lanak, indar-metaketarako beharrezko politika eta Hego Euskal Herriko lurraldeak biltzeko garapenereduen egiazko oinarriak sendotzeko premiak behartzen gaitu ezinbestekoak diren ekimen sindikal, sozial edo instituzionalak praktikara eramatera, Herrialde bakoitzean, EAEn eta Nafarroan, eskuhartze sindikal eta konbergentea gauzatzeko, errealitate estatala desgastatzeko eta euskal errealitatea finkatzeko gauza izan gaitezten.

Estatu espainol eta frantsesaren erabakien menpean dagoela, Euskal Herriaren egungo errealitateak behartzen gaitu lurraldetasun arazoa larrialdiko lehentasunez jorra dezagun. Euskal Gune Sozio-Ekonomikoak, berarekin batera doazen dinamika demokratikoei eta errealitate politiko eta ekonomikoa aldatzeko ahaleginak euskal esparru osoan lurraldearteko harremanak sartzera bultzatzen gaitu.

Muga egiten duten eskualdeen arteko harremanei Europar Batasunak ematen dizkien aukera eskasak behartzen gaituzte berehalako etorkizunean harremanetarako ekimenak har ditzagun alor ekonomiko, sozial, politiko eta sindikalean Ipar Euskal Herriarekin. Harreman hauek lehentasun osoz eraiki behar ditugu, Ipar eta Hego Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanek eskaintzen duten aukera hauek ez dituzten herrialdearteko bestelako harremanen aurretik.

Kontu hauei buruzko azterketa eta kontsultako batzordeek, organismo, instituzio, elkarte eta mugimendu sozialen bitarteko lotura instituzionalek, elkarren menpekotasun eta elkarrengana biltzeko sistema osatuz jardun behar dute.

Gure borrokaren helburu den eredu sozial eta ekonomikoa osotasun eta orokortasunezkoa da, deszentralizatua, pertsona eta udalerrri nahiz eskualde mailako erakundearen gaitasun eta ekimenei zabaldua. Eredua, beraz, egokia da udalerrri nahiz eskualde mailako euskal bereiztasunak biltzeko, konbergentziazko perspektibatik eta inongo lurralderen nagusitasun edo ezarpenik gabea.

2.2.5. Gizarte-antolamendua

Gizarte-antolamenduaren lehen alderdia, LAB bezalako sindikatu batentzat, Euskal Langileriaren Mugimenduaren antolamendua lortzea da, gure ekinbide sindikalak politika ekonomiko, laboral eta sozialean egin nahi duen aldakuntzaren barruan. Alor honetan, gure ekinbide sindikalak, produkzio-ehunaren barruan eta kanpoan sakabanatutako klase-segmentuen lotura eta borrokarako lanabes izateaaz dihardu.

Beraz, emakume langilearen protagonismoak garapen eta hedakuntza sozialerako bideak bilatu behar ditu sindikatuan. Lan-merkatu kapitalistan dabilzan emakumeek eta sistemak aintzat hartzen ez dituen sektoreetan dabilzanek, prekarietatea jasaten dutenek, ezkutuko ekonomian edo etxeko lanetan dabilzanek, denek LAB daukate tresna egokia bere borroka koordinatu eta sozializatzeke eta, gainera, Euskal Langileriaren Mugimendu osoak bereganatzen dezan.

Lan-merkatutik geroz eta aldi luzeagotan baztertuak dauden gazteek, bere gaitasun pertsonal eta sozialari dagokienean, alferrikako hutsaldiak jasan behar dituztenek, etorkizunari begira, gizartea aldatzeko beharrezkoa duten erreferentzia da horientzat sindikatua.

Langabetuek, prekarietatea, ezkutuko ekonomia, esplotazioa, auto-esplotazioa, ezintasun fisiko edo psikikoengatik bazterkuntza jasaten duten pertsonak LAB dute lanabes egokia, beren borroka eta gainontzeko langileena bat etorri eta eraginkorrak izan daitezen.

Langunearen demokartziaziorako bidean kontutan hartu behar dugu pertsonen sexua, beren jatorria, beren sexu aukera edo eta nagusi diren eskekin bat ez datozen jokaerak, baztertze-arrazoiak izaten direla, eta bai ugazabak, bai langileak, horren egileak dira. LABen egin-beharra, elementu hauek langileak mailetan sailkatzeko zioa izateari utzi diezaioten datza, eta gertatu daitekeen bereizketari aurre egitean.

Politika sozial eta laboralaren inguruan planteatutako ildoak, lan-jardunaldiaren murrizketa eta aberastasun eta lanaren banakuntza, zentzu guztietan, Euskal Langileariaren Mugimenduaren oinarritzko premiak dira, hain zuzen ere, ELMaren sektore sakabanatu guzti-guztietan lan-fronteak bateratzeko erreibindikazio helburu zehatzak direlako.

EBAZPENAK

LAN HARREMANETAKO EUSKAL ESPARRUA

LEHEN EBAZPENA. -Lan-erreformari eman beharreko erantzunak geure ekinbide sindikalaren funtsezko zutabea izan behar du. Botere sindikaleko, erreferentzialtasun sindikaleko esparruak irabazi behar ditu LABek, prekarietatearen (BLE = ETT, aparteko lanorduak, kontratazio mota askotatik sortutako lan-baldintzak, e.a.) kontrako ekinbide koherente eta osotasunezkoaren ondorioz, nego-ziazio kolektiboaren eta eguneroko eskuhartzearen testuinguruan.

Gizartearen sektorerik zigortuenen aurrean sindikalismoak —LABek bereziki— erdietsi behar duen erreferentzialtasuna kutsatzen duten inertziak eta jokamoldeak HAUTSI behar ditugu, kosta ahala kosta, lan-erreforma eta egoera sozio-ekonomikoaren erantzunez praktikan jarriko dugun ekinbide sindikalaren koherentziaz.

BIGARREN EBAZPENA. -Euskal langileriaren interesak defendatuko dituen sindikalismoak eskuhartze eraginkorra izan dezan, beharrezkoa den Lan-harremanetarako eta Babespen Sozialeko Euskal Esparruaren egituraketarako bidea ixten digu egungo marko juridikoak. Beraz, ekinbide sindikalaren faktore iraunkorra da gai laboral eta sozialetan eskuduntza legislatiboak eskatzea: honetan jardun-ahala presio-mailak ere progresiboak izango dira. Otsailaren 19a ezin gera daiteke esparru historikotzat bakarrik: Estatu espainol eta instituzio autonomikoen jarreraren aurkako eraso areagotu egin behar dugu.

Negoziatio kolektiboa ezin bihur daiteke LHEG bat lortzeko bide bakarra, maila legislatiboan euskal langileoi Madrilek ezartzen dizkigun neurri estrukturaleri erantzuteko gai ez izateagatik. Horren gainean lan-harremanetarako euskal esparrurantz abiatzeko estrategia egiteko saiakerak iruzur teorikoa eta, ikusi den bezala, porrot praktikoa izan dira.

HIRUGARREN EBAZPENA. -Finantza baliabideak bildu, gestionatu eta administratzeko esku-duntzarekin, kaxa autonomoaren printzipioari lotutako Gizarte Segurantzako Euskal Institutua exigitzen duen bitartean, "Toledoko Itunetik" ezarri nahi diren saiakera aldatzaileei erantzu-

na emango die LAB sindikatuak. Aldakuntza horren oinarrian, murrizketa sozial handiagoak eta —finantza-kapitalari erabilera espekulatzaila ematearren— osagarritzko bide pribatuen bultzada daude. Gizarte-Segurantza Publiko baten Babesean burutu beharreko strategiari buruz, Batzar Nazionalak zioena gurea egiten dugu. Han, besteak beste, Gizarte-Segurantzako ereduaz eztabaida prozesu bat zabaltzeari ekiten zaio.

LAUGARREN EBAZPENA. *Negoiazio Kolektiboari sakoneko berrikuntza egin behar zaio, ekinbide sindikalaren esparru, edukin eta dinamikei dagokienean. Sindikalismoak jasaten dituen inertzia antzuei erantzun behar zaie ekinbide sindikalean jarduteko konpromezu garbiarekin eta egiaztapen honekin: negoziazio kolektiboa ezin izan daiteke indarrean dagoen erritualismoaren arabera; alderantziz, enpresarien eta Administrazioaren aurrean garaitzapenak gauzatu eta botere sindikalean aurrera egiteko izango dugun jarrera erabakiorraren tamainakoa baizik. Horrek behartzen gaitu geure burua egoki prestatzeko barne-mekanika martxan jartzera eta, batez ere, borrokarako prest egotera.*

EUSKAL ESPARRU SOZIO-EKONOMIKOA

LEHEN EBAZPENA. *Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa egituratu ahal izateko, kohesioa eta jarraipena emango dioten neurri ekonomikoak eta politika sozial eta laboralak martxan jarri ahal izateko eskuduntza legislatibo osoak eduki behar dira. Bestela esateko, langileria den gehiengo sozialaren erreibindikazioei erantzun ahal izateko, Subirautza premia gorrikoa da gai sozio-ekonomikoetan. Beraz, gizartea antolatzeke eta lotzeko ezinbesteko faktoretzat agertzen da.*

BIGARREN EBAZPENA. *Enplegu egonkor eta sozialki aberasgarria sortzea izango da LABen ekinbide sindikalaren lehentasunetako bat. Enplegua malgutasunarekin eta lehiakortasunarekin lotzen duten jokamolde neoliberalen kontra, euskal mugimendu sindikalak ahaleginak batu behar ditu %25eko langabeziari aurre egiteko, ekimen industrialak izanik, lan-merkatuan bitartekaritza eramateko lanabes egokiak exigituta eta enplegu eta aberastasunaren banakuntza delako binomioaren inguruan, erabakiak hartuta.*

Izaera orokorrez eta eskuramen-galerik izan gabe lan-jardunaldia murrizteak, beste neurri batzuen artean, datozen urteotako sindikalgintzaren ekinbideak izan behar du ipar-izarra, garaitza hori ez dadin bihurtu alferrikako gertakari sinboliko, negoziazio kolektiboaren bitartez.

HIRUGARREN EBAZPENA. *Euskal Herriko egoera sozial eta ekonomikoari buruzko azterketa jorratuko duen URTEKO FOROA sortzea proposatu nahi die LABek eragile sozial eta ekonomikoiei. Errealitate honetako zatikako edota koordinatu gabeko azterketak egin ez daitezten, egoera ekonomiko eta sozialaren PERSPEKTIBA NAZIOANALA izateko premia jasaten dugu Euskal Eraikuntza Nazionala bultzatzen dugun sektore ekonomiko, politiko, sindikal eta sozial guztiok. Eragile sozial, ekonomiko eta sindikalen partaidetzaz osatuko litzatekeen FORO hori, Euskal Herria zatikaturik daukaten instituzio politikoetatik kanpo legoke eta, hala balegokio, Euskal Nazioaren Eraikuntza gorpuzteko helburuz, batera eramateko lan-ildoak elkarlotzeko eskuduntza izango luke. Gonbaraketak egin nahi izan gabe ere, urratsak eman behar genituzke FORO hori egiazko EUSKAL KONTSEILU EKONOMIKO ETA SOZIAL bihurtzeko. Alor honetan, Sindikatuko zuzendaritzari eskatzen zaio ideia hau borobil dezan, planteamendu honekin bat datozen edo interesatuta dauden beste erakundeekin batera.*

Es

EKINBIDE
SINDIKALA
GIZARTEAREN
ALDAKUNTZA
LORTZEKO

42

E **S**

Ebazpena

SARRERA

Lehenago esandako ekinbide sindikaleko ildoak eta hausnarketak praktikan jarri ahal izateko, LABek maila guztietan planteatzen dituen helburuetan aurrerapausuak eman ditzagun, dinamika zuzentzaileak elkarlotu behar dira.

Sindikalismoaren ahulezia orokorrari buruzko gogoetan autokritikarako tarte bat egin behar da, euskal langileriak bizi duen egungo testuinguru politiko eta ekonomikoan LAB erakundearen betekizuna egokiro kokatu eta inertiak zuzendu ahal izateko.

Euskal Herriko egoera sozial eta ekonomiko larriak behar dituen erantzun-mailak eman ahal izateko osotasunezko ekinbide oldarkor eta erreferentzia-lean kokatu behar dira produkzio-ehunean LABek daukan hedapena eta eskuratu ahal ditzakegun gaitasun berriak.

Ekinbide sindikaleko koherentzia teoriko-praktikoa, konpromezu indibidual eta kolektiboan maila altuagoak hartzeko bultzada eta inertzia gorporatibo eta —batzuetan— burokratikoak gainditzea izango dira gure ekinbide sindikal osoa berrikusteko jarraipide nagusiak.

3.1. SINDIKALISMOA, GIZARTEAREN ALDAKUNTZAREN SUJETU

Mende honen amaieran ekinbide sindikalari zabaltzen zaizkion perspektibek adierazten dute euskal langileok, gauzagarria eta beharrezkoa den Nazioa Eraikitzeako proiektuaren barruan, gizartea aldatzeko eskuhartze-programa daukagula.

Euskal Langileriaren Mugimenduak gaurregun dauzkan arazoei erantzuna eman ahal izateko, gure ekinbide sindikala gardena da izaeraz, gure ibilbide sindikalaren emaitza eta euskal langileengan eragina duen errealitate ekonomiko, politiko eta sozialaren azterketaren fruitu.

LABen izaera sozio-politiko berretsi egiten da ekinbide sindikalarren lehentasunezko helburutzat Euskal Nazioaren Eraikuntza eta hau bidegarri bihurtzen duten oinarri demokratikoak lortzeko beharrezkoak diren borroka-mota guztien bategitea onartuz.

Kapitalismoak ezarritako metaketa-ereduaren ondoriozko politikari beste norabide bat eman dakion eskatzen du LABek, euskal herritartasunari dagozkion subirautea politiko eta ongizate-egoerara iristeko ahalmen osoan, elkartasunean, enplegu-sorreran, geure gaitasunak garatzeari dagozkion lehentasunezko jardueran eta, euskal gizarte osoaren eskakizunak ase daitezen, produkzio-ehunaren eraginkortasunean oinarritutako irtenbidea planteatzen dugularik.

Nazioa eraikitze borroka eta gizartea aldatzeko borroka proiektu

bakar batean elkartzeak, hain zuzen, Euskal Langileriaren Mugimenduari ematen dio Euskal Nazioaren Eraikuntzaren garapenari dagokion eskuduntza osoa, lurraldez integratutako eta sozialki antolatutako osotasunezko ikuspuntutik.

Garapen demokratikoko ereduaren aldeko apustua egitearen bitartez, euskal langileok bihurtzen gara gizarte honetako zatirik aktiboena, euskal gizarte osoarentzat proiektu sozial bategile eta suspertzailea bultzatzen dugulako.

Datozen urteotan egin nahi dugun lana, funtsez, hau da: bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko aldakuntza ekarriko duen borroka eraginkor eta koordinatua garatzeko beharrezkoak diren lanabesak, Euskal Langileriaren Mugimenduko sektore guztiek LABen aurki ditzaten moduko proiektu sindikala.

Emakumeek, langabetuek, gazteek, ekonomia sozialeko langileek, esplotazioa, auto-esplotazioa, ezintasun fisiko edo psikikoengatik lan-merkatutik baztertuak izan direnek, arraza edo jatorriagatik lanetik baztertuak, LAB dute borrokarako lanabes egokia ezarritako errealitatea iraultzeko eta politika ekonomiko, sozial eta laboralean onartuko diren erabakiak baldintzatuzeko.

Langile-kopuru eta produkzio-mailan daukan garrantziagatik Ekonomia Sozialari (kooperatibak, S.A.L. motako elkarteak) koiunturaltasunez eta boluntarismoaz gainera erantzuna eman behar zaio. Kooperatiba munduan sortu diren aldakuntza sakonak, S.A.L.en bilakaera eta koordinazioek, besteak beste, sektore honetan premia gorritz, plangintzaz serio baina bizkor esku har dezagun eskatzen digute. Are gehiago, enpresa pribatuan suntsitu nahi ditugun faktore batzuk ekonomia sozialean nabarmen txertatzen ari diren honetan: subkontratazioa, prekarietatea, e.a.

Testuinguru sozio-ekonomiko honetan sujetu sozial aktibo bihurtu dadin, sindikatuaren oinarrizko erreibindikazio-ildoak, lanaren eta aberastatunaren banakuntza bihurtu da (lan-jardunaldiaren murrizketa, enplegua banatzeko neurriak, langabezia eta babespenik ezaren kontrako babes sozialeko politikak, enpresetako iruzur fiskalaren aurkako borroka, e.a.).

3.2. SINDIKALISMOAK ESKU HARTU ETA ANTOLATZEKO ESPARRU BERRIAK

Aurkezturiko gogoetek, erakunde guztiak koherentziazko norabidea eta praktika sindikala martxan jartzera behartzen gaituzte.

Langileriaren hainbat sektoretan bultzatu behar ditugun ekimenak —antolakuntza eta bizkortze-lanei dagokiela— erakunde osoaren arduraren eta ekinbide sindikalean integratu behar ditugu.

Honela bada, LAB erakundeko militantzia sindikal osoak onartu

behar du antolakuntzari buruzko txostenean planteatuko diren egiturak eta areak garatzeko lana beregain hartuko duela. Azken Kongresutik sorturiko inertzia zuzendu beharra dago, hau da, langileriaren zatiketaren erantzun gisa esparru batzuetan sortu beharreko antolamendu eta eskuhartzezko ekimenetatik sindikatua urrundu izana.

LABek ezin du sortu dinamika estankorik edo, gogoeta eta erantzunari dagokionean, joera hori agertzen duen dinamikarik. Aitzitik, eskuhartzeke errealitate berri hauetan (LAB Gazteak, LAB Emakumeak, LAB Langabetuak) berarizko antolabideak bultzatuz, area horietako problematikak, garatu beharreko osotasunezko ekinbide sindikalean txertatu behar ditu. Langileriaren bestelako sektoreen dinamika eta eskakizunekin, enpresetako langileen kezka eta erreibindikazioak elkartzeko ahaleginak egin behar ditu Sindikatuak. Desagertu behar dugun desantolamendu eta bazterkuntzazko errealitatearen aurrean, integrazio horrek sindikatuaren funtzionaltasunaren balorizazio progresiboa sortuko du, pixkanaka.

LABeko maila lokaleko egiturak ekinbide sindikaleko osotasunezko maila hori tinkotu behar du, eremu honetan dauden arazoei (gatazkak, langabezia, prekarietatea, zapalkuntza, diskriminazioak, proposamen sozio-ekonomikoak, ekologia alorreko kezka, e.a.) erantzuna emateko, enpresa eta gizarterantz bultzatu beharreko ekimenak jorratuz eta bizkortuz.

3.3. EGINBIDE SINDIKALA ENPRESETAN

LABen ekinbide sindikalak Euskal Herriko enpresa guztietan ekimena berreskuratu behar du.

Enpresan, ekinbide sindikalean aurrera egiteak esan nahi du lan-harremanetan aldakuntza estrukturalen sorrera bultzatzea. Gaurregun, negoziazioak, politika sozial, ekonomiko eta laborala goitik aldatzerik ez dago, enpresetan edo administrazio publikoan koherentziazko ekinbide sindikalik garatu gabe.

Boterearen mekanismo politikoen zerbitzutako irizpide administratibistekin nahasi gabe, partaidetza eta kontrol sozialarekin loturiko berarizko tajuera egituratu behar du euskal sindikalismoak alor publikoan, bere ekinbide sindikalaren bitartez.

Geroz eta pertsona gehiagoren lepotik, geroz eta pertsona gutxiagoren mesedetakoak diren joera sozialen garapena eragozteko borrokaren lehen barrikadatzat agertzen da lantegiko ekinbide sindikala. Lan-indarraren etengabeko debaluazioaren kontra eta langileen lan- eta osasun-baldintzen okertzearen aurka, erabateko erantzunak ematea da gure proposamena.

Lantegiko borroka sindikalaren bitartez, enpleguaren banakuntzari dagozkion ekimen osagarriak garatu ahal izango ditugu: gehiegizko jardunaldiak, BLEen bidez kontratatzea, adin edo sexuagatik soldaten arteko des-

mailak gertatzea, sindikalismoak jasaten duen negoziazio-ahalmenaren galera areagotzea, enpresariaren alde errentak banatzea... eta antzeko fenomenoak suntsitzeko.

Azken urteotan, lan-harremanen erreformak ezarri zaizkigularik, enpresen baitako eskuhartze sindikalean atzerakada galanta egin dugu, gauza batekin konturatu gabe: enpresak ez dituela merkagaiak bakarrik ekoizten, enpresak esplotazio kapitalistaren oinarriak ugaltu eta enpresariak eta langileak ere ugaltu egiten ditu. Gure jardueran nozitu dugun defizit horrek, ekinbide sindikalean hutsune bat utzi du eta hau berehala bete dute produktibitatearen, malgutasunaren eta mugikortasun geografiko eta funtzionalaren aldeko jarrera neoliberalet.

Enpresaren baitako ekinbide sindikalaren berpizkundeak hurrengo oinarriak izan behar ditu:

a) Enpresaren barruan LABen ekinbide sindikala sekzio sindikalak eztabaidatu, erabaki eta betearazten du; beraz, sekzio sindikala da ekinbide horren erdigunea. Gobernuak ezarritako neurri laboral eta sozialen aurrean mugimendu sindikalak agertu duen ahuleziaren ondorio da ekinbide sindikaleko lanabes horiek bertan behera uztea. Sekzio sindikal bakoitzak gauza izan behar du LABen ekinbide sindikaleko ildoak kudeatzeko, lantegi bakoitzeko baldintza bereziak gogoan harturik.

b) Ekinbide sindikalaren osagarritzko eta ezinbesteko elementutzat hartuta, antolakuntza garatzearen bitartez ekinbide sindikalak eskaintzen dituen aukera guztiak praktikan jartzea, lurralde eta sektore-dinamiken inguruan.

c) Afiliazio-politika egiazkoa, bi zentzutan: trebakuntza eta komunikaziorako mekanismoen bitartez afiliatuekiko harremanak areagotzea eta, bestetik, afiliazio-dinamiken iraupenaren bitartez, langileen artean sindikatuaren zabalkuntza bultzatzea. Dinamika horiek, LABen ekinbide sindikala praktikatzeari dagokionean, indar-metaketa jarraia erraztu behar dute. Alor honetan zehaztaperen bat egingo dugu: inplikazio eta motibazio-dinamikak bultzatzea, militantzia sindikala borrokarako, nazioaren eraikuntzarako eta gizartea aldatzeko elementutzat sentitzeko; militantzia sindikala lantresna sortzaile, motibatzaile eta ezinbestekotzat sentitzeko, langileen jarduera laboral eta pertsonalean.

d) Bultzatzen ari garen ekinbide sindikal eta sozialeko ereduaren osakide estrategikoa den neurrian, partaidetzazko dinamikak praktikan jartzea eskatzen du egin nahi dugun sindikatuak. Ekinbide sindikalaren ordezkarietzako antolamenduaren bitartez herrestan ekarritako delegazionismozko politika sindikatuaren bitartez deuseztatzea eskatzen du eta, trebakuntzan, antolamenduaren garapenean eta ekinbide sindikalaren tajueran, norik bere ardura har dezan eskatzen du.

e) Konbergentziarako eta ekinbide sindikala garatzeko esparru amankomuntzat, enpresa-batzordeak bultzatuko ditugu; bide beretik, langileen batzarren bitartez, enpresako langile guztiek ekinbide sindikalean esku har dezaten bultzatuko dugu. Langileen batzarra berpiztuko bada, ekinbide sindikaleko mekanismo egoki eta iraunkorrak eman behar zaizkio, oraingo hondamenditik irten dadin.

Azkenik, egoera sozio-ekonomikoaren larritasun honek, euskal

► [Sekzio
sindikala bakoitzak gauza
izan behar du LABen
ekinbide sindikaleko ildoak
administratzeko, lantegi
bakoitzeko dinamika
sindikala planifikatu eta
zorroztu]

produkzio-ehunaren etengabeko hondamenaren kontra larrialdizko erreakzioa izan dezagun eskatzen digu. Nazioa eraikitzeko proiektua bideragarria izango da, bizirik irautea utziko dion oinarri ekonomikoa dagoen bitartean. Horretan, produkzio-ehunaren suntsiketa, dagoeneko jasanezin bihurtu den lanpostuen galera baino larriagoa da. Produkzio-ehunaren suntsiketa Sindikatu osoaren arazoa da eta kasuan kasuko larritasunaren arabera erantzuna eman behar zaio. Sindikatuaren egiturek ezin dituzte bertan behe-ra utzi enplegu eta produkzio-ehunaren suntsiketa jasaten duten langileak.

**Nazioa eraiki eta
gizartea aldatu
E K I N B I D E A**

3.4. EUSKAL LANGILERIAREN MUGIMENDUA ETA BERE ERREIBINDIKAZIOAK, EUSKAL PROIEKTU NAZIONALEAN GIZARTEA ALDATZEKO IDEAN

Euskal gizarteak sortzen dituen dinamika sozialak bere sentitu behar ditu euskal sindikalismoak. Euskal Langileriaren Mugimenduak, ekinbide sindikaleko eredu honen bitartez —borroka guztien katalizatzailea bera delako—, gure nortasun nazionala, euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, Estatu espainolaren boterea azpizateko, intsumisioa bultzatzeko, partaidetzazko demokraziaren alde jarduteko, ekologiaren alde borrokatzeko, geure natur baliabideak zaintzeko... apustua egin behar du. Hitz batez, Euskal Herria datorren mendean independentzia eta sozialismoa lortzeko bidean ipiniko duen garapen sozialeko ereduaren aldeko borrokan partaide aktibo sentitu behar du bere burua Euskal Langileriaren Mugimenduak.

3.4.1. Ekinbide sindikala eta berreuskalduntzea

Euskal gizarteak euskara berpiztuko badu, lan-mundua euskalduntzeko langileek eta sindikatuek berarizko ahalegina egin beharko dute.

Lehenengo helburua Sindikatoaren barne harremanak eta militanteen artekoa euskalduntzea izango da, eta horretarako zera egingo da:

- EUSKERAK behar duen gunea lehen bait lehen bermatu beharko da. Tokian tokiko ezaugarriak gogoan hartuko dira, adibidez, herrialderena, toki-ko hizkuntz egoerarena, euskal hiztunen kopurua...

- Abiapuntua gure eguneroko lana egitea da, gure sindikal iharduera edo sindikalgintza burutzea alegia, badakigu erdaraz, BAINA EUSKARAZ MINTZATU, BADA GARAIA!

- Gure araudietako bigarren aurkezpenean aipatzen den bezala, euskarari dagokionez, azpi-euskalkiei buruzko ikerketa egin ondoren, bai sindikal sektoretatik, bai sektore egituretatik eta baita ere kontseilu nazionaletik urratsak egiten lagundu behar dugu.

▶ [Euskal
gizarteak euskara
berpiztuko badu, lan-
mundua
euskalduntzeko
langileek eta
sindikatuak berarizko
ahalegina egin
beharko dute]

KOMUNIKAPEN alorrean, bai barnekoa bai kanporakoa -Iraultzen, sektoreetako argitarapenak, sekzio sindikaletako aldizkariak, panfletoak, prentsa agerpen eta agiriak,.... euskararen presentzia zehaztu eta bermatu beharko da.

Kanpoko aldeari begira, eta lan administrazioa eta bereziki sozio-ekonomi mundua euskalduntzeko asmoz DINAMIKATZAILAEN lana egiten ihardun beharko dugu.

Hau guztia kontutan harturik, Idazkaritza Nazionalak, plangintzen bitartez, neurri jakin batzu gauzaten hasi beharko du.

Nazioaren Eraikuntza proiektuaren partaide diren heinean, LABeko militanteek eta afiliatuek Berreuskalduntzean eragileak izan behar dute, lantegietan ekinbide sindikaleko fronte bat zabalduz. Sekzio sindikal bakoitzak egin beharko du horretarako lan-plana, "euskara gaia" negoziazio kolektiboaren esparruko bazter batean era testimonialean bakarrik, ia alferrik, ager ez dadin.

Konfederazio mailan, euskal gizartean euskara zabaldu eta erabiltzea erraztuko duten ekimenak bultzatuko ditu LABek. Eta berean, lan-mundua euskalduntzeko helburua dela-eta, LAB partaide duten instituzioetara ekimenak eta proposamenak eramango ditu Sindikatuak.

3.4.2. Intsumisioa eta sindikalismoa

Armada espainol eta frantsesaren aurka intsumisio-jarrera erakutsiz euskal gazteek (langileak edota langileen semeak) daramaten borrokari sindikalismoak laguntza eman behar dio.

Gobernu espainola, aplikatzen dituen zapalkuntzazko neurrien artean, intsumisioagatiko zigorrezko neurriak lan-alorrera eramaten saiatzen ari da. Espainiako Kode Penal berriaren onesprenak sakondu egiten du bide honetan, intsumisio erreibindikazioaren eragin desegonkortzaileak arintzeko helburuz.

Sindikalismoak intsumisioari eta kontzientzi eragozpenari agertu dien elkartasuna inplikazio-jarrera aktiboagotara altxa behar da, borroka hau gazteen eskutan bakarrik gera ez dadin. Gizarte osoak —beraz, honetako partaide diren sindikatuek eta langileek— intsumisio gerra irabazteko, ahalegin, indar eta erantzunak batu behar ditugu.

Enpresako negoziazio kolektiboaren eta ekinbide sindikalaren esparruan, intsumisioaren kontrako neurri bete-erazleei erantzuna eman behar diegu, are gehiago langile gazteak prekarietate egoeran daudenean.

3.4.3. Euskal Eskola Nazionala

Gure nazio eraikuntza proiektuan eta gizarte harremanetarako eredu itxuratzean irakaskuntzak duen garrantzia, gure sindikatoak Euskal Nazioko hezkuntza-Sistemari ekitea eskatzen du, eta horren baitan Hezkuntz Zerbitzu Publikoari lehenetsuna ematen diogu.

Eraikitze nazionalaren proiektuak behar dituen hizkuntz eta kultur es-

▶ [Gizarte
osoak -beraz, honetako
partaide diren sindikatuek
eta langileek- intsumisio
gerra irabazteko,
ahalegin, indar eta
erantzunak batu behar
ditugu]

kakizunei erantzungo dien Euskal Hezkuntza-Sistema.

Indarrean dugun hezkuntza sistemari premiaz egin behar zaizkio egitura aldakuntzak, eta hezkuntza-politikari buruzko erabakietan oro har eta hezkuntza-proiektuan eragindako eta doakien gizarte sektoreen erabateko partaidetza sustatzeko modukoa, euskal hezkuntza-administrazioen erabateko eskuduntzaren adierazkide den subirautea politikoa praktikan ipintzea suposatzen du.

Ildo berean bertako irakasleagoa sortzea eta gorpuztea eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua sortzea sindikal ihardueren helburu estrategikoak dira. Lehen esandakoaren ondorioz, sindikatoak helburu horien inguruan ekintza sindikal espezifikoa lantzeari ekin behar dio.

3.4.5. Osasun Sistema Publikoa

Osasun-arreta esparru ekonomiko-laboralekin (produktibo eta ez-produktiboekin) dago lotuta; honela, maiz askotan, herri baten garapen sozio-ekonomikoa zehazteko unean, osasun-adierazleak ere kontsultatzen dira. Hörtaz, osasunaz aritzea kulturaz, ekonomiaz, politikaz... aritzea da.

Osasun-sistemari buruz hartuko diren neurriek, garbi dago, edozein izaeratakoak direla ere, gizarte osoarengan eta, bereziki, langileengan, izango dute eragina.

Perspektiba ezkertiar batetik kapitalismo aurreratuko teknokratek egindako azterketek ez dute balio baina, halaz ere, osasuna lehen mailako ondasuntzat hartzen duen gizarte aldakor honetan, osasun-sistemak aldakuntzak nozitu behar ditu.

Gure Sindikatuak arazo hauetan esku hartu behar du, ez bakarrik sektorean eragin sindikala izatearren, problematika honek daukan erabateko eragin sozio-ekonomikoagatik baizik. LABen eskuhartzeak, osasun-sistema publikoaren defentsaz eta bultzadaz jardun behar du, bai finantzaketari dagokionean, bai osasun-zerbitzuen hornidurari dagokionean ere, berdintasuna, kalitatea, eta eraginkortasun teknikoa eta soziala garantizatzen duen lanabesa delako.

Euskal osasun-sistema publikoa, bertan langileek eta erabiltzaileek osasun-politikaren tajueran parte hartzen dutelarik. Aurrikuspenean eta lurraldez lurraldeko berarizko errealitateetan oinarritua, deszentralizatua eta euskal gizarte osoaren zerbitzutakoa.

3.4.5. Lanean Osasuna

Gure eguneroko ihardunaren eta helburuen ardatza, langileok lanpostuetan ez dezagun OSASUNA gal eta ekoizpen edo zerbitzu bilakaerek ez dezaten gure INGURUGIROA arriskuan jar, borrokatzean datza.

Gure esku-hartzeak, gure inguru naturalari egiten zaizkion erasoak direla eta, lan baldintzak eta bakarka eta taldeka ere jasaten den osasun galtzearen arteko harremanen egiztapenagatik hasi behar du.

Praktikan, gure osasunaren erabateko defentsaren onarpenak gure esku hartze sindikala balio-berrituko du eta giza hazkundearen eredua finkatzen jarraitzea lortuko du.

3.4.6. "Lanaren" berkontzeptualizapena elkartasun gizartearantzako bidean.

LAB berez sindikato sozio-politikoak izanik, eraikuntza nazionala eta gizartearen aldaketa heburutzat duen asmoaren alde egiten du. Besteak beste, bi helburu horien alde borrokatzeak, giza harreman guztietan aitalen-gobernu-egitura duen elementu zanpatzailea suntsitzen ahalegintzea suposatzen du.

Aitalen-gobernuaren sistemak emakumearen zanpatze-oinarria, sexuaren arabera lan banaketa iraun-arazten du. Era berean, giza esparru guztietan ematen dela baieztaturik, azpimarratu behar dugu giza egitura guztian, bere erakunde oinarrikoenetik (familia, ezinbesteko sutabea bezala, eskola...) botereko azken tarteraino, sexuen arteko ezberdintasun printzipioa funtsezkoa dela.

Nazio Batuen Erakundearen ikerketa batek emakumearen ekoizpen ez "diru-bihurketatua" mundu osoaren %45ean kokatzen du. Familian sortzen den aberastasuna, "ekonomi osagarria" deritzanak sistema kapitalistari gastu maila txikiagoak izkutatzen laguntzen dio, berari esker zenbait gizarte-zerbitzu (haur, agure, gaisoentzako... laguntzak) murriztu edo kentzen bait dira.

Etxean lan egindako lanaldi osoa eta lan merkatuan burututako iharduera tasak kontutan harturik ondorengo azaltzen da: emakumezkoen %81,2a eta gizonezkoen %70,8ak ekoizpen lana egiten dute, %15ean emakumearen tasa handiagoa izanik. Ekoizpen iharduera tasak eskatu behar dira, hauetxek bait dira burutzen den lanaren nondik norakoa eta lan egiten dutenak erakusten digutenak.

Etxean burutzen den lana kontabilizatzeak emakumearen egoera soziala nahiz ekonomikoa hobetzen hasiko duen ondorioak ekarriko ditu, Balio Erantsi Gordinean sartzeko Gizarte Segurantzaren, jubilazio eta elbarritasun-pentsioak jasotzeko egin den lehenengo urratsa bait da. Era berean zerbitzu sozialtzat emakumeari ezartzen zaizkion iharduera asko ulertzeko balio dezake, ekoizpen ez formal edo ez funtsezko batetik funtsezko edo formal batera igarotzeko, lanpostuak sortzeko eta areagotzeko alegia. Azkenik, herri guztientzat benetako ongizate soziala lortzeko.

Lehen aipatu dugun moduan sexuaren eta etxeko zereginetan guztiz aritzeak lan merkatuan sartzeko ostoputzen edo ezintzen du, azpi-ekonomira urreratuz. Ponentzian azaltzen den bezala, 1.985. urtean azpi-ekonomian lan egiten zutenen %77a emakumezkoak ziren. Emakumeen izkutuko lana, funts ezan oinarritutako lan aktibo handiena bezala azaltzen da. Etxetik at azpi-ekonomietan lan egiten duten emakumeen portzentaia eta etxean era berean lan egiten dutenen kopurua batzen badugu baieztapen honen nondik norakoa ikus dezakegu.

Eragozpenekin jarraituaz, lan merkatuan sartzeko lortzen duten emakumeak, noizik behinkako eta ezinkotasun egoeran iharduten dira: inoizkako lana (kontrato mota hauetako %80a emakumezkoak dira), laguntza-eskubide-

mugatuak, lanpostu eta maila jakin batzuren debekapena (goikoak), soldata murrizagoak, errekonbertsioak eta kaleratzeak pairatzen dituzten lehenengoak, ezinezko promozioa, sexu erasoak.

Egoera honek sindikalgintza sozio-politikoari, LABeri alegia, iharduera berezia eskatzen dio, emakume langilearen bi errealitate gogoan hartu eta sakondu behar baitira: lan merkatutik kanpo kokatzen den emakumearena eta lan merkatu ofizialean lanpostua duen emakumearena.

**Nazioa eraihi eta
pizartea aldatu
E K I N B I D E A**

1. Eranskina. - Bere garrantziaz jabetzeko, herrialde garatueta badira ETNen (Nazio-osteko Enpresak) 100.000 bat enpresa elkarkide-laguntzazkoak direnak. ETNak zuzenki 65 miloi lagun baino gehiago enplegatzen ditu, 43 beren jatorrizko herrialdetan. Banko Mundialaren araueran mundu mailan merkatuaren %70a ETNek kudeatzen dute. Sektoreen esparrua aztertzen denean, ondorengo datoekin topatzen gara; bost ETNen artean labore edo bihiaren munduko merkatuaren %77a kontrolatzen dute, hiruk bananen %80a kontrolatzen dute, beste hiruk tearen %80a, hamalauk ibilgailuen %80a, eta 20k agrokimikaren %94a. GTTA edo Arantzel eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorren iritzi mundu mailako komertzioaren herena nazio-osteko korporazioen adar desberdinen arteko ondasun mugimenduaren ondorioz egiten dira. Gaur egun Nazio-osteko korporazioek munduko ekoiztutako ondasunen %33a baino gehiago kontrolatzen dute eta langileen %5ari baino ez diote lanarik ematen.

2. Eranskina. - 1.992. urteko Nazio Batuen Erakundearen Aurrerabide txostenak dioenez, munduko biztanleriaren %20 aberatsena diru-sarrera guztien %82,7a jasotzen duela dio, aldiz %20 txiroena %1,4a bakarrik jasotzen du.

3. Eranskina. - Iparraldean, EEBB bezalako herrialde batek, munduko populazioaren %7arekin baliabide-naturalen %40a kontsumitzen du eta CO2ren %50 iraitzi edo egozten du (negutegi ondorioa). Iparra, munduko populazioaren %15arekin, Munduko komertzio indarraren %70a xahutzen du, metalen %75a, zuraren %85a, helikagaien %60a, 1.993. urtean 16 miloi errefuxiatu baino gehiago zeuden eta 100 miloi lagun beren jatorriko herrietatik kanpo bizi ziren.

4. Eranskina. - Batz bestea, 1.996. urtean Iparraldeko pertsonen Barne Produktu Gordina 5.500\$akoa zen eta 1.990. urtean 12.500\$akoa, Hegoaldekoetan berriz, 556\$etik 980\$ara igarotzen zen.

5. Eranskina. - Hiri askotako industri guneak ezpondetan bilakatu dira eta neurri batean zerbitzu enpresetaz ordezkatu dira; Lanpostuak industrietatik zerbitzuetara aldatu dira, soldata txikiagoa eta lan baldintza txarragoekin. Ameriketako nekazaritza munduko eraginkorra eta mekanizatuena da, aldiz, ehundaka mila nekazari txiroak utzi behar izan dituzte beren lur eremuak. Egia bada langabezi masiboah sahiestu dela, askoz ere jende gehiago dago beren lanpostuen soldatak ez dienak txirotasunatik irteten uzten, EEBBtako 35 miloi lagun txiroak dira.

Ipar eta Hegoaldearen arteko desberdintasuna bere gordintasun guztiarekin sartu da hirietako muinetan.

Berez murrizta eta guztientzat ez zen Gizarte Segurantzaren ereduaren babes sozialaren mailak jeitsi egin dira. 31 miloi ipar amerikar baino gehiagok ez dute osasun estaldurarik eta beste 20 miloik eritasun larriak ez dituzten estalpetzen aseguru osagabeak edo partzialak dituzte.

1.975. urtean eta 1.990. urte bitartean biztanleriaren %a baino gehiagorentzat bizi-maila %19an jeitsi da.

EEBBk munduko zordun handiena izatera igaro da, duela urte gutxi batzuek hartzeko zordun handiena zenean.

Enpresariak osasun, pentsio eta prestazio sozialen gastuak murriztu dituzte. Lan-astea luzatu da eta aldi baterako kontratuak gehitu dira.


Pribiligiatuak bunkerizatzen dira; polizi pribatua, garraio pribatua, eskola pribatuak. "Segurtasunaren" ideologiak, inperioa justifikatzen denarekin, pertsonen segurtasun eza eta metropoli beraren gizarte hondarazpena dakar.

Ebazarpena

4 . B i l t z a r r e a

**Osotasunean
aritzeko,
erakunde
efikaza behar**

2



**Osotasunean aritzeko
erakunde efikaza behar**

4

Ebazpena

0. SARRERA

1. EGUNGO EGOERA: KOKAPEN OROKORRA

- 1.1. Eredu organizatibo honen ezaugarri orokorrak
- 1.2. Eredu organizatibo honen perspektiba historikoa
- 1.3. Bereizgarrien agerpena egitura sindikalaren garapenean
- 1.4. Sindikalismoa eta langileriaren zatiketa
- 1.5. Erakundeak izan ditzakeen ondorioak, partaidetza eta gizartearen aldakuntzaren ikuspegitik. Partaidetza eta mili-tantzia, krisiak jota.

2. LAB ERAIKUNTZA NAZIONALEAN

3. GARAPEN ORGANIZATIBOARI BURUZKO BALANTZEA

- 3.1. Hausnarketa orokorrak
- 3.2. Egindako garapeneko elementu kritikoak
- 3.3. Militantzia sindikala osoko eskuhartze sozio-ekonomikoan

4. SEKZIO SINDIKALAK, ENPRESA-BATZORDEAK ETA PERTSONAL-BATZORDEAK

5. LURRALDE-MAILAKO EGITURA DINAMIKO ETA ERAGINKORRA OSATZEKO BIDEAN

- 5.1. Ezaugarriak
- 5.2. Eginkizun eta betebeharrak
- 5.3. Herrialdeak eta eskualdekako egituraketa
- 5.4. Lurralde-egituraketa

6. EGITURA SEKTORIAL DINAMIKO ETA ERAGINKORRA OSATZEKO BIDEAN

- 6.1. Ezaugarriak
- 6.2. Eginkizun eta betebeharrak
- 6.3. Egituratzeko irizpideak
- 6.4. Sektorekako egituraketa
- 6.5. Sektorearteko areak

7. ESKUHARTZEKO AREAK

- 7.1. Ezaugarriak
- 7.2. Kokapen organizatiboa

8. ZUZENDARITZAKO ORGANOAK

- 8.1. Organo Konfederalak
- 8.2. Batzordeak

9. ANTOLAKUNTZA-SAREAREN KOORDINAZIOA ETA ARDURAK

- 9.1. Arduren ezaugarriak
- 9.2. Egituren koordinazioa
- 9.3. Lan-planak eta jarduketak
- 9.4. Aldizkako balantzeak eta hauek betearazteko ardurak

10. IDAZKARITZAK ETA KABINETEAK

11. KOADRO SINDIKALAK

12. AFILIAZIO-POLITIKA

13. HAUTESKUNDE SINDIKALAK

14. TREBAKUNTZA

15. ONDASUN SINDIKALA

16. ZERBITZUAK

SARRERA

1995eko martxoko gure Konferentzia Nazionalari, bertako eztabaida eta erabakiei esker emaniko urratsa definitu dugu IV. Biltzar Nagusirako bidearen abiagunetzat.

Gure III. Biltzar Nagusian hartutako erabakiak erakunde honek bizi duen errealitean ipinita, bai errealitate laboral eta sozio-ekonomikoan gertatzen ari diren aldakuntzak, bai bildu ditugun barne-eskarmentuak kontutan izanik, ahalegin handia egin behar genuen Biltzar hau gailur izango duen prozesu dinamikoan gure egiturak egokitzeko.

Antolakuntzari buruzko txosten hau, Ekinbide Sindikalari buruzko Txostenean lantzen diren gogoeta, planteamendu eta erabakien zuzeneko ondorio da. Horrenbestez, bertan adierazitako guztian oinarritzko argumetazioa eta garai honetan bildutako eskarmentua ontzat ematen du.

Horren bitartez, geroz eta dinamikoago eta eraginkorrago diren egituren finkapenari eta antolakuntzari dagokionean, datozen lau urteetarako jardun-koadro orokorra eratu nahi dugu, gaurregun Hego Euskal Herriak bizi duen errealitate sozial, ekonomiko eta politikoari erantzuna emateko.

Gogoan izan dezagun, txosten honek eta bertako erabakiek osatzen duten koadro orokorrari tokian tokiko zehaztapenak egin behar dizkiola Kongresu honetatik irtengo den zuzendaritza nazional berriak.

**Osotasunean aritzeko
erakunde efikaza behar**

1. EGUNGO EGOERA: KOKAPEN OROKORRA

1.1. Eredu organizatibo honen ezaugarri orokorrak

Nazio-erakuntzarako proiektuan eta gizartearen aldakuntzan daukan ardura asumitzen du gure Sindikatuak, bai alor politikoan bai sozialean, euskal langileriaren erakunde sindikala izateak dakarren konpromezu eta guzti. Honek guztiak zehazten du gure eredu organizatiboa.

Ezaugarri-multzo honi zor zaion eskuhartzea aurrera eramateko, eraiki nahi dugun eredu politiko eta sozialaren arabera ezaugarriak izango dituen erakundea egituratu beharko dugu.

Gure barne-jardueraren erreferentziazko ardatzek hauek izan behar dute: eztabaida egin eta erabakiak hartzean, autonomia; bestetik, ikuspegi demokratikotik, partaidetza bultzatzea. Langileriaren protagonismoa, geroz eta indar handiagoz, gizartea suspertzeko beharrezkoak diren freskotasun eta bizitasunaz jantziko dugu honela.

LABek bere egituretako maila guztietan beharrezko partaidetza sustatu behar du, bertan inertziak eta jarduera desegokiak gerta ez daitezen.

Euskal Herriak bizi duen prozesu politiko eta sozialaren ondorioz, gure gizarteak dituen erreibindikazioak asumitu ahal izateko, eredu organizatibo bat eduki behar dugu. Honek, bere izaera aldatzailearen bidez, gizarte-esparru guztietan jardun behar du.

1.2. Eredu honen perspektiba historikoa

Bere historiaren hasiera-hasieratik LABek bokazio unitarioa erakutsi izan du: honetantxe sakondu behar dugu geroari begira, euskal gizartean indarren koerlazioa aldatzeko eta, batera, nazioa eraikitzeko proiektuan aurrerapausuak emateko.

Estatuan mugimendu sindikalak eman dituen urratsek eta, ideologia, erreibindikazio eta antzeko alorretan bizi izan dugun panorama sozial eta politikoaren aurrean egokitu zaigun sindikalismo-motak ez du batere erraztu lehen esan dugun erronkari aurre egitea.

Sindikala ikuspegitik denboran gertu, eta dagoen errealitate sindikal eta soziala ikusiaz, urte batzuetan berehalako lorpenaren elementu gisa ikus zitekeen langileriaren batasunaren helburuak nahi duguna lortzeko oinarri beharrezko eta egokiak jartzea beharrezkotzat ikuserazten digu, antolamendu ereduan eta bere gizarte txertaketan sakonduaz.

Patronalaren eta botere publikoen aurrean langileriaren interlokutore gisa agertu arte jasan duen ahulezia eta, bestetik, langileriaren interesetan gizarte zuzen eta solidarioagoaren aldeko borroka ideologikoan historikoki dagokion eginkizuna betetzeari uko egitea izan dira egoera honen sortzaileak.

Erakunde sozio-politiko den aldetik, Sindikatu honek giltzarria eskaini behar

digu, gure erakundeak gizartean gero eta eskuhartze handiagoa eduki dezan, egungo eredu politikoaren ondoriozko arazo koiuntural eta estrategikoak jasaten dituen langileriaren ikuspuntutik.

LABen ezaugarri-multzo honek eskatzen digun eredu organizatiboa praktika-raman behar dugu. LABen karakterizazio horrek agintzen digun antolakuntza-eredua bere osotasunean jarri behar dugu praktikan, kontutan izanik gure jarduera sindikalaren arierako lehentasunek sindikatuaren alderdi batzuk sakontasunean jorratzen eragotzi digutela.

1.3. Bereizgarrien agerpena egitura sindikalaren garapenean

Estatutuetan agertzen diren izaera eta bereizgarriek (eskuhartze eta errebindikatzeko premiazko gaiekin batera) erreferentziatzat hartu eta, aldi berean, bizi behar duen errealitate soziala aztertu behar du egitura organizatiboak.

Bai lan-munduan, bai produkzio-sistematik kanpoko sektoreetan eta egoera politiko eta ekonomikoak zehaztutako elementu egituraletan, Herri honetako langileen bizi-baldintzak hobetzeko konpromezua hartua duen erakundeak, ezinbestez bultzatu behar du lurralde eta sektoreen ikuspegitik problematikei erantzuna emateko moduko egitura.

Gizarte honetako gero eta pertsona eta kolektibo gehiagok asumitua izan dadin nahi badu, gizarte horretako estratoetan dialektikoki sortzen diren interes eta erreibindikazioak bere egin behar ditu ekinbide sindikalak.

Ezin ahantz dezakegu gizarte hau anitza (ideologiari dagokionean) eta antagonikoa (egitura sozialez) denik. Honek egituratzen du, bai alderdi nazionalen bai sozialean, gure Herriaren askatasunerako bidean aurrerapausuak emateko eratu behar dugun eredu organizatiboa.

1.4. Sindikalismoa eta langileriaren zatiketa (gizartearen bikoizketa)

Europako sindikalismoak gaurregun bizi duen krisialdiak eta, honekin batera, langileria hainbat kolektibotan (enplegatuak/langabetuak, enplegu finko/enplegu prekario, gazte/heldu, e.a.) zatikatzeak eraginda, gaurko errealitate konplexuetara luzakizunik gabe egokitzeko premiak gero eta indar biziagoz sortzen ari zaizkigu.

Langileriaren egituraketa berriaren ondorioz eta gizartearen egiturak izan duen egundoko aldakuntzaren eraginez, kolektibo batzuk (iraupen luzeko langabetuak, enplegu prekarioan dutenak, e.a.) bazterrean geratu dira, alor politiko eta sozialean era guztietako ondorioak izan dituelarik.

Egungo erlazio laboral eta sozialek ekarri duten gizartearen bikoizketak eragin negatiboak dauzka sindikalismoaren jardueran; bestetik, sindikatuen ekinbide kolektiboa eta akordiotara iristeko ahalmena eragotzi egiten die.

Politika sektorialak edo, areago, lurralde mailako egoera bereziak gaintitu ahal izateko, elkartasunezko lotura sozial berriak eratzeko sindikatu bakoitzak daukan gaitasunaren araberakoa izango du bilakaera eta interlokuzio soziala-

ren itzala etorkizunean.

Sindikatuak osotasunezko planteamendu zabalekin egin behar dio aurre egoera honi, errealtateari aurre egingo dioten herritarren edo bestelako herri-mugimenduen ekimenekin batera, gizartearen elkartasunezko erakuntzan, gizarte-sindikatuaren proiektua aurrera eraman ahal izateko. Objektiboki interesatuta dauden sujetuek proiektuan parte hartu gabe ezinezkoa da aldakuntza sozialik egitea.

1.5. Erakundeak izan ditzakeen ondorioak, partaidetza eta gizartearen aldakuntzaren ikuspegitik. Partaidetza eta militantzia, krisiak jota.

Langileok erakunde sindikal batean parte hartzera zerk bultzatzen gaituen eta erakundea egituratzeko erak zein izan daitezkeen galdegiten diogunean geure buruari, erantzun-sorta zabala aurkitzen dugu.

Langileriaren partaidetzaren motibazioa esplikatzen hainbat arrazoi eman izan dira, ez maila indibidualean bakarrik; partehartzeak, denboran barrena eta egoera berezietan, hamaika plegu desberdin hartu izan ditu.

Partaidetza horren aldeotasuna erabakitzen duten histori, inguru- eta bestelako faktoreak, adierazle eta erantzun aldakorrek dituzten jokamolde indibidualen osagarriak dira.

Partaidetza horren giltzarrietako batzuk izan daitezke: ideologikoki kidetasuna sentitzetik hasita, errebindikazio eta mobilizazio alorretako motibazioa, edo eskenatoki demokratikoan legitiimizazio-prozesua gertatzeraino, informazio- eta komunikazio-dinamiken inguruan norik berak dauzkan arrazoi pertsonaletan barrena.

Errealtatea konplexua delako, lehen esandakoak seguraski, kasu, toki eta une historikoaren arabera, erlazio desberdin eta aldakorra eragiten duela kontutan izanik, partehartzearen sorburua era eskematiko edo hierarkizatuan xedatzerik ez dagoela erabaki dezakegu.

Gure gizartean eta bertako erakundeetan konpromezu-mailak badaudela eta, bestetik, partehartze-motak, ereduak edo estiloak desberdinak direla egiaztatuz, aurrerantzean gerta daitezkeen behin-behineko krisialdietatik irten ahal izateko espazioak eta erreferentziak zehaztu behar ditugu.

Jasaten dugun krisi ideologikoaren ondorioz, elkartasuna bezalako balore sozialek gizartean izan duten atzerakada eta, hortaz, proiektu sozialetan partehartzea edota militantzia bezalako baloreek izan duten desprestigioa negatiboki baloratzen dugu orain, gizartea aldatzeko ikuspegitik.

Baina, kontutan izanik, eredu organizatibo bat, berez, arrakasta izateko bide segurua ez dela, langileen atxikipena ugaltzea beharizan indibidualak ase-bete diren seinale izan daitekeela, ez du zertan izan erlazio mimetikoak, partaidetza-maila handiago eta guzti.

Honenbestez, termino teoriko-praktikoetan, partehartzearen ugalpena erakarriko duten egokitzapenei ekinez, jokamolde indibidualak konpromezu kolektibo bihurtzen hasteari dagokionean, goien esandakoa gutxiesten,

infrabalaratzen duena, oker dago.

LAB bezalako erakunde batek eskaintzen duen ekarpena —ez, berez, helburu gisa— balio handikoa da: hauxe agertu behar dugu geure jarduera sozial eta politikoaren bitartez, helburuak lortzeko bidean, geure egituren jardunbideaz baliatuta.

2. LAB ERAIKUNTZA NAZIONALEAN

LABen helburu estrategikoez eta ezaugarriek Euskal Eraikuntza Nazionalaren prozesuan eragile sozial ipintzen gaitu. Norabide horretan lanean ari diren gainontzeko protagonista politiko, sozial eta kulturekin batera bideratu beharko ditugu, beraz, gure ahaleginak.

Nazioaren Eraikuntzaren alde energia horiek behar bezala bideratuz azken urteotan LABek eskuhartu duen esparru organizatiboa (KAS blokea) bilakatu ezin da prozesuan gertatu diren aldaketen ondorioz eta haren eragimortasunari buruzko hausnarketen ondorioz ere.

Hausnarketa prozesu honetatik sortzen den norabide berriak antolaketa eredu berri baten beharra jartzen digu; Ezker Abertzaleko erakunde sindikal bezala, LABek bai bere eztabaida bai bere ebazpenetan erabateko autonomia eutsiko dio; esparru guztietako bere jardueraren eskuhartzean elkarrekiko errespetuz eta gainontzeko erakundeekin inongo menpekotasunik gabe izan behar du.

KASen gertatzen den aldakuntza honek LABen egungo eraketa organizatiboan dauka eragina eta, honela, bai Sindikatua, bai militanteak, bertako egituren pentsamendu eta eskuhartze-ildoan barnean geratzen dira.

Aurreko gogoeta eginek eta osotasunezko eta sektorekako hartueman politikoaren garrantziaz jabeturik, Ezker Abertzaleko erakunde guztiekin esperientziak eta ekimenak trukatzeko komunikazioari ekingo dio LABek, honelako jorrocketak beharrezkoak direla sinesten baitugu.

3. GARAPEN ORGANIZATIBOARI BURUZKO BALANTZEA

3.1. Hausnarketa orokorrak

Gure azkeneko Konferentzia Nazionalaren aurreko eztabaidek, ebazpenek eta dena praktikan jartzeak, gai hauek aztertzen has dezagun balio izan dute. Gai hau, honako txostenaren bitartez, sakontzen jarraitu behar dugu.

Gure erakundeak azken urteotan egin duen lanak eta, sortu diren uneetan

erabat beharrezkoak ziren beste alorretako lehentasunek, ez digute erraztasunik eman etorkizuneko antolamenduaren diseinua bewhar lukeen garrantziaz hedatzeko eta sakon eztabaida egiteko, duela hilabete batzuk egindako Konferentzia Nazionala arte.

Hauteskunde Sindikaletan emandako urratsak eta euskal testuinguru sindikalean gure Sindikatuak izan duen eskuhartzearen bilakaera, aurrerakada izan dira bai produkzio- eta zerbitzu-sektoreen finkapenean, bai gure Herriko testuinguru sindikalean.

Egoera positibo honetan, gure antolauntza-sareak jasaten dituen gabezia eta okerrak erabat gainditu ahal izateko gogoeta kolektiboa egin behar dugu, joandako garaietan alderdi hauek merezi zuten arreta eskaintzea eragotzi diguten inertziak gainditu ondoren.

3.2. Egindako garapeneko elementu kritikoak

Sindikatuaren hazkuntza, baliabide eskas eta egokiak, koordinazio urria, arduren ezaugarriak, lan-plan zehazgabeak eta antzeko faktoreek eraginda, lurralde-egiturak eraman duen norabideak ez du erraztu eboluzio aurrerakoa egiterik.

Produkzio eta zerbitzu sektoreetan gure jarduera bizkortzeko elementu zen heinean, pasa den Biltzar Nagusian tajututako egitura sektorialean aurrera egiteko gai ez gara izan.

Gure jarduera gehien mugatu duten funtsezko elementuetako bat izan da nazio mailako eta tarteko zuzendaritza-organoen arteko (egitura sektorialekin, bereziki) koordinazioa.

Egiturak eta zuzendaritzako organoak osatzen dituzten lantaldeak, hau da, lan-alorrak, batzordeak, e.a. abiaraztea eta horiek egindako aportazioa ez da aski izan; areago, zenbaitetan kezkarria gertatu da (Idazkaritza Juridiko eta Ekonomikoa, Idazkaritza Nazionalako Batzordeak, etab.).

Eginkizunei buruzko irizpide homogeno eta zehatzik izan ez dugunez, ardu bakoitzean behar zen pertsona jartzerik ez dugu lortu. Honela, erakundearentzat funtsezkoa den militante liberatuen kolektiboak beharrezko garapena izatea eragotzi dugu.

Gure Sindikatuaren ordezkaritza- eta produkzio-bilakaera positiboa izan bada ere, gorakada honek gizartean eragin handiagoa izateko helburuz eraman ditugun eskuhartze-dinamika berrietan agerpen orekaturik izan ez duela iruditzen zaigu.

Goian egindako gogoeketen haritik, hala behar den egoeretan eta txosten honetan zehar zehazten diren kapitulu guzti-guztietan ipini behar ditugu zuzentzeko mekanismoak.

3.3. Militantzia sindikala osoko eskuhartze sozio-ekonomikoan

LABek bestelako sindikatu-eredu baten aldeko aukera egin du: honek, langileentzat zerbitzu orokorrak antolatu eta ematean oinarria zuten sindikatu

tradizionalek baino ahalegin handiagoak eskatzen ditu.

Gure jarduera sindikalean bilatzen dugun eraginkortasuna errealitate bihurtuko da, sindikatu-alor guztietan bultzatuko ditugun lan-planak eta LABen proiektu sindikaleko helburuak betetzen ditugun heinean. Sindikatu-eredu honek, hortaz, bestelako praktikaz jardutea eta, gainera, geroz eta gaitasun eta dinamika handiagoko militantzia edukitzea eskatzen digu.

Sindikatuaren zabalpenak burokratizazio eta sektorializaziorako joerak (hausnarketa eta eskuhartze-autonomiak) sortarazi ditu: hauek desegokiak dira gauzatu nahi dugun jarduketa sozio-politikoari ekiteko.

Militante sindikalak (pertsonek liberatuak, egituretako kideak, delegatuak, e.a.) elementu teorikoa barneratu egin behar du, osotasunezko eskuhartze-profila praktikan jarri, jarduera sindikala antzu edo eskas gera ez dadin. Nolanahi ere beharrezkoak diren espezializazioak eta berarizko lanak osotasunezko eskuhartzearen gehigarri gisa garatu behar dira, ikuspegi sozial, ekonomiko eta politikotik, LABen etorkizun estrategikoa garantizatuko duen militantzia eratzeko.

Lurralde eta sektore-egituraren helburua izan behar du protagonista gehiagorik lortzea, Sindikatuaren osotasunezko jarduera sindikalean aritzeko.

LABen dinamika sindikalak militanteari ahalegin berezia eskatzen dio, trebakuntza pertsonal eta kolektiboan. Hau egin ahal izateko partaidetzazko dinamikaz jardun eta, behar den egituretan, ekarpen aktibo jarraian aritu behar da. Bestetik, jardun beharreko errealitatea (sekzio sindikal izan, sektore-nahiz lurralde-egitura izan) ongi ezagutzeko aparteko ahaleginak egitea ere exigitzen da.

Jarduera sindikalaren plangintza egin behar da, helburu dinamikoak zehaztu eta beharrezkoak liratekeen emaitza eta aldakuntzak, indibidual eta kolektiboki ebaluatzeko. Erosokeria, lanean nork bere buruari mugak jartzea eta antzeko jokabideak, militantziaren eta erakundearen bilakaera indibidual eta kolektiboa usteltzen dute.

Jarduera sindikala dimentsionatzeko ahalegin honek eraginda, idazkaritza tekniko, liberatu eta zuzendaritzazko egituren bitartez, Sindikatuak bestelako jarduera sindikalari erantzuna emateko gai izan behar du, LAB garen aldetik bultzatzen dugun jarduera sindikalean garantiaz eskuhartzeko.

4. SEKZIO SINDIKALAK, ENPRESA-BATZORDEAK ETA PERTSONAL-BATZORDEAK

Sekzio sindikalak

Jarduera sindikalean Sekzio Sindikala da oinarizko lanabes organizatibo erabakiorra, bai antolakuntzari dagokionean barne-ikuspegitik (sindikatuaren

hedapena eta barne-partaidetza garatu, politika sindikalaren tajueran ekarpenak egin, e.a.) bai kanpo-ikuspegitik, berarizko esparruetan eskuhartze-ko.

Gure jarduera sindikalaren ereduaren arabera, bi jarduera-plegu bultzatu behar ditugu:

-Enpresa-esparruko eskuhartzea garatzea, osotasunezko zein berarizko ikuspegitik.

-Esperientziak aportatzea Sindikatuari, jarduera sindikala tajutu ahal izateko, aldakuntza-proiektuan parte hartuz.

Jarduera sindikalaren eskuhartzea bi mailatan egiten da: lurralde- eta sektore-egituretan, honela langileen praktika sindikala aberasten delarik.

"Garapen organizatiboaz" azkeneko Konferentzia Nazionaleko eztabaida eta erabakietan ez zitzaien txiripaz eman Sekzio Sindikalei berarizko kapitulua eta aparteko trataera: horiek daukaten garrantziarengatik eta, jarduera-mailan, bizi duten egiazko errealitatearengatik izan zen honela.

Egiazko betekizuna ez asumitzearen (eta honek daukan garrantzia dela medio), eskuhartze-sailetan erakutsi dugun mugaketaren ondorioz, jarduera sindikalaren ahalmenak dibertsifikatzeko unean egitura organizatiboek agertu duten gogortasunaren ondorioz eta egitura hauetan eztabaidatutako jardueraren plangintzarik ez egitearren, organo horiek eskaintzen diguten ahalmenari etekinak ateratzeko gai ez gara izan.

Aurrez azaldu diren zergatietatik datorren eskualde egiturei buruzko erantzunkizunen jardueran delegazionismoa, gizarte inguruaren (berekoi jokoarak,...) faktoreak, eta behar benien (nahiko hezkuntzarik ez,...) egokitze eza, sekzio sindikalaren jarduera egoki baterako elementu negatiboak izan dira.

Enpresa eta lantegi askotan izan den zatikako jarduera sindikalak (Enpresa-Batzordearen eritmoak adierazitako premien arabera bakarrik gauzatuta) ez du inola ere erraztu sekzio sindikalek beharrezkoa duten garapena egitea.

Funtsez, delegatuen jardueraren gehiegizko zentralizazioa zela medio, afiliatuak bertan parte hartzeko unean agertu duten automugaketak, Sindikatuaren jarduera aurrera eramateko egokiak diren aportazioa eta motibazioa oztopatu egin ditu.

Lehenago adierazitako gogoetak kontutan izanik, hurrengo zuzenketa-lan-besak eratu behar ditugu:

Baldintza egokiak dauden tokietan, enpresa edo lantegiko sekzio sindikalak sortzea.

Enpresan, sekzio hauen eginkizuna eta gure erakundearen politika sindikalaren zabalpena indartzea, osotasunez eskuhartzeko perspektiba baztertu gabe.

Sekzio sindikalak koordinatu eta bizkortzea, esku har dezaten eta lurralde-zein sektore-egiturekin harremanak izan ditzaten bultzatuz.

Sekzio Sindikaleko Delegatu irudia dela-eta, eskaintzen zaizkigun ahalme-
nez baliatzea, koordinazio eta dinamika sindikalean irudi hori giltzarri gisa
kokatuz eta, bestetik, afiliatu guztien aportatu eta eskuhar dezaten bultzatuz.
*Herri Biltzarren osakera, funtzionamendua eta jarduera orokorrari dagokione-
an, Delegatu Sindikala ipini behar dugu erreferentziune gisa.*

Enpresa-Batzordeak eta Pertsonal-Batzordeak

Enpresa-Batzordeak eta Pertsonal-Batzordeak, lantegietako langileen boron-
datea unitarioki adierazteko organotzat jotzen ditugu, hauteskunde-proze-
suetan ordezkariak zuzenki aukeratuta.

Hau abiagune dugula eta aurreko atalean jardunbideari buruz egin ditugun
gogoetak kontutan izanik, Enpresa-Batzordea, Pertsonal-Batzordea eta sek-
zio sindikala bera ez ditugu era baztertzailean bultzatu behar; aitzitik ordea,
gure jardunbidearen aportazioa eskaini behar dugu, organo unitarioen jar-
dueran eta fabrika edo lantegiaren esparru orokorrean irudi horiek hedatuz
dagokien arazo guztietan asanblada orokorra bultzatu; langileriak nahiz
spzial nahiz politikoki dauzkan eereibindikapenak lortzeko langileen parte-
hartze zuzena eskatuaz, gure eskuhartzea, pentsamendu, lan eta hausnarke-
taildoak zabaltzeko gure jarduera iraunkor bat izan behar du.

Gure sekzio sindikalen jarduera Enpresa-Batzordean eta Pertsonal-
Batzordean bakarrik mugatzea akats larria litzateke: honek, gure eskuhart-
zea —bai osotasunez, bai berariz— edukiz hustutzea erraztu egin lezake.

5. LURRALDE-EGITURA DINAMIKO ETA ERAGINKORRA OSATZEKO BIDEAN

5.1. Ezaugarriak

Egitura hau sekzio sindikaletik antolatzen da, Sindikatuaren oinarritzko ardatz
gisa eta afiliatuak lurralde-esparruka sailkatzen ditu, maila lokaletik hasi eta
nazionaleraino, erreferentziatzko irizpidetzat Hego Euskal Herriko egiturake-
ta politikoa (herrialdeak, eskualdeak, e.a.) hartuta.

5.2. Eginkizun eta betebeharrak

Egoera berezi hau ezagututa, esparru horretako jarduerak eskaintzen diz-
kion maila sozio-ekonomiko eta politikoetan eta berarizko plangintza egin
eta ekimenak bultzatzearen bidez, sindikatu-eraginaren garapen hedakorra
indartu beharko du.

Bere jarduera-esparruan eragina duten enpresa edo lantegietako berarizko
problematikak koordinatzea (arazo ekonomikoak, edukin sozialekoak, e.a.),
unean uneko jarduera sektorialaren osagarri gisa.

Gizarte- eta enplegu-politikan eta, bestetik, eskuhartze instituzionalari dago-kionean, berarizko dinamikak betearaztea.

Giza eskubideen defentsa, gure Herriaren eskubide kolektiboen defentsa, intsumisioa, euskara, presoekiko elkartasuna eta antzeko gai sozio-politikoetan Sindikatuak esku har dezan bultzatuko da hemendik.

Bide sektorialetik garatutakoaren osagarri gisa, sekzio sindikalak bizkortzea.

Langileen interesak babestu eta lantegietan parte hartzea lagunduko duen zerbitzu-maila (aholkularitza sindikala) bideratzea.

Sindikatuaren ordezkaritza politiko eta juridikoa.

Sindikatuak egitura guztien trebakuntza-politika eta zerbitzu juridiko-ekonomikoak bizkortzea bere eskumenekoak izango dira.

Jarduera sindikala tajutu eta koordinatzea, zuzendaritza-organo konfederalen erabakiak garatuz, eta gai guztiei buruzko eztabaidan eta ekarpen-prozesuan parte hartuz.

Sektore- zein lurralde-egiturek behar dituzten azpiegitura eta bitartekoez hornitzea, bigarrenaren eginkizuna izango da.

5.3. Herrialdeak eta eskualdekako egituraketa

1995eko martxoko Konferentzia Nazionalan hartutako erabakien arabera zehaztu zen eskualdekako egituraketa:

Araba: Aiara / Errioxa Arabarra / Lautada-Gorbeia

Bizkaia: Bilbo / Busturialdea, Lea-Artibai / Durangaldea / Ezkerraldea / Hego-Urbe, Arratia / Txoriherri, Mungia, Ipar-Urbe

Gipuzkoa: Baztan-Bidasoa / Beterri-Oria / Deba / Donostia / Goierri / Kosta-Urola / Leintz / Oarso

Nafarroa: Erdialde-Erribera / Iruntzu / Iruñe(rri)a / Sakana, Leitza

Lurralde-egitura eratzeke irizpideak Biltzar Nagusian —edo, bestela, Biltzar Nazionalan— aztertu beharko dira, herrialde eta eskualdeari dagozkion kasuetan.

Egitura lokalaren plangintza, zehaztapen eta garapenari dagokiona, Herrialdeko Idazkarien kontua izango da, lehenago aipatutako irizpideen eta errealitate aldakorren arabera.

5.4. Lurralde-egituraketa

Aurreko gogoetak abiagune hartuta eta azkeneko Konferentzia Nazionalan hartutako erabakien haritik, egitura honen garapenari dagokionean, hurrengo helburuak ipini ditugu:

- Herri Biltzarrak

Lehendik dagoen egitura lokala finkatzea eta, eskualdeetan, Herri Biltzar berriak sortzeko bultzada ematea, bere egitura ekonomiko, politiko eta soziala eta, bestetik, gure ezarpena eta partehartzearen eskakizuna aztertuz.

Esparru lokaletan eskuhartze-areak garatzea (LAB Gazteak, LAB Emakumeak, LAB Langabetuak) eta bizkortzea.

Problematika sozial, politiko eta ekonomikoetan osotasunez eskuhar dadin bultzatzea, langileen asmo-gogoen arabera jarduketa praktikan jarritz.

Egitura hau finkatu eta hedatzea den helburuari begira, balio handikoa izango da delegatu lokalen batzar-dinamika indartzea: delegatu lokalek, Sindikatuaren jarduketa guztietara beste delegatuak hurbildu eta bertan parte hartzea bultzatuko dute, eta hauek erakundearen eguneroko bizitzan zuzeneko protagonismoa izatea erraztuko dute. Honelako biltzarrak gutxienez hilean behin egingo dira eta, beharrezko emaitzak jaso ahal izateko, bertako edukinak zainduko ditugu bereziki.

Herri Biltzarraren osakera irekia izango da eta (4. sailean esan den bezala) delegatu sindikalaren irudi eta arduraren bitartez, Sekzio Sindikalek parte har dezaten bultzatuko da, oinarritzko ardura hauei eutsiz:

- Antolakuntzaren Arduraduna
- Ekinbide Sindikalaren Arduraduna
- Sindikatua Hedatzeko Arduraduna
- Propagandaren Arduraduna
- LAB Gazteak, LAB Emakumeak, LAB Langabetuen Arduradunak

Arduren izendatze-prozesuak dinamikoa izan behar duela kontutan hartuz, jardueraren hasieran gutxienez aurreneko biak izango ditugu.

- Eskualde Batasunak

Herrialdeko Idazkariekin batera Sindikatuaren bizitzaren elkarlotze honetan, Eskualdeko Idazkaritzak indartzea izango da funtsezko helburuetako bat, horietakoren batek jasan izan dituen dinamika aldrebasei aurre eginez.

Organoa bere jardueran askozaz ere bizkorrago izatea erraztuko duen eskualdeen egituratze berria erreferentzia hartuta, egituraren oinarritzko esparruetan dinamika berria abiarazteko unean, egituraketa horren funtzio-namendua prestigiatzeak daukan garrantziaz jabetu behar dugu.

Eskualdeko Idazkaritzen osakerak zehatzagoa izan behar du, bere ezaugarriak kontutan izanik eta, honela, egitura lokalaren garapen urriko garaietan, esate baterako, nolabaiteko malgutasunez jardun ahal izango litzateke, orhar.

Eskualdeko Idazkaritzaren osakera:

- Antolakuntzaren Arduraduna
- Ekinbide Sindikalaren Arduraduna
- Aholkularitza Juridikoaren Arduraduna
- Herri Biltzarraren Antolakuntzaren Arduradunak
- Herri Biltzarraren Ekinbide Sindikalaren Arduradunak

Egitura lokala nahikoa garatu ez den fasean, behin-behingo, Propaganda, Areen Zabalpena edota Sindikatuaren Hedapena bezalako ardura bereziak antolatu ahal izango dira, maila honetan, trebakuntzarako arduradunaren lana errazteko helburuz.

Trebakuntza-jarduketak gauzatzeko, ekinbide sindikala eta antolakuntza ardurak bizkortzaileak izango dira eta, idazkari-tzekin, aholkularitzekin eta Trebakuntza Arearekin batera, dagozkien planak bultzatuko dituzte.

- Herrialde Batasunak

Konferentzia Nazionala egin arte, maila nazionalako organoekiko gehiegizko mimetismoa mantentzen genuen eta honek, bakoitzaren (Herrialdeko Iraunkorra, Herrialdeko Idazkaritza eta Konferentzia) eginkizuna zehaztu ezean, lana antzu bihurtzen zuen.

Azken hilabeteotako jardueran izan duten behin-behineko ezaugarri-multzoa, Herrialdeko Idazkaritzak Idazkaritza Nazionalarekin sintonian jardun zezaten oinarriak ipintzeko balio izan duela ikusi dugu.

Herrialdeko Idazkaritzetatik egin behar den zuzendaritza nazionalerako eta honen organo konfederaletarako ekarpenak zeharo bestelakoa izan behar du. Organo hauek, Idazkaritza Nazionalarekin batera, ekarpen eta bizkortze lanetan beso harmoniko gisa jokatu behar dute.

Herrialdeko Idazkaritzaren osakera:

- Herrialdeko Idazkaria
- Eskualdeetako Antolakuntzaren Arduradunak
- Eskualdeetako Ekinbide Sindikalaren Arduradunak
- Sozio-ekonomiaren Arduraduna
- Negoziazio Kolektiboaren Arduraduna (izaera koiunturalez)

Herrialde Biltzarraren osakera:

- Herrialdeko Idazkaritza
- Eskualdeetako Idazkaritzak
- Nazio eta Herrialdeko Kabineteak
- Herrialdeko Sektoreetako Arduradunak
- Nazio eta Sektoreetako Arduradunak (Idazkaritza Nazionalako osakide)

6. EGITURA SEKTORIAL DINAMIKO ETA ERAGINKORRA OSATZEKO BIDEAN

LAB bezalako erakunde sindikalak eskatzen duen egitura sektorialak funtsezko bi ardatz hauek ditu euskarri: batetik, sektoreek egoera ekonomikoa ederki ezagutzeak Nazioa Eraikitzekeo Proiektuaren aldeko eskuhartze eta diseinua aberasten duela eta, era berean, ikuspegi soziopolitikotik sektoreen egoeran eragina izateko gaitasuna.

Beste aldetik, sektore, enpresa eta lantegietan eskuhartzea sakondu ahal izatea, koordinazio eta hausnarketa-maila hobeeekin, gizarte-esparru guztietan osotasuneko ekinbide sindikalak osaturiko ikuspegi eta problematika zehaztetatik.

6.1. Ezaugarriak

Egitura sektoriala, sekzio sindikaletatik hasi eta maila nazionaleraino antolatzen da, jarduera ekonomiko eta sektore ekonomiko horren alderdi erabakiorrak, amankomunak eta berarizkoak, sorrerarako erreferentzia gisa hartuta.

6.2. Eginkizun eta betebeharrak

Sindikatuari egiten zaion aportazioak —ekonomi alor jakin batetik—, eskuhartze-elementuek, sektorekako planek, politika sektorialak, honen eboluzioak eta gerorako perspektibak, e.a. balio handia daukate jarduera sindikalaren osotasuneko diseinuan.

Sindikatuaren jarduera orokorreko planoetan garaturiko sektorekako aportazioen barnean, Sindikatuak berak eta, zehazkiago, zuzendaritza-organoek aztertu behar dituzte espazio jakin bakoitzeko (sektoreak, enplegu-politika, politika soziala, instituzionala, gazteria, etab.) jardunbideak eta zehaztapenak.

Batasun Sektorialek, orohar, Sindikatuaren lan-profila asumituko dute alor politiko, sozial eta ekonomikoan eta, honen ondorioz, zuzendaritza-organo konfederaletan txertatzea ere asumitu beharko dute.

Errebindikazio-lanak, istilu ekonomikoak, negoziazio kolektiboak, politika sektoriala eta antzekoak izango dira asumitu beharreko eginkizunak.

Egitura honen eginkizunen artean, bere esparruan politika sektorial eta orokorraren tajuera eta bizkortze lanak daude, zuzendaritza-organoek emaniko erabaki eta zehaztapenen norabidetik. Era berean, organo horietara ekarpena egin behar du gai guztietan.

Dagokion sektorean jarduera koordinatzea eta garapen organizatiboa hainbat mailatan gauzatzea, sekzio sindikalak bizkortzea, afiliazioa suspertzea, hauteskunde sindikalak egitea e.a., izango dira sektore mailatik bultzatu beharreko lanak.

Horrenbestez, gai sozio-ekonomiko eta sozio-politikoari buruzko borroka ideologikoan bere jardueran arituko da egitura sektoriala, berarizko espazioa eratuz, eskuhartze-perspektiba orokorretik.

6.3. Egituratzeko irizpideak

Aurreko bi ataletan esandakoa funtsezko elementua izango da sorrera, egituraketa eta jarduera sindikalaren garapena egiteko unean eta, era berean, Biltzar Sektorial bat abiatzeko garaian ere.

Batasun Sektorial bakoitzak bere egitura eta beharrezko lantalde eta organoak eduki beharko ditu, agindu zaizkion lanak egin ahal izateko, beti ere kontutan izanik premiek ezarpen- eta afiliazio-mailen araberakoak eta orekatuak izan behar dutela.

Aztertzen ari garen sektorearen berarizkotasunak zehaztu behar du egitura baten definizioa, kontutan izanik sektore guztiak ez direla berdinak eta errealitate desberdinak erabakiorrak direla (batetik besterako desberdintasunak, lantegien bilketa, azpisektoreak, ezarpena, etab.).

Sektoreen sorrera, bategitea e.a., zuzendaritza-organo konfederalen erabakia-
ren araberakoa izango da.

Batasun Sektorial bakoitza (zuzendaritza-organoak, bereziki) osatzerakoan, hauen jardueran iraungo duten gizatalde egonkorak eduki behar ditugu, hutsuneen erruagatik egindako lan guztia alferrik gal ez dadin. Eginkizun honetan jarri behar ditugu militanteak, eskaintza partzial edo osokoak, nolabaiteko eskarmentua eta gaitasuna agertzen dutenak, sektorean erreferente izan daitezen.

Lantegiko edo lantegiarteko sekzio sindikalak eratzeko irizpideak konfederazio mailan zehaztu beharko dira eta gutxieneko afiliatu-kopuru jakin bat izan beharko dute.

Batasun Sektorialetako bakoitzeko zuzendaritza-organoak, gizartean duten ezarpen, sakabanaketa eta antzeko ezaugarrien eta, bestetik, afiliatu-kopuruaren arabera gorpuztuko dira.

Batasun Sektorialek eta bertako zuzendaritza-organoek Sindikatuaren Estatutuaren agertu behar dute, kontutan izanik denek ez dituztela organo berberak izango. Horretarako, ereduzko zuzendaritza-egitura tajutu behar dugu, egoera eta errealitate desberdinetan ipar-orratza izan dadin.

6.4. Sektorekako egituraketa

Burutuko dugun sektore-garapena gure erakundean prozesu dinamikotzat zehaztu behar dugu. Ez ikuspegi zurrunik baina bai, ordea, erakundearen jarduera orokorra eta aritze organizatiboa erraztuko duten zehaztapen-maila egokien bidez.

Batasun Sektorialak:

- Osasuna
- Irakaskuntza

- Administrazio Publikoak
- Siderometalurgia
- Finantzak (Banka, Kutzak eta Aseguruak)
- Garraio eta Telekomunikazioak
- Arrantza
- Kimikak eta Energia (Pasta, Papera, Kartoia, Arte Grafikoak)
- Merkataritza eta Ostalaritza
- Etxegintza, Egur, Beira eta Keramika

Une edo koiuntura jakin batean har dezaketen garrantzi politiko, sozial edo ekonomikoagatik, interesa duten arren, proposamen honetan egituralki aztertu ez diren sektoreen arteko beharrezko koordinazioa Idazkaritza Nazionalak lotuko du.

Aurreko ataleko gogoetak kontutan izanik, Batañun Sektorialen lurralde-egitura honela zehaztuko litzateke:

Sektoreko Biltzar Nazionala

Batasun Sektorialeko goreneko organoa, sektorean eskuhartze sozio-ekonomikoa gauzatzeko eta jarduera sindikal, negozioazio kolektibo edo antzekoetan bideak markatuko dituzten osoko gogoetak egiteko gaitasunez jantziak.

Helburu honekin aukeratutako delegatuen arabera izango da Konferentziaren osakera, irizpide nagusia afiliazioaren arabera proportzioan agertzea izango delarik eta, sektoreak berak proposatuta, Idazkaritza Nazionalak zehaztu beharreko kopuruan.

Sektoreko Biltzar Nazionalak gutxien-gutxienez urten behin bildu beharko luke, ohiko bileran eta, bere eskuduntzen artean, karguak hautatzea (Sektoreko Batzorde Nazionala), jarduerari buruzko balantzeak eta lan-planak egitea sartuko lirateke.

Sektoreko Batzorde Nazionala

Sektoreko Biltzar Nazionalak aukeratutako pertsonak osatzen dutelarik, Sektoreko Biltzar Nazionalaren funtsezko eginkizuna, Biltzarreen arteko eskuhartze sektoriala antolatu eta bizkortzea izango da.

Osakera, balizko lanen arabera, hurrengoaren antzerakoa izan liteke:

- Arduradun Sektoriala
- Negoziazio Kolektiborako Arduradun Sektoriala
- Herrialdeetako Arduradun Sektorialak
- Azpisektoreetako Arduradunak

Arduradun Sektorialak Idazkaritza Nazionalan izango duen agerpenak Batzorde hau eskuhartze sindikal, sozio-ekonomiko eta soziopolitikorako ikuspegi orokorraz jantzi behar du, bere jarduera-esparruan eguneroko eskuhartzea egiteko beharrezkoak diren elementuak aportatuz.

Sektoreko Herrialde Biltzarra

Herrialde bakoitzean eskuhartzeko ardatzak egokitzeko bidean, gogoeta egiteko gaitasuna dauka organo honek.

Helburu honekin aukeratutako delegatuen arabera izango da Sektoreko Herrialde Biltzarraren osakera. Irizpideak, afiliazioaren arabera proportzioan eta, sektoreak berak proposatuta, Idazkaritza Nazionalak zehaztu beharreko kopuruan.

Sektoreko Biltzar Nazionala egin aurretik eta Sektoreko Herrialde Batzordeak hala erabakitzen duenean bilduko da.

Sektoreko Herrialde Batzordea

Maila nazionalan planteaturiko ekinbide sindikala, negoziazio kolektiboa, politika sektorialaren ondorioak etab., eta Sektoreko Batzorde Nazionalan zehazten den eskuhartze osoa aztertzeko eskuduntzak dauzka herrialde mailako organo exekutibo sektorial honek.

Osakera, balizko lanen arabera, hurrengoaren antzerakoa izan liteke:

- Herrialdeko Arduradun Sektoriala
- Azpisektoreetako Arduradunak
- Herrialdeko Neg. Kolektiborako Arduraduna (ez sektore denetan)

Operatibitate alorreko irizpideak direla medio, sektorearen batean eskualdeko egitura sortzea planteatuko balitz, Sektoreko Batzorde Nazionalak Idazkaritza Nazionalari egindako Txostena aztertu beharko litzateke, gerora jorratu eta eztabaidatua izan dadin.

6.5. Sektorearteko areak

Irudi hau "Sektorearteko Areatzat" ere aztertuko dugu, koiuntura jakinen batean bidezkoak izan daitezkeen jarduera sektorialeko sail batzuk mugatzearen. Ezaugarriak edo elkarren arteko harremanak direla medio, behin-behingo lanak batera egin behar dituzten sektore desberdinen arteko koordinazio zehatzagoak, Idazkaritza Nazionalak eratu beharko duen sektorearteko area baten bitartez lotu beharko dira (Zerbitzu, Industria edo bestelako Sektorearteko Area).

Area hauen bitartez bideratuko dira sektore jakinen arteko elkarlanak, honela problematika eta esperientzien trukea sor dadin, ekinbide sindikalaren garapen egokiaren mesedetan.

Beste alde batetik, Zerbitzu Publikoen Sektorearteko Area eraikia dugu —ez, ordea, izaera koiunturalez—; honek, dauzkan ezaugarriengatik, Irakaskuntza, Administrazio Publikoa eta Osasun sektoreetako jarduketan koordinazioan iraun beharko du eta, dagozkion bereizgarriak direla medio, Idazkaritza Nazionalaren esparruan arduratzat agertuko da. Organon honetan agerpena duten sektore horien edozein arduraren bitartez.

Bete beharko dituzten eginkizunen eta ezaugarrien zehaztapena eta eraketa Idazkaritza Nazionalak aztertuko ditu.

7. ESKUHARTZEKO AREAK

7.1. Ezaugarriak

Txosten honetako 1.4 atalean aipatutako gogoetak oinarri hartuta, gizarte honetan sortuz doazen problematikei erantzun jzehatza ematera behartzen gaitu adierazitako errealitate sozialak.

Egoera berezietan eskuhartzeko xedearekin area horiek bultzatu behar ditugu, Sindikatuaren osotasunezko jarduerak aurrera segi dezan beharrezkoa den pizgarria eragiteko, gure erakundean, barne-mailan.

Area hauen izaera, eskuhartze sozialeko berarizko alorretan kokatu behar dugu. Hasiera honetan emakume, gazteria eta desenplegua bezalako sailak bakarrik ikusten baditugu ere, etorkizunean bestelako atal edo alorrak ere izan daitezke.

7.2. Kokapen organizatiboa

Kokapen organizatiboa lurralde-egiturako esparru lokaletan egongo da eta, honi esker, langileengandik gertueneko errealitate sozial, politiko eta ekonomikoetara hurbildu ahal izango gara.

Idazkaritza Nazionalean Areen eskuhartze eta garapenerako planeen onarpenak, hauen behin-behineko partehartzea baimenduko du Herrialdeko Idazkaritzaritzetan, eta koordinatzeko egoki ikusten diren beste erak baita era.

Beste aldetik, ardura hau Idazkaritza Nazionalean kokatzeari esker, gizarte-, erreibindikazio, eta antzeko politikak errazago koordinatu eta bizkortuko dira eta, era berean, Sindikatutik areara jarduketa eta lehentasunak hobeki bideratuko dira.

LAB Emakumeak

Euskal emakume langilearen egoerak (desberdinkeria, langabezia, ezkutupeko ekonomia, e.a.) emakumeari berariz eskainitako area eratu beharra erakusten du, eskuhartze-maila guztietan eta zatikako nahiz osoko ikuspegitik, egungo bere egoera gainditzeko lan sindikalerako alor gisa.

Honelako egoerak gaindi ditzagun jarduera bultzatzeko konpromezua bere-nagatu du gure erakundeak eta, ondorioz, bere eguneroko eskuhartzean Sindikatuaren egiturei eta zuzendaritza-organoei dinamika biziagoa aportatuko dion area sortu eta garatzea ere barneratua dauka.

Autokritikazko perspektibatik erronka honi aurre eginez, aurreko esperientziak gainditu eta harturiko konpromezuari eutsiz, aurrerapausuak eman behar ditugu.

Esparru lokaletan area egituratzea izan beharko da, lurralde-egiturarekin elkarlanean, lanerako elementua.

LAB Gazteak

Gazteriak lan-munduarekin geroz eta problematika konplexuagoa (langabezia, prekarietatea, intsumisioa, etab.) bizi duela ikusita, gazteen arteko eskuhartze eta lan sindikalerako areatzat egituratzen da LAB Gazteak.

Ekimenez eta ekarpenek, Sindikatuaren egituretan koordinatu eta elkar osatzeko esparruak aurkitu behar dituzte (Negoziazio Kolektiboa, LAB Langabetuak, sektoreak, etab.), gazteen ekinbidea indar biziagoz ager dadin eta esparru hauetan eskuhartze koalifikatuagoa bidera dezaten.

Talde horiek hedatzeak Hego Euskal Herriko geografia osoan barrena izan beharko du lurralde-egiturekin koordinatu beharreko lan-elementua.

Sortu denez geroztik, tarte labur eta urri (eskualde gutxitan dauka agerpena, nolabaiteko jardueraz) honetan hartutako eskarmentuak, ahalmenetatik gehientsuak garatuak ez dituen arren, lanabes honen premia egiaztatzen du.

LAB Langabetuak

Langabetuen artean eskuhartze eta lanerako areatzat egituratzen da LAB Langabetuak, langabezia eta lan-munduaren problematika izugarriaren aurrean (enplegua, aparteko lanordu edo ordu estrak, prekarietatea, e.a.).

Egoera berezietatik gertu, baldintza sozialek premia aldarrikatzen duten herri eta auzoetan taldeak ezartzea izango du oinarri egitura honek.

Gaurregun LAB Langabetuak eskualde jakin batzuetan bakarrik kokatu den arren, egoera hau gainditu behar dugu, egitura finkatu eta hedatzeko ahalegina eginez.

Sindikatuaren egitura guztietan egingo diren ekimen desberdinen dinamizazio eta bideraketak erraztuko dituen Politika Sozialaren arearen bidez, I.N.ean koodinatuko litzake area hau.

8. ZUZENDARITZA-ORGANOAK

8.1. Organo Konfederalak

Zuzendaritza-organo konfederalak osakera mistoa izango dute, euskarri dituzten (eta, jarrera honetatik, zuzendaritza osoa elkarlotuz, dinamizazio lanaren hartzaila izan behar duten) bi egituren arabera orekatua.

Organo hauen barne-funtzionamendua hobetzea, horien bilerak eraginkorragoak izatea, gaurregungoa baino prestakuntza-maila altuagoa izatea... izan behar dugu helburuetako bat.

Izaniko akatsak zuzendu behar ditugu, organo bakoitzari dagokion eginkizuna aitortu eta emanaz, izan ere, dinamika eta beharrianaren ondorioz,

batzuetan erabakiak larrialdiz hartu behar izatearen ondorioz, ez ditugu behar den mailan kokatu.

Zuzendaritzako edozein organori dagokionean, bertako kideen jarrera, zuzendaritza-lanetan elkarkidetzan aritzea izango da, bere burua bertako osakidetzat hartuz, bere esparruan lan kolektiboren batean jardunez, daukaten arduraz aparte.

Jarduera organikoan erabakiak igortzeko arintasunak (erabaki horien betetze-maila behar bezala jarraituz) erabakiak praktikan jarri ahal izateko beharrezkoa den eraginkortasuna ekarriko du.

Biltzar Nagusia

Kopuru-osakera 500 pertsona delegatura egokitzea, gure erakundearen errealitateak, egituretatik eta zuzendaritza-organoeetatik hurbilago eta orekatuago baitago honela.

Biltzar Nazionala

Biltzar Nagusien arteko zuzendaritza-organorik gorena den aldetik, gaurregun Konferentzia Nazionalari dagokion ezaugarri-multzoa bereganatuko luke, bete behar dituen eta Estatutuetan jasotzen diren eginkizunetatik osakera egokituago bat izaki.

Antzinako Batasun Nazionalaren ezaugarri-multzoa eta eginkizunetan hasi eta organo honi eman nahi diogun itzalera iritsi arte, nortasun-krisialdia jasan dugu: aurreko urratsean ez dugu lortu egin eta, honenbestez, zehaztapen eta osakera honekin, Biltzar Nazionalak egundoko eginkizuna bete dezan ahalegin berezia egin behar dugu.

Organo honek izenezko osakera izan behar du, erakundeko egituren ordezkariak bertan agerpen orekatua duelarik.

Hiru zati berezitan —alde batetik, Idazkaritza Nazionala, bestetik, zehaztu beharreko lurraldekako ordezkariak eta hirugarrenez, sektoreakoa— 130 kidek osatzeak eratzeko beharrezkoak diren urratsak zehaztuko dira.

Lurralde eta sektoreen ordezkariak, hauetako bakoitzak 50 kide dituela, afiliatuen proportziozko portzentaian osatuko litzateke, bai herrialdeei, bai sektoreei dagokienean.

Idazkaritza Nazionala

Organo honen aurreko osakera, Batzorde Iraunkor Nazionalari dagokiola, jarduera bera desagokitzeko faktorea izan da.

Erakundearen egiazko eragile den aldetik, esparru honen finkapena eta izaera lortzeak izan behar dugu berehalako helburua, haren eginkizunaren ezaugarriak eta balioa (bai kanpo aldera, bai barne-dinamika eta egituretara begira ere) kontutan izanik.

Biltzar Nazionalaren ekarpenarekin batera, Biltzar Nagusian zehazten diren tajuera eta erabakiak martxan jarri eta bizkortean etengabe jardun behar du organo honek, gauza bat biziki kontutan izanik, hau da, Sindikatuaren

eskuhartze eta garapenaren azken emaitzaren zati garrantzitsu bat, Idazkaritzaren funtzionamenduaren ondorio zuzena izango dela.

Osakera hirukoitza izango du: batetik, ardura nazionalak, bestetik lurraldeko ordezkariak eta, azkenik, sektoreena:

Ardura Nazionalak:

- Idazkari Orokorra
- Ekinbide Sindikala
- Antolakuntza
- Komunikazioa
- Negoziazio Kolektiboa
- Politika Industrialak
- Politika Ekonomikoa
- Politika Soziala
- Trebakuntza
- Nazioartekoak
- Finantzen eta Diruzaintza
- Eskuhartze instituzional eta garapen sektorialaren koordinazioa
- LAB Emakumeak
- LAB Gazteak

Lurraldeko ordezkariak:

- Herrialdeko Idazkariak

Sektoreen ordezkariak:

Gure erakundea egituratzen duten Biltzar Sektorialen zehaztapenen arabera eratu da maila honi dagokion ordezkariaren osakera.

Afiliazio bezalako oreka-mekanismoetan oinarrituta eratu daitezke sektorearen ordezkariak: honen arabera zehaztu beharko genituzke esparru honetako kideak.

Komite Exekutiboa

Orainarte Batzorde Iraunkor Nazionalaren eginkizuna izan dena organo honek jasoko du; aldi berean, atal honetako eta gorago Idazkaritza Nazionalari zegokion atalean egindako gogoeta orokorrez bere jarduerara birmoldatu egin beharko du.

Egitura honek, Idazkaritza Nazionaleko organo eragileztat jardun behar du, organoaren beraren eta Idazkaritza Nazionalaren ariera eraginkorra izan dadin, ardura nazionalak sistematikoki bizkortuz.

Edukin eta dinamikei dagokienez, organo honek Idazkaritza Nazionalak zorrozki prestatu ondoren, erabakien jarraipen, bizkortze eta exekuzioa ere zorrozki egin behar du.

Egitura hau osatzen duten arduradunen koordinazioak eta jardueramailek arreta berezia jarriko dute bertan, Idazkaritza Nazionalaren batzordeen bizkortze eraginkorra eramanez.

Egungo ezaugarriak kontutan izanik eta, gure eredu organizatiboan eman nahi dugun urratsari begira, lurralde-ardura zenbaitek izaera garrantzitsua daukabela ahantzi gabe, gure ustez Herrialdeko Idazkariak Komite Exekutibo honetako kide izan behar dute eta, era berean, ardura nazional batzuek (Politika Industrial, Ekonomikoa, Soziala, Nazioartekoak, Trebakuntza, Finantzen eta diruzainta, Eskuhartze instituzional eta garapen sektorialaren koordinazioa), Idazkaritza Nazionalan parte hartuz bete dezakete beren eginkizuna.

Ondorioz, organo honen osakera hauze litzateke:

- Idazkari Orokorra
- Ekinbide Sindikala
- Antolakuntza
- Komunikazioa
- Negoziazio Kolektiboa
- Herrialdeetako Idazkariak

8.2. Batzordeak

Idazkaritza Nazionalaren izaeraren eta osakeraren araberakoa izango da organo honek funtzionatzeko behar dituen lan-batzordeen egituraketa. Eginkizunak eta bestelako zertzeladak ere, Idazkaritzak zehaztu beharko ditu.

Batzorde hauek izaera koiuntural edo egiturelekoak izan daitezke eta haien osakera, berriz, agintzen zaizkien eginkizun edo lanen araberakoak izango dira. Idazkaritza Nazionalari dagokio, beraz, kasuan kasuko erabakia hartzea.

Ohiko jardueran aritzeko, Ekinbide Sindikal, Antolakuntza, Negoziazio Kolektibo, Trebakuntza eta Nazioarteko Batzordeak egituraz osatu beharko dira, kasu bakoitzean erabakitzen den osakerarekin. Idazkaritza Nazionalak, egitura hauen lan-planen eta jardueraren koordinazioa eramango du etengabe.

9. ANTOLAKUNTZA-SAREAREN KOORDINAZIOA ETA ARDURAK

9.1. Arduren ezaugarriak

Ardura bakoitzaren izaerak, edukinean duen xehetasunak, eginkizunen azalpenak eta lanen zehaztapenak eman behar digute abiagune nagusia, ardura-dun bakoitzak bete behar dituen jarduera eta egituren mailekin izango duen erlazioa ezagutzeko.

Kasu bakoitzean argitu behar ditugu kontu hauek, ardura guzti-guztien erlazioa, erakundean orohar eta jardun behar duten organoetan bereziki haietako bakoitzak bete behar duen eginkizuna zehaztea errazteko.

Jokamolde honek erraztuko digu zaigu lana betetzea, baharrezko autonomi mailak garbi adieraziko ditu eta zuzendaritza-organoeekin ditugun ardurak mugatuko dizkigu.

9.2. Egituren koordinazioa

Zenbaitetan, soluzioa eman gabe geratu zaizkigun arazoetako batzuk, egituren arteko koordinagailuak izan dira.

Egoera hau gainditzeko gauza izan ez garela eta, honekin batera, egituraren garapenari beste bultzada bat ematea nahi dugula kontutan izanik, gai honetan behin betiko urratsa ematea inoiz baino premia larriagokoa dugu.

Baliteke gaurregun dauzkagun lanabes eta diseinuen ondorio bakarrik ez izatea: baliteke eskarmentuek ere (bai historikoak, bai egoerari dagozkionak) eragina izatea.

Zuzendaritza nazionalako organo berri den Idazkaritza Nazionalaren osakerak eta hurrengo etapan organo honek garatu behar dituen lan-dinamikak —bere arduren funtzionamendua— elementu garrantzitsuak, erabakiorrak izan behar dute problematika horiek bideratu eta soluzio egokia emango bazaie.

Sorturiko problematikaren soluziobidean aurrerapausuak ematea erraztuko duen elementu zuzentzaileetako bat, ardura konfederalak lurralde eta sektore-etako egituretara begira egin behar duten bizkortze eta jarduerak dira.

Epe labur batean, geure eginkizunak betetzean dinamika horizontalak praktikan jartzeko gauza izan behar dugu, zuzendaritza-organoko bakoitzaren jardura (bai konfederalak, bai egituretakoak), ardura nazionalen jardueraren osagari izan dadin moduz.

9.3. Lan-planak eta jarduketak

Bai Sindikatua zabaltzeari eta finkatzeari begira, bai eskuhartzeari begira ere, gure jarduerako alor eta maila guztietan gure lana planifikatzeko garrantzia behin eta berriro aipatu izan dugu azken hilabeteotan.

Epe egokiak eta helburu zehatzak adierazten dituen plangintza balore handiko lanabesa da, eraginkortasunaren ikuspegitik, funtzionamendu orekatu eta zehatza aurrera eramateko ezinbestekoa, batez ere gure erakundean gehiegi erabili izan dugun lan-elementua —kanpaina-planteamendua, alegia— atzean utzi dugularik.

Jarduteko era honi esker, osotasunezko eta etorkizunezko perspektibatik egin ditzakegu jarduera osoaren proiektuak, ardura-maila bakoitza mugatuz eta egoera berezi eta une berezi bakoitzean dagokiona zehaztuz.

Idazkaritza Nazionalaren funtzionamenduak eta berari dagozkion ardurek egundoko garrantzia izango dute prozesu honetan, bai tajuera eta eztabaidaren ikuspegitik, bai eta planen koordinazio, balorazio eta jarraipenetik ere.

9.4. Aldizkako balantzeak eta hauek betearazteko ardurak

Plangintza guztiak zehaztu eta onetsitakoan, hauen exekuzio-mailen jarraipena koordinatuko da, kasuan kasuko balorazioak Sindikatuko organoei igorritz.

Gaietako balorazioek maiztasun jakin batez egin beharko dira, haien berri elkarri jakinaraziz, bai eskualde, herrialde eta Hegoalde mailako organoetan, bai lurralde eta sektoreko egituretan.

Maiztasun batez egiten diren ebaluazio hauekz baliatuz, tajaturiko planak aztertu, berrikusi edo bestela eratu ahal izango dira, beharrezkoa den neurrian; honetaz gain, lanak egin eta ardurak betetzean izaniko erantzun-maila ere baloratu ahal izango da.

Bai aldez aurreko plangintzaren, bai —planak egitean— gerora bizkortzearen koordinazioa, arduradun konfederalei dagokie.

10. IDAZKARITZAK ETA KABINETEAK

Beren azterlan, gogoeta eta ikerlanak Sindikatuaren egiturei eta zuzendaritza-organoei aportatzen dizkieten lantalde iraunkorrek dira idazkaritzak eta kabinetek.

Haietako bakoitzaren errealitateak kontutan izanik (batzuek eskarmentu negatiboa izan duten bitartean, besteak ia-ia lehen urratsa ematear daude), honen garrantzi handiko gaietan beren lana funtzionamendu zehatzez aportatzeko, kasuan kasuko lantalde iraunkorrek sortu ahal izan ditzagun premia nabarmena zehaztu behar dugu.

Idazkaritza Nazionalen aginduetara zuzenki, bertan egin beharko dituzte beren aportazioak, lan-planak, etab. Komite Exekutiboak —bere ardura zehatzen bidez— eramango du horien arteko koordinazioa.

Idazkaritza Tekniko Juridikoa

Idazkaritza honen eginkizunak ahokularitza juridikotik haratago doaz; egitura hau beste ezaugarri eta egitura-maila batean geratuko litzateke honela, zuzendaritza-organoei egin behar dien aportaziotik gertuagoko ikuspegi batetik jardun dezan moduz. Hurrengo eginkizunak izango litzuzke:

Lan-harremanak eta gizartearen babesa xedatzen duten edo bertan eragina duten arau juridiko sustantibo eta prozesalen azterketa eta gogoeta egitea eta, gainera, gai honi buruzko lege-ekimenen jarraipena.

Sindikatuaren erreibindikaziozko dinamiketan aportatzea, negoziazio kolektibo, politika instituzional eta sozial, eskuhartze area eta honelakoetan, bereziki.

Sindikatuaren eskuhartze-ildoak osatzen dituzten helburu orokorrak garatzean, zuzendaritza-organo konfederalei aportazioa egitea.

Trebakuntza Arearekin etengabe eta sistematikoki elkarlanean jardutea.

Idazkaritza honen eginkizunak ahokularitza ekonomikotik haragokoak dira; aholkularitza ekonomikoa beste egitura-maila batean geratuko litzateke honela, ikuspegi orokorrago eta, aldi berean, zuzendaritza-organoei egin behar dien aportazioarekin egokiago jarduteko moduz. Hurrengo eginkizunak izango lituzke:

Aldakin sozio-ekonomikoen (langabezia, okupazioa, inflazioa, Barne-Produktu Gordinaren gehikuntza, interes-tipoak, industriaren produkzio-indizeak, e.a.) jarraipena egitea, hauei eta hauen joerei buruzko txostenak maiztasun jakin batez eginez.

Gobernuen politika ekonomikoak (aurrekontuak, industri, enplegu-, gastu-, azpiegitura-politikak...) jarraitzea eta dagozkion txostenak egitea.

Sektoreko errealitate behinenak azterketara ekartzea, ekonomi sektore jakin batzuen bilakaera, ezaugarriak eta garrantzia jorratuz.

Sindikatuaren trebakuntza lanetan laguntzea, bere eskuduntzako gaietan, etengabe eta sistematikoki.

Komunikazioa, Prentsa eta Argitalpenak

Harreman eta komunikazio sozialeko munduak egundoko garrantzia daukan testuinguru honetan, gure erakundearen komunikazio-premiei —eraginkortasunez— erantzuna emateko beharrak, ezaugarri hauetako area sendotzea exigitzen digu.

Borroka ideologiko, ideien igorpen eta erreibindikaziozko jokamoldeen garapenean gure Sindikatuak (gizartearengana, orohar, eta erakundearen barne-aldera arituz) izan behar duen eragina kontutan izanik, hortxe kokatu behar dugu premia, zorrotzasunez.

Bere burua tajutu, eratu eta funtzionatu ahal izateko, komunikazio osoaren aldakin guztiak aintzakotzat hartu behar ditu.

Kanporako komunikazioa izango da bultzatu beharreko lan-ildoak, gure jarduera planifikatu eta baloratuko duen prentsa-bulego eta guzti.

Area honetatik eratu behar dira gure irudi korporatiboaren garapena esparru eta egoera guztietan, bertako propaganda eta honen diseinua, argitalpenak, aldizkariak, materialak, etab., gure ekinbide sindikala errazteko.

Argitalpena maiztasun batez argitara eman ahal izan dadin egiturak osatuz, "Iraultzen" aldizkaria prozesu osoan lantzea, bertako edukinen koordinazioa, programazioa eta balorazioa izango da jorratu eta zaindu beharreko gaia.

Afiliatu, delegatu eta egiturekin, orohar, etengabe komunikazioko prozesuak mantendu eta bultzatzea, barne-mailan.

Lanbide Heziketa

Lanbide heziketaren (edozein motatakoa: jarraia, okupazionala edota arautua) garrantziari zor zaion eskuhartzea praktikan jarri ahal izateko, epe laburrean kabinete bat finkatzea ezinbestekoa da.

Egitura horren eginkizunak izango dira gai honetako problematikak aztertzea, jardunbide global eta zehatzak proposatuz, foroetan eskuhartze koherentea izateko (negoziazio kolektiboa, sektoreak, enpresak, lantegiak, instituzioak, e.a.).

Konfederazioen artean hartutako erabakien jarraipenak eta, ekinbide sindikalera begira, egiturekin koordinatzeak, garatu behar dugun eskuhartze eta jardubidean ibiltzeko eztenkari eta jorratzeko lanabes izan behar dute.

Lantalde bat, bere baliabide eta guzti, dauden errealitateak (trebakuntzarako estrategia orokorra tajutzea, lanbide eta heziketa zentruak, trebakuntzaren azterlariak, etab.) ezagutzera bideratzea, egitura eta organo guztiei egin behar zaizkien azterketak, gogoetak eta proposamenak egin ahal izateko beharrezkoa den lana elkarrekin eginez.

Lan-osasuna eta ekologia

Produkzio-sisteman gertatzen diren eta lan-osasunean egundoko eraginak izaten dituzten aldakuntzek (berrikuntza teknologikoak, industrialak, e.a.), kabinete hau sortu eta sendotzeko premia sailhestezina ederdi adierazten digute, produkzio-esparru guztietan segurtasun eta osasun alorretan eskuhartzeko oinarritzko norabideak tajutu ditzan.

Lan-osasunaren problematikak lanaren antolakuntzarekin, produkzioaren interesekin eta, ondorioz, (ekosistema suspertuz eta babestuz) orekatzko garapen-elementuarekin daukan zerikusia aintzat hartzeko kontua da, arazoa osotasunezko ikuspegitik aztertuko badugu.

Alorrean jorratu behar diren eginkizunek, gai honetan bultzatu behar dugun eskuhartze-motarekin dute zerikusia; ez dute egon behar lotuta instituzioei eta indarrean dagoen legeriari bakarrik.

Bide jakin eta zehatz bat indartzeko, sekzio sindikaletara, sektoreetara e.a. aportatzea, errealitate desberdinei jarraipena maila guztietan egitea, osasun eta segurtasun-planetan (arriskuen prebentzio eta suntsiketa) eskuhartzea, lan-baldintzak aldatzean, aldakuntza teknologikoak sartzean, e.a.

Garapenerako osotasunezko ikuspegi ekologikotik, ingurunearenganako errespetuz bizkortu behar dugu geure eskuhartzea, osasun eta biziaren garantia ezezik, enpleguaren garantia ere badelako, egiaztapen hau kontutan izanik: ingurunea hondatzea makinabat lanposturentzat mehatxua da, gero eta nabarmenago.

Administrazio eta Finantzak

Gure Estatutuetan adierazten den bezala, administrazio eta finantzen gestioan, erabakiak hartzeko organo eskuduna Idazkaritza Nazionala dela kontutan

izanik, kabinete honek eginkizun hau betetzeko bidezkoak diren gogoeta, lan, balorazio eta azterketak zuzendaritza nazionalako organoari aportatzen dizkio.

Sindikatuaren baliabide ekonomikoak eta ondasunak (kuotak, emakidak, dirulaguntzak eta, bestetik, erositako, emakidan nahiz oinordetzaz hartutako ondasun higiezin eta higikorrak) kabineteak aztertu, jarraipena egin eta gestionatu behar ditu.

Dirulaguntza, finantzaketa eta abarren gestioari begira, instituzio ofizial eta finantziariekiko harremanak ere, ardura-alor honetan gauzatu beharko dira.

Azpiegitura-politika, kuoten, administrazioaren eta langilegoaren gestioa ere kabineteak eramango du.

Beharrezkoak diren kontabilitate-prozesuez baliatuko da, bidezko balantze eta aurrekontuak aportatuz eta horiei guztiei jarraipena egingo die.

Dokumentazio-zentrua eta Artxiboa

Bai ardura exekutiboetan, bai egitura guztietan, lanak erraztearren, artxibo eta dokumentazio-sistema osatzea helburu duten mekanikak jarri behar ditugu praktikan.

Beharrezkoak dituen elementu teknikoez hornituta, artxibo eta dokumentazio-sistema finkatu behar du Sindikatuak (bertan ekoiztu direlako nahiz bestelako estamentuek laga dizkiotelako) dauzkan hamaika dokumentu, azterlan, estatistika e.a. behar bezala eta eraginkortasunez erabiltzea erraztearren.

**Osotasunean aritzeko
erakunde efikaza behar**

11. KOADRO SINDIKALAK

Gure erakundeak funtsezko erronka bat dauka gainean: militantzia osorik trebatzea, jaztea. Militante sindikalaren hezkuntza-mailak igotzea den helburua egunero gauzatu beharra dago, une hauetan zintzilik dugun arazoari irtenbidea emanaz.

Koadro sindikalen politikatzat jotzen den horren barnean, aurreko gogoetak egundoko garrantzia dauka: honek, eguneroko jardueran metatutako eskarmentuarekin eta honek trebakuntzari aportatzen dionarekin batera, geroz eta koalifikatuagoak izango diren koadroak lortzearen oinarria izan behar du.

Egiturretako maila guztietan gure erakundeak dituen beharrian eta baliabideen egoera abiagune hartuta, naturaltasun osoz gertatu behar diren aldakuntza edo mugierei zabaldutako perspektibaz joratu behar dugu hau, era orekatuan eta behar den kontsentsu-mailan, dauden aukera guztiak erabiliak izan daitezen, gure Sindikatu osoaren onuran.

Dauzkagun —eta bultzatu behar ditugun— formulen bitartez militanteak sartzea, eskubide sindikalak (ordu-metaketa, liberazioak, e.a.) erabiltzea gure jarduerako lanabesa izan behar da, etengabe.

Borondatez onartzen duten arduraren eta agindu sindikalaren ondorioz, Sindikatuan zuzenean aritzen diren pertsonak osatzen dute gure erakunde-ko militantzia aktiboa.

Koadro berriak sortzeko gure politikan jarduera zuzen eta eraginkorra eragotz dezakeelarik, gure betebeharren garapenean ariera boluntaristari (kargu eta eginkizunen metaketa, e.a.) erantzuteko premia dugu. Era berean, hiru kongresu jarraien iraunaldia finkatu behar zaio, gehienez ere, arduraz nazional bera hartuko duenari aukeratua gertatu ahal izateko.

Konpromezu-maila desberdinak daudela eta, hortaz, erantzukizun-gradu guztiak berdinak ez direla kontutan izanik, koadroen politika gogoeta hautan kokatu behar dugu, konpromezu progresiboeko partaidetza bultzatzen saiatuz.

Kolektibo honek edozein erakunderentzat —gurearentzat, bereziki— daukan berebiziko garrantziak hausnarketa egin eta neurriak harrarazi behar digu, bertan inertzia desegokiek iraun ez dezaten eta, honela, sortzen zaizkigun egoera guztiak gainditu ahal izan ditzagun.

12. AFILIAZIO-POLITIKA

Erakunde sindikala garen aldetik, gizartearen kontzientziatze-prozesuan eragina izan behar dugulako, LABen inguruan dudarik gabe dabilen oinarri sozial hori gure proiektuan sar dadin erraztasunak emateko beharrezko lan-tresnak egokitu behar ditugu gure planteamendu ideologikoen bitartez.

Sindikatura hedatzeko erronkari aurre egin behar diogu, elkarren artean hertsiki lotuta dauden ikuspegi desberdinetatik: afiliazioarekin eskuhartze sindikala gauzatzea eta barne-dinamika sindikalean parte hartzea eta sektore eta lurralde desberdinetako ordezkariak aldatzen joatea.

Gai honetan gure erreferentziazko ardatza izan behar du, erakundearen osotasunean eta ardura guzti-guztietan gorpuztuko den afiliazio-politika jarraiak, ez koiunturalak.

Sekzio sindikalen atalean egin diren gogoetak, Sindikatuaren bizitzan afiliazioaren funtzionamendu, informazio, partehartze eta abarri dagokionean batez ere, afiliazio horren gehikuntzan ondorio positiboak izango ditu, dudarik gabe.

Berehalako gure erronketako bat, dinamika hau eskualdeetan, sekzio sindikaletan etab.etan gauzatu behar dela erabakitzea da, hala zehazten duen berarizko kanpainarik egin behar izan gabe.

Sindikatuaren egituretan afiliazio-planak asumitzearen bitartez, beharrezkoak diren helburu, lan eta epeak kokatuz eta etengabeko koordinazioa eta aldizkako ikusketak eginez, goien aipaturiko gogoetei fruituak emango dizkien ekinbidea jarriko dugu martxan.

Afiliazio-gaietako ardura Sindikatuaren bi egituretan (lurraldekoa eta sektoreetako) eta, zehazkiago, antolakuntzakoan kokatu beharra dago, eginkizun hori aurrera eramango duen berarizko organo edo irudirik baztertu gabe.

13. HAUTESKUNDE SINDIKALAK

Lehen-lehenik, UGT eta CCOOen laguntzaz Gobernu espainolak, Ordezkaritza Kolektiboak dagokienean, gauzaturiko Lan-Erreforma hartu behar dugu kontutan: honek, etorkizunean, gureaz zeharo bestelako egoeretara egokitu nahi ditu hauteskundeak, bestelako errealitate sindikala abiatu eta Hego Euskal Herrian metaturiko eskarmentua eta bertako egoera kontutan hartu gabe.

Beste alor batean, Gasteiz eta Iruñeko Gobernuek agertu duten ahalmen legislatiborik eza ez da baztertzeko modukoa; ez eta honek guztiak, gure Herriaren —eta, zehazkiago, Euskal Langileriaren Mugimenduaren— berarizko nortasunari egokitutako prozesu hau lotzeko unean sortarazten dituen zailtasunak ere.

1994ko lehen seihilabetekoan Baskongatueta eta Nafarroan, hauteskunde sindikalei buruz, lortu genituen sindikatuarteko erabakien indarra, testuinguru honetan eta sindikalismo abertzaleak ekimen hau eskaintzeko garaian erakutsi duen gaitasunean kokatzen dugu.

Erabaki horiei esker (aldeak alde, Nafarroa eta herrialde baskongatuak ez baitira berdin) Hego Euskal Herrian lehenagoko prozesuetan metaturiko eskarmentua kontutan izan dute eta, bereizitutako errealitate anitz honetatik abiatuta, panorama sindikalaren egituraketari dagokionean, prozesu osoa arautu eta kontrolatzeko lanabesa eskaintzeari dagokionean, gehiengo sindikal zabal-zabala jarri du ados, ahalik eta gardentasun eta fidakortasunik handiena garantizatzen.

Bestetik, positiboa iruditzen zaigu eta, horregatik, lehen mailan ipini behar dugu, gizarte-eragileek —sindikatuak, kasu honetan— dagozkien prozesu guztietan partehartze nabarmena izatea, gizarte osoaren eta, bereziki, langileriaren mugimenduaren garapen demokratikoa garantizatuko duten lanabes eta dinamikak eratzen saiatzeko, partaidetza sozialaren filosofiatik ikusita.

Lanabes den heinean, Herri honetako langileak, Euskal Langileriaren legeko interesen defentsaz, bizitza sindikalean parte hartzera motibatuz eta mobilizatuz daukan garrantzia nabarmendu behar dugu, lantegietan, sektoree-

tan eta gizartean orohar eguneroko jardueraz, ordezkaritza sindikala eten-gabe berrituko dela garantizatuz.

Etengabe zenbaketa egiten delarik, hauteskunde sindikalen prozesu dinamikoaren arabera egokitu behar dugu geure funtzionamendua. Halaz ere, aurrekoekin denboran bat datozen dinamikak eta eginkizunak gauzatzeari ez zaio utzi behar: aitzitik, gure eguneroko jardunaren zati bat hauei eskainiko diogu.

Perspektiba horretan bagara, prozesu dinamiko honek positibo izan behar du gure Sindikatuarentzat, kontutan izanik hauteskundeetako emaitzak indar sindikal bakoitzak praktikan jarritako jarduera sindikalaren arabera izango dela batez ere eta ez, ordea, epe labur batean aparailu burokratikoek egindako ahaleginen emaitza.

Halaz ere, partaidetzazko praktika irekia gauzatu behar dugu, lehenago esan dugun alor guztietan sekzio sindikalekin etengabe lanean aritzea bultzatuz.

Lurralde eta sektorekako helburuak jasota, ordezkaritza garatzeko Eskualdekako Planak tajutu behar ditugu, urtero-urtero lan-plana, eginkizunak eta ardurak bilduko dituztenak; bestetik, plan hauek hiruhilean behin ikuskatu behar ditugu.

14. TREBAKUNTZA

Gaurregun dauzkagun eta etorkizunean edukiko ditugun premien arabera trebakuntza egoki eta jarraia burutzeko politika izango dugu funtsezko elementuetako bat, erakundearen alor guztiek aurrera egingo badute.

Sindikatuaren finkatze estrategikoaren elementu den aldetik, egun bizi dugun unean oinarritzko beharra dugu geure burua trebatzea, jазtea: jasaten dugun egoera ezinbestez gainditu behar dugu-eta.

Objetiboak egokiro kokatuta, maila guztietan trebakuntza-planen tajuera eta bizkortzea aurrera eramango duen area bat sendotzea —bere lantalde eta guzti— premia larrikoa da.

Urtero praktikan jarri behar ditugun trebakuntza-planek, trebatuko diren pertsonen errealitatean sakondu behar dute, maila altuagoko jazkeraz hornitu nahi ditugun arduradunen egoerak eta beharrak desberdinak direla kontutan izanik.

Sindikatu osatzen duten kolektiboen koalifikazio-maila altxatzea izango dugu helburua. Horretarako, haietako bakoitzak dituen problematika zehatzak aztertu behar ditugu.

Inongo loturarik gabeko planen koiunturaltasunean ezin gara gelditu eta,

urteroko prozesutat agertzen badira ere, etorkizuneko tajuera eta praktika-
rekin gainditu behar dugu.

Zehaztu beharreko kolektiboak: Koadroak, Liberatuak, Delegatu Sindikalak
eta afiliatuak.

Antolakuntza

Trebakuntza-politikaren ardurak lurralde-egituran kokatuta egon behar du
baina honek ez die eragotzi behar sektoreei trebakuntza alorreko aportazio-
ak eta premiak aztertzea, gai zehatzetan beraien aportazioak eta eskakizunak
eginez, koordinazio osoan.

Delegatuen trebakuntza-prozesu egonkorrari hasiera eman ahal izateko,
lurralde guztietan eskola sindikalen sorrera bultzatzea, beren programazio
zehatz eta guzti, atzeratu ezinako helburua izan behar du.

Organoetako arduradunak koalifikatzeko eta, bide batez, trebakuntzari
buruzko planteamendu estrategikoa gorpuzteko, egundoko garrantzia izango
du koadro sindikalen trebakuntzaz arituko den koadroen eskola eratzea.

Giza-, gauza- eta ekonomi baliabideak

Planei eman behar diegun bultzadan funtsezko betekizuna izango dute idaz-
karitzek eta kabinetek. Era berean, etengabe trebakuntza jasotzeko konpro-
mezua izango dute.

Beharrezko egonkortasun eta koordinazioaz, trebatzaile-taldeen sorrera bult-
zaten dugun heinean, gaurregun jasaten ditugun arazoetako batzuk gaindit-
zeko bidean urratsak emango ditugu.

Unibertsitate munduarekiko harremana ere bultzatu behar dugu, pertsona
jakin batzuek —inoiz edo behin baldin bada ere— laguntza eman diezaguten
saiatuz.

Planak aurrera eramateko beharrezkoak diren giza- eta gauza-baliabideez
hornitu behar dugu.

Beharrezko hornidura ekonomikoak eta erabakiak aplikatzea, horiek beteko
direla garantizatzen duten finantzaketa-planen bitartez.

"Ipar-Hegoa Fundazioa"

Trebakuntza-alorrean beharrezkoak diren dinamikak bultzatzeko unean
"Ipar-Hegoa Fundazioa" izeneko lanabesak elementu positiboak izan behar du
eta, bestetik, bai trebakuntza-jarduera sustatzeko, bai gure gizarteko bestela-
ko sektoreekin topagune bat eratzeke ere, sakonean garatu beharreko bide-
an beste aurrerapausua dugu.

Berehalako helburua izan behar dugu lanabes hori sortu eta martxan jartzea.

Horren lan-alorretako bat, instituzio jakin batzuekin elkarlan-dinamikaz jardu-
tea izan daiteke. bai barne- bai kanpo-perspektibatik, ikasketa eta trebakunt-
za alorretan aportazioak eginez.

15. ONDASUN SINDIKALA

Metaturiko Ondare Sindikalaren Ondasunen Lagapenari buruzko 4/86 Legea argitara ematean, Gobernu espainolak 1986 urtean hasiera eman zion ondasun higiezinak erakunde sindikalei usufuktoan lagatzeari.

Lagapen (zesio) horien helburuak xedatutako irizpideak, sindikatuak funtzionamendu eta antolakuntza alorretan dituzten premiei erantzutera daude zuzenduak.

Lehen-lehenik, gai honetan eskudun diren estamentuek (Madrilgo Gobernu, bereiziki) LABekin daramaten diskriminazio-politika nabarmendu behar dugu. Gaurregun gure erakundeak horrelako ondasun bakar bat ere ez daukan bitartean, gure Sindikatuak baino dexenteko ordezkariak urriagoa duten erakunde sindikal batzuek Ondare horretako ondasunak erabiltzen dituzte.

Lehenago ere gure Sindikatuak adierazi zuen bezala, ondasunez usufuktoz baliatzeko eskubidea aitortua dugula kontutan izanik eta egin ditugun gestio eta eskariei erantzun egokirik eman ez zaienez, luzakizunik gabe, negoziatio-estrategiari hasiera eman beharrean gaude, premiazko diren presio neurriak hartuz.

LABen interesak larriki kaltetzen dituen diskriminazio-egoera honi amaiera emateko oinarriak ipintzeko estrategia —eta beste ekimenik baztertu gabe— Idazkaritza Nazionalak zuzenduko du.

Gure erakundeak premiaz aztertu behar du metaturiko ondare sindikalaren egungo egoera, herrialde guztietan dauden beharrezko zehaztuta, mapa sindikala eta langileek erakunde bakoitzari eman dien ordezkariak kontutan izanik, ondasun horien jarraipena egin eta exigitu arte.

16. ZERBITZUAK

Zerbitzu-politika zehazteaz

Gure Sindikatuan dagoen zerbitzu-politikak, aholkularitzari dagokiona (aholkularitza juridiko eta ekonomikoa, adibidez) gehienbat, erakundearen ekinbide sindikal eta erreibindikaziozkoan txertaturik egon behar du.

Ekinbide sindikaleko lantaldeak osatuko dituzte eta hauen esanetara egongo dira, lurralde- zein sektore-egituren eguneroko dinamika eragilean txertatuta.